ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2010eko apirilaren 19a > Astelehena > VI. urtea > 273. zenbakia > 1,10 euro
www.goiena.net

"Langileek kontzientzia falta izugarria dute lanean hartzen dituzten arriskuez"
**David Beliz**
Arkitektoa > 8



**G2a** Liburutegietan erabiltzaile gehiago > 29

**OÑATI**
Larrañako futbol zelaia berritzeko asmoa du Udalak > 11

**ARRASATE**
Hiri-gutunaren urteurrena "duin" ospatzeko eskaera PSE-EEk > 14

**BERGARA**
Udaltzainek Ibargarain jartzen dituzte isun gehien > 16

**KIROLA** > BORROKA LIBREA

## Unda hirugarren Europakoan

Europako txapelketan inoiz lortu duen emaitza onena da > 21

**UDALEKUAK** > IZENEMATEA

## Adi, herri gehienetan zabaldu dute izenemate epea

2010eko udaleku irekiak antolatzeko hasi dira ibarreko herrietan lehenengo pausoak ematen.

Batetik, herri askotan aste barruan irekiko dute udaleku horietan izena emateko epea, eta horrekin batera, udaleku horietan neska-mutikoekin lan egiteko monitoreak behar dira. > 14

**PRESOAK** > BERGARA

## Mikel Zubimendi etxean da

50.000 euroko bermea ordainduta askatu zuten > 04

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-27
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Denbora-pasak** > 36
**Telebista-Irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39



**ARKUPE ONDOAN** Bikote bat margolanei begira, domeka eguerdian, bertan deigarria iruditu zaiena komentatzen. JULIO CALLEJA

**PINTURA** > ERAKUSKETA

# San Martin plaza margolan erakustoki

**30 LAGUNEN LANAK** Bergarako Arte Elkartekoek eskoletan egindako lanak, plazara

**HARRERA ONA** Kalean zebiltzan herritar asko geratu ziren lanak bertatik bertara ikusten > 31

Domeka eguerdian Bergarako San Martin plazan bildutako herritarrek gustura ikusi zituzten Bergarako Arte Elkarteko (Beart) kideek kalera atera zituzten lanak.

Guztira 30 lagunen artelanak egon ziren erakusgai, eta baita salgai ere: "Ikasturtean eskoletan egindako lanak erakutsi ditugu, baina baita bertan margotzen ez duten bazkideen lanak ere", adierazi zuen Bingen de Pedrok. > 31

**ZIKLISMOA** > KLASIKOA

## Asentziok erabaki zuen lasterketa

Aurreikuspenak beteta, Asentzioko maldek erabaki zuten Gipuzkoako klasikoa. Carlos Jimenez iritsi zen Asentzioko gainera lehenengo, baina Bergarara jaisten Mario Gonzalezek –argazkian– harrapatu egin zuen. > 24-25




Mario Gonzalez irabazlea. JULIO CALLEJA



**HEZKUNTZA** > GAZTEAK

# Lanbide Hastapena, lana topatu nahi dutenendako alternatiba

**TITULURIK GABE** Mankomunitateak eskaintzen duen zerbitzua da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatu ez eta lanerako titulurik ez dutenendako

**LAU LANBIDE** Arrasaten duten egoitzan lau kurtso eskaintzen dituzte: industria mekanika, elektrizitatea, iturgintza eta sukaldaritza eta zerbitzuak

**TEORIA ETA PRAKTIKA** Alde teorikoa eta praktikoa uztartzen dituzte; irteerak ere izaten dituzte; tartean, sukaldaritzakoek eguenean Lasa jatetxera egindakoa

**MIRIAN BITERI**> BERGARA

Bergarako Koldo Lasaren jatetxean ezohiko bisita izan zuten joan den eguenean. Debagoieneko Lanbide Hastapeneko sukaldaritza tailerreko lehen mailako 13 ikasle izan ziren han eskola praktikoa jasotzen. Jatetxe bateko sukaldeak nola funtzionatzen duen ikusteko aukera izan zuten bisita horren bidez gazteek. Besteak beste, ogia eta hainbat postre egiteaz gain, jatetxe batek behar duen materiala ere ikusi zuten.

Esteban Gartzia arrasatearra gustura ibili zen han. Gazte horren arabera: "Zentroko sukaldean praktikatzen badugu ere, oso ondo dago horrelako irteerak egitea, sukaldaritzaren lanbidea benetan nolakoa den ezagutzeko. Zelan egiten duten lan erakutsi digu Koldo Lasaren lantaldeak". Gaineratu du gustura dabilela kurtsoa egiten: "Denetarik egiten dugu, Caritaskoendako menuak eta Lanbideko irakasleendako tortillak egiten ditugu, baita bokatak ere, ikasleek eros ditzaten".

**16-20 URTE BITARTEAN**

Debagoieneko Mankomunitateak eskaintzen duen zerbitzua da Lanbide Hastapenarena eta Arizmendi ikastola arduratzen da horren kudeaketaz. 16 eta 20 urte bitarteko gazteendako da hori, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatu ez eta lanerako titulurik ez dutenendako.

Lanbide Hastapeneko irakasle Aitor Guridik azaldu digu gaur egun lau ikastaro eskaintzen dituztela Arrasateko Nafarroa etorbidean duten egoitza berrian: industria mekanika, elektrizitatea, iturgintza, eta sukaldaritza eta zerbitzuak. Azken lantalde hori osatzea lortu dute aurten aspaldiko partez, aurreko urteotan ez daeta eskaerarik egon. Bi ikasturteko iraupena du bakoitzak; 2.000 ordu, hain justu ere.



Lanbide Hastapeneko sukaldaritzako ikasleak Lasa jatetxean izan ziren eguenean.

MIRIAN BITERI

Guridik dio eskoletan alde teorikoa eta praktikoa uztartzen dutela. Sukaldaritzan, esaterako, lehenengo urtean alde teorikoa lantzen badute ere, tarteka praktika zehatzak egiten dituzte. Lasa jatetxera egindako irteera horietako bat da. Bigarren urtean, berriz, praktikak egingo dituzte bailaran sakabanatuta dauden jatetxeetan.

Lau ikastaro horiez gain, osagarri programa moduan ezagutzen dutena dute; hau da, Debagoieneko ikastetxeetako ikasleak dira, eskolak osotasunean Lanbide Hastapeneko egoitzan ematen dituztenak. Guridiren esanetan: "16 urte bete gabe dituztenak daude, ikastetxean ez dute denbora aprobetxatzen eta gurera etortzen dira".

**LAN MUNDURA EDO IKASTERA**

Lanbide Hastapenak bi irtenbide eskaintzen dituela nabarmendu du: lan egitea, batetik, eta, ikasten jarraitzea, bestetik. Guridiren arabera: "Praktiketara joaterakoan, ikasleen gogoaren arabera, horiek lehenengo edo bigarren zatian egitea erabakitzen dugu. Ikasteko asmoa dutenek lehenengo praktiketara joango dira eta formazio orokorrean sakonduko, graduatua ateratzeko edo ziklo ertainetan sartzeko. Besteei praktiketan bigarren zatian jarriko genieke, lan egiteko aukera gehiagorekin irtengo dira-eta hortik".

ESANAK

**"Denetarik egiten dugu, menuak Caritaskoendako eta tortillak Lanbideko irakasleendako, baita bokatak ere"**

**Esteban Gartzia** > Ikaslea

**"Osagarri programan, 16 urte bete gabekoak daude, ikastetxean ez dute denbora aprobetxatzen eta gurera etortzen dira"**

**Aitor Guridi** > Irakaslea

DATUA

**57**

**IKASLE**

Debagoieneko Lanbide Hastapenekoak pozik daude aurtengo ikasturteak harrera oso ona eduki duelako. Lanbide Hastapenean 45 ikasle daude eta osagarri programan, berriz, 12.

IKASLE ASKO

## Zentrokoak pozik, eskaera handia izan delako

Ikasle kopuruari dagokionez, marka guztiak hautsi dituzte aurten Debagoieneko Lanbide Hastapeneko zentroan. Eskaera handia izan da eta gazte asko plaza barik geratu dira. Profil bakoitzean, gutxienez, hamar ikasle behar dituzte taldea osatzeko, eta, esan bezala, aurten ez dute arazorik izan hori lortzeko. Guztira, 57 neska-mutil ari dira zentro horretan ikasten. Sukaldaritzan, esaterako, 13 ikasle daude.

Lanbide Hastapeneko irakasle Aitor Guridik esan digu gorakada horren atzean, bizi dugun krisi ekonomikoa baino, adin tarte horretan dagoen ikasle kopuru handia egon daitekeela: "Ikasle gehiago daudenez, eskola porrota ere handiagoa da. Horren harira, gogorarazi behar dugu graduatu barik dauden gazteak hartzen ditugula zentro horretan".


HIPOTEKA
GARDENAK
KARTEL HAU
BEZALAKOXEAK.
KUTXAKO
HIPOTEKEK
ZORURIK EZ.
ONURAZ BETEAK ETA ZER EZKUTATURIK GABEAK.
HORRELAKOXEAK DIRA KUTXAKO HIPOTEKAK, GIPUZKOAR
GEHIENEN KONFIANTZA IZAN DUTENAK.
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa

**HEZKUNTZA** > LANBIDE HEZIKETAREN AZOKA

# Lanbide Heziketaren azokak piztu du herritarren interesa

Asteburuon bukatu da Arrasaten azokaren bigarren edizioa, eta gerturatutakoek ibarreko aukerak ezagutu dituzte

**TXOMIN MADINA** > ARRASATE

Lanbide Heziketaren azokaren bigarren edizioak eman zion zapatuan amaiera joan den aste osoan zehar Debagoieneko Mankomunitateak antolatutako Lanbide Heziketaren asteari.

Egubakoitzean egun osoan zehar eta zapatu goizean egon zen zabalik azoka eta 250 pertsona inguru pasa ziren bertatik. Egubakoitzean batez ere ibarreko ikastetxetako ikasleak egon ziren azokan, zapatuan baina, gehiago izan ziren gurasoak eta dagoeneko lanean dabiltzan langileak.

**AUKERA ZABALA**

"Azokaren balorazio positiboa egiten dugu; bai zentroek erakutsitako inplikazioagatik, eta baita izan duen harreragatik ere", azaldu zuen zapatuan Koldo Azkoitia Mankomunitateko Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentziaren zuzendariak. "Gure asmoa zen batez ere DBHko ikasleei erakustea batetik, unibertsitateaz gain, badaudela beste aukera batzuk, eta bestetik, Debagoienean gauzak ondo egiten dituzten eta aukera zabala eskaintzen duten zentroak daudela", gaineratu zuen.

Lanbide Heziketaren egokitasuna ere defendatu zuen Azkoitiak: "Tituluei horrenbeste garrantzia eman beharrean, lan merkatuaren eskariei hobekien erantzuten dion formazioa jaso beharko genuke, eta argi dago egoera zailetan, Lanbide Heziketak formazio egokiagoa ematen duela". Bere iritziz, lan gabe geratu direnentzat formatzen jarraitzeko aukera ona izan daiteke Lanbide Heziketa.

**LAN BATERATUA**

"Azoka honekin gainera, ibarreko zentroen arteko lan bateratua ere sustatu gura izan dugu, horrek hobeto lan egitea eta ildo nagusiak hobeto markatzea ahalbideratuko du-eta", azaldu zuen Azkoitiak.

DATUA

**15**

**ERAKUSMAHAI**

Azokan parte hartu dutenen artean, sistema publiko zein pribatuko zentroak, akademiak eta erakunde ezberdinak egon dira euren eskaintza akademikoa bisitariei erakusten.

PARTE-HARTZAILEAK



**Urrategi Altzibar**
Miguel Altuna institutoa

### "Atzerriko hizkuntzei garrantzia handiagoa ematen diegu"

"Enpresek hizkuntzei gero eta balio gehiago ematen diotenez, moduluren bat ingelesez egiteko aukera ematen diegu ikasleei. Segurtasunarekin lotutako ikastaroak ere eskaintzen ditugu, baita langile eta langabetuei zuzendutakoak ere. Enpresendako neurrira egindako ikastaroak ere prestatzen ditugu".



**Iñaki Velez de Mendizabal**
Mondragon Goi Eskola Politeknikoa

### "Enpresen beharrak asetzeko ikasketak prestatzen ditugu"

"Daukagun abantaila Taldeko enpresekin proiektuak egiten ditugula europar esparruan, eta horrek ahalbideratzen du jakitea zein perfil beharko den etorkizun hurbilean; horren arabera, ikasketa horiek lantzen hasten gara. Heziketa zikloen eta Gradu zikloen arteko aldea, ez da hain handia, oso parekoak dira".



**Lourdes Azkoaga**
Bastida akademia

### "Eskaintzen duguna, formazio okupazionala da"

"Ikasten jarraitu gura ez dutenentzako edo ikasketak amaituta ezer egin ez dakitenendako ikastaroak ditugu, Inemekin eta Hobetuz programarekin elkarlanean. Hainbatetan, langabeendako plazak gordetzen dira. Iaz, segurtasun pribatuaren inguruko ikastaro bat eman genuen, eta egun ikasle guztiak daude lanean".

**EUSKAL PRESOAK** > ZUBIMENDI ASKE

# Mikel Zubimendi etxean da 50.000 euroko bermea ordaindu ostean

Eguen iluntzean irten zen espetxetik Zubimendi, eta gauerdian heldu zen herrira; Politikan aritzea debekatu diote

**T.M.** > BERGARA

Bakoitzari 50.000 euroko bermea ezarrita, Espainiako Auzitegi Nazionalak Mikel Zubimendi bergararra eta ezker abertzaleko beste zortzi kide aske utzi zituen eguenean.

Zubimendirekin batera, Arantza Santesteban, Anjel Mari Elkano, Jon Garai, Juan Joxe Petrikorena, Aner Petralanda, Ibon Arbulu, Marisa Alejandro eta Marije Fullaondo dira eguenean aske utzi dituztenak. Fullaondo kenduta, beste guztiak 2007ko urriaren 4an atxilotu zituen Espainiako Poliziak Seguran, ezker abertzaleko beste hainbat lagunekin batera.

**POLITIKAN ARITZEKO DEBEKUA**

Aske utzi arren, Auzitegi Nazionalak politikan aritzeko debekua ezarri die denei. Atxilotu zituztenean, Batasunako Mahai Nazionala berritzen ari zirela egotzi zien Baltasar Garzon epaileak.

Hala, Auzitegi Nazionalak ateratako autoan zehazten denez, espresuki debekatu zaie Segurakoa bezalako bilerak, manifestazioak eta ekitaldi publikoak egitea, baita taldeak osatzea eta ezaugarri berdin edo antzekoetako koalizio edo alderdi politikoak osatzea.

**HERRIAN HARRERA**

Behin ezarritako bermea ordainduta, gaueko bederatziak inguruan irten zen Mikel Zubimendi Zaragozan dagoen Zuerako espetxetik.

Eguen gauerdian bertan heldu zen Bergarara, eta Arrano inguruan harrera egin zioten han bildutako senide eta lagunek.

**AZPIEGITURAK** > AHT

# Esleitu dituzte Bergara eta Antzuola arteko lanak

Enpresak ia hiru urte izango ditu 4.289 metro dituen zatiko lanak bukatzeko

**T.M.** > BERGARA

Lehiaketara aurkeztutako hamabi aukeren artean Eusko Jaurlaritzak aukeratu du dagoeneko zeinek eraikiko duen Abiadura Handiko Trenak Bergara eta Antzuola artean egingo duen zatia.

Lanok 106.498.219,60 euroko aurrekontua izango dute eta 35,5 hilabeteko epea izango du enpresak lanak amaitzeko. Guztira, 4.286 metro izango ditu tarte honek.

**ZATI MALKARTSUA**

Jaurlaritzatik esan dutenez zati hau nahiko malkartsua da, aldapa handi eta bailara txikiekin. Hartara, ia zati guztia tunelean izango da. 3,9 kilometroko tunela izango da eraikiko dutena.

Zati hau Deba ibaiaren gainean eraikiko den zubiarekin elkartuko da aurreko zatiarekin (Bergara-Bergara); hurrengo tartearekin (Antzuola-Ezkio Itsaso) Deskarga ibaia zeharkatuko duen zubiaren aurreko lubakiaren bidez.



ESKORIATZA Elorreta S. Coop.
ETXEBIZITZAK KOOPERATIBAN
KOSTE PREZIOAN
ELORRETAN, ERDIGUNETIK GERTU 2 ETA 3 LOGELETAKO ETXEBIZITZAK
Arrasate
Anboto
Iturriotz, 11 • Arrasate
www.inmoarrasate.com
943 77 14 11



Patricia Casajus, meditazioko irakaslea. OIHANA ELORTZA

Patricia Casajús > Meditazioko irakaslea

# "Ezjakintasun handia dago meditazioaren inguruan, eta onurak baino ez ditu"

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

**Meditazioari eta autoezagutzari buruzko hitzaldiak egiten ari dira Debagoienean Patricia Casajus eta Nestor Moreno senarra. Tolosarrak dira, eta hainbat herritan meditazio taldeak dituzte. Orain, halako bat sortu gura dute Bergaran; lokala ere badute. Meditazioaren inguruko erreflexioa eta praktika horren onurak dira, besteak beste, hitzaldietan lantzen dabiltzan puntuak. Orain artekoa ikusita, harrituta gelditu dira hitzaldiek ibarrean izan duten harrerarekin.**

**Gizarteak meditatzeko beharra duela ikusi duzuelako antolatu dituzue hitzaldiak Debagoienean ere?**

Senarra eta biok duela 15 urte hasi ginen meditazioa lantzen Tolosan, eta ikusi dugu gero eta jende gehiago etortzen dela; herri ezberdinetatik, gainera. Horrekin ulertu dugu jendeak baduela meditatzeko eta auto-ezagutzeko beharra, eta guk praktikatzen dugun filosofia hau ahalik eta gehien hedatzea pentsatu dugu.

**Isiltasunarekin lotzen dugu meditazioa; isilik egiten duzue zuek ere?**

Meditazioa praktikatzeko modu ezberdinak daude. Guk hasieran soinuak erabiltzen genituen, bibrazioak barneratzen genituen eta barne isiltasuna lortzen genuen horrela. Orain, berriz, isilik ere meditatzen dugu.

**Denbora hartu behar horretarako ere...**

Baina meditazioa uneoro egin daiteke: etxean, lantokian ... Meditazioa egunero eta edozein momentutan praktikatzen da eta konstantzia horrek ematen ditu, gainera, ondoren emaitza positiboak.

**Hala ere, horrek onura gutxi ekartzen dituen ustea ere badago, ezta?**

Uste dut ezjakintasun handia dagoela gai horren inguruan. Meditazioaren inguruko aurreiritzi gehienak okerrak dira, eta onurak baino ez ditu. Barne kontzientzia piztea da meditazioaren helburua eta bizitzari aurre egiteko modu orekatua bilatzea.

> **"Ulertu dugu jendeak baduela meditatzeko eta auto-ezagutzeko beharra"**
>
> **"Meditazioa uneoro egin daiteke: etxean, lantokian... egunero eta edozein momentutan"**
>
> **"Meditazioaren inguruko aurreiritzi gehienak okerrak dira; onurak baino ez ditu"**
>
> **"Gaur egun estresa toki guztietan dagoela ikusten dugu, gauza asko eta azkar gura ditugu"**
>
> **"Bergaran zentrorako lokal aproposa dugu, baina ikusi egin behar da dugu jendearen jarrera "**

**Gure ibarrari dagokionez, jendeak interesa baduela ikusi duzue joan den asteko hitzaldietan, ezta?**

Bai. Harrituta gelditu ginen, gainera. Oñatin 22 lagun elkartu ginen, Bergaran 33 eta Arrasaten 60tik gora.

**Zeren gainean hitz egin zenuten?**

Orokorrean, erreflexionatu egin genuen. Izan ere, gure gorputzaz, familiaz, lanbideaz, abizenaz gainera, zer garen ikustea da horren helburua. Gaur egun estresa toki guztietan dagoela ikusten dugu, gauza asko eta azkar lortu gura ditugu eta gizakia berekoia dela ikusten dugu. Horren aurrean, berriz, beste modu batera bizi izatea posible dela uste dugu guk.

**Oraingo aste honetan duzue bigarren hitzaldi sorta geureari, ala?**

Bai. Gaur, astelehena, Oñatin dugu hitzordua; etzi, eguaztenean, Bergaran; eta, bukatzeko, eguenean Arrasaten. Bigarren saio horietan meditatzea zer den, ze onura dituen, zer behar dugun eta nola meditatu landuko dugu, besteak beste.

**Baduzue asmorik meditazio elkarterik sortzeko Debagoienean?**

Tolosakoaren ondoren, Zarauzko, Donostiako eta Ordiziako zentroak zabaldu ditugu, eta, egia esan, Debagoienean zabaltzea ere pentsatu dugu. Bergaran badugu horretarako aproposa den lokal bat, baina lehendabizi ikusi egin behar dugu jendearen jarrera.

---

etxeko leihotik



Ubane Madera > arrasate@goiena.com

## Guztion iritziek balio beharko lukete berdin

Herritarrei iritzia eskatzeagatik zigorra. Sekula santan ez nuke espero halakorik. Baina hori pasatu da Aramaion: Asier Agirre alkateak epailearen aurrean deklaratu behar izan du; akusazioaren arabera, Aramaion herriari galdeketa egiteagatik. Epaileak sententziarik ez du jakinarazi oraindik, baina nahikoa zigor da epaiketa batetik pasa behar izatea herritarrei euren iritzia jakinarazteko aukera emateagatik. Eta hori nahikoa ez, eta Estatuko fiskalak bederatzi urteko inhabilitazioa eskatzen du alkatearendako.

Asier Agirrek salatu du epaiketa hori politikoa dela. Ados nago. Izan ere, Gipuzkoan bertan eskatu izan da herritarren iritzia behin baino gehiagotan. Azken galdeketa zaborren kontuarengatik egin zuten eta ez zen ezer gertatu.

> **"Ados nago Asier Agirreren kontrako epaiketa politikoa dela"**

Edo zein da kontua: galdetzea zilegi da, baina gaiaren arabera? Bakarrik eman ahal dugu iritzia unean uneko agintariek "gustuko" duten gaia bakarrik denean?

*Demokrazia: subiranotasuna herriaren esku uzten duen erregimen mota edo sistema politikoa. Asanblea, funtzionario, auzitegi… jatorrizko demokraziaren instituzio horiek osatu gabe daude sistema administratzen zuen figura barik, 'Ho boulomenos' ("gura duen edozeinek"). Horrekin eskubidea ematen zitzaien herritarrei iniziatiba izateko: asanblean berba egiteko, epaiketa publikoa egiteko…* (Wikipedia).

**> Herriari iritzia** ematen uzten ez dioten agintariek (berdin da kolorea, jatorria eta arrazoia) ematen duten sentsazioa da beldurra diotela iritzi publikoari, eta ezkutatzeko eta galtzeko zerbait dutela; akaso ez da hala, baina halaxe dirudi.

**> Euskadiko parajeak** bisitatu ditut azken oporralditxoan, eta ederra da benetan gure Euskadi! Baina ezin ebitatu, Nafarroara sartzean asperenak ihes egin eta inbidia sano baino mingotsa sentitzea, hura hobeto zaindu dutela ikusita.

---

**EKONOMIA** > DEBAGOIENEKO INDUSTRIALDEA

## Enpresendako jardunaldia bihar Arrasaten, Kulturaten

Besteak beste, bezero berriak nola lortu eta informazioen analisia jorratuko dute bihar

E.M. > OÑATI

*Localizar clientes y generar oportunidades de negocio* izenburupean, Debagoieneko Industrialdeak antolatutako jardunaldia izango da bihar, martitzena, Arrasaten, Kulturaten, 10:00etan hasita. Lourdes Idoiaga Debagoieneko Industrialdearen presidentearen agurraren ondoren, besteak beste, ondoko hauek izango dira hizlarietako batzuk: MKAdvanced-eko Mariano Carmona (*Dinámicas de futuro para nuestras empresas*); Javier Gorrotxategi (*Planificación de escenarios*) eta Leire Garate (*Estudios de mercado singulares*); Etortech-eko gerente den Ander Iñarrairaegik India eta ekialdeko herrialdetako aukeren gainean jardungo du; eta, azkenik, Fran Manzanok (Igarle Gestio Sistemak) informazioen analisia jorratuko du, 12:45ean.

**TEKNOLOGIA BERRIAK** > OÑATI

# Telebista mugikorrean ikusteko ekimen turistikoa abian

Oñatiko bisitariek dohain erabil dezakete zerbitzu aitzindari hori ekainaren 30era arte; bost hizkuntzatan dago eskuragarri




Poltsikoko telefonoan *oinati.batura.mobi* ataria erabilgarri dago dagoeneko. TXOMIN MADINA

**MIRIAN BITERI** > OÑATI

Oñatiko turismo bulegoak zerbitzu berria jarri du martxan: gida turistiko mugikorrak. Gai turistikoen gaineko telebista saioen parrilla ikusteko aukera ematen du, baita WAP atari batera sartzeko, hainbat zerbitzu turistikorekin. Bost hizkuntzatan dago eskuragarri hori: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez eta katalanez.

Zerbitzua erabiltzea erraza da. Goiena Telebistak Oñatik dituen baliabide turistikoen gaineko hainbat telebista-eduki ekoiztu ditu, hala nola, unibertsitatea, Arantzazu, San Migel, baita naturaren, artearen, historiaren eta tradizioaren gaineko bideo tematikoak ere. Eduki horiek emititzen dira telebista parrilla batean, telebista mugikorraren aukera berriak erabilita, Itelazpiren azpiegiturari eta Diratelen laguntzari esker.

Bestalde, Euskaltelen telefonia aurreratuko sareak erabilita, Batura enpresak poltsikoko telefonoendako zerbitzuen ataria sortu du, hainbat atal dituena: agenda, Arrikrutzeko gaineko informazioa eta bisitak egiteko erreserbak, BTT ibilaldiak, jatetxeen gaineko informazioa edo informazio metereologikoa.

**TERMINALAK DOHAINIK**

Zerbitzua gertatuta badago bisitarien poltsikoko telefonoan instalatzeko, egun oso terminal gutxik betetzen dituzte gutxieneko baldintzak. Hori dela-eta, turismo bulegoak terminalak dohain jarriko ditu bisitarien esku ekainaren 30a arte. Informazio gehiago nahi dutenak Batura enpresarekin edo turismo bulegoarekin jar daitezke kontaktuan.

INKESTA BETETZEN DUTENEN ARTEAN

## Produktu-sorta baten zozketa egingo dute

Terminal mugikorrak eskuragarri daude ekainaren 30era arte. Turista eta bisitariek aplikazio hori proba dezaten animatzeko, Oñatiko turismo bulegoak zozketa bat egingo du parte-hartzaileen artean. Hain justu ere, esperientzia bukatzerakoan, bisitarien kolaborazioa eskatuko da zerbitzu horren gainean duten iritzia jakiteko. Horretarako, inkesta bat bete beharko dute. Oñatiko turismo bulegotik jakinarazi digutenez, inkesta betetzen dutenek turismo bulegoaren produktu-sorta baten zozketan parte hartuko dute.

**EKONOMIA** > KOOPERATIBISMOA

# Mondragon taldeak bazkideen kapitalaren tratamenduaren arauketa berria onartu du

Joan den astean talde kooperatiboaren kongresua egin zuten Arrasaten; 650 konpromisario zeuden deituta

**M.B.** > ARRASATE

Joan den eguaztenean, apirilak 14, Mondragon taldearen X. kongresua egin zuten Arrasaten. Hitzordu korporatibo horretara 650 konpromisario inguru zeuden deituta, taldean integratuta dauden kooperatiba guztiak ordezkatuta.

**BI PONENTZIA**

Kongresu horretan bi ponentzia eztabaidatu ziren. Alde batetik, kongresua elkartzeko gaur egungo bi modalitateak desagertzea erabaki zuten (kongresu kideen batzarra eta kongresuaren osoko bilkura), eta elkartzeko modalitate bakarra ezartzea, erabakitzeko eskumen guztiekin eta arauak aldatzeko erabakietan prozeduretarako baldintza bereziekin.

**URTEAN BATZAR BAKARRA**

Hala, hemendik aurrera, urtean bilera bakarra egitea erabaki zuten: kongresu kooperatiboa, hain justu ere. Gainera, deialdiak egiteko epe berriak ezarri ziren, laburragoak, arauak aldatzeko proposamenetarako eta kooperatibek zuzenketak aurkezteko.

Horrez gain, kongresuan bazkideen kapitalaren tratamenduaren arauketa berria zehaztu zuten. Han onartutako ponentziak kapitalaren araudi berria ezartzen du, kooperatiben beharretara hobeto egokitzen dena. Horren harira, hainbat neurri hartuko dituzte kooperatiben indar ekonomiko-finantzarioa bermatzera zuzenduak, eta lanaren eta kapitalaren ordainsarien artean desorekak ekiditera.

**URTEAN BATZAR BAKARRA**

Aukeraketa berriak bazkideen kapitala ordaintzeko oraingo gehienezko interes tasa mantentzen du; hain justu ere, %7,5, kolektiboan finkatutako erreferentzia delako. Horretaz gain, araudiak hainbat muga ezartzen dizkio interesen sortzapenari (muga kooperatibaren emaitzen %40 da) eta monetarizazioa (muga kooperatibaren emaitza baterattuaren %50 da).


HAURREI MASAJEA EMATEN IRAKASTEKO IKASTAROA
0-1 urteko haurrak dituzten gurasoendako

ANTOLATZAILEA
MUGI, Psikomotrizitate, Prebentzio eta Laguntza Zentroa
TOKIA
Araba etorbidea 3
2-3.atea
EGUNAK
Maiatzak 5, 12, 19 eta 26.
ORDUA
10:30etik 12:00etara.
INFORMAZIOA
MUGI ZENTROAN
943 77 08 05
ARRASATE

- LASAITZEKO
- HOBETO LO EGITEKO
- KOLIKO ETA HORTZALDIETAKO MINAK BARETZEKO
- UMEAREN KOMUNIKAZIO AFEKTIBOA SENDOTZEKO
- INMUNITATE-SISTEMA SENDOTZEKO



Gipuzkoako Batzar Nagusietako ordezkariak, Arantzazun. ARANTZAZU EZKIBEL

**POLITIKA** > BISITA

# Gipuzkoako batzarkideek Arantzazu bisitatu zuten

Han egiten den lana ezagutzeko eta gipuzkoarrei ezagutaraztea zen bisita horren helburua

**A.E.** > OÑATI

Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidente Rafaela Romero eta batzar orokorretako mahaikideak Arantzazun izan ziren egubakoitzean. Arantzazun egiten duten lana bertatik bertara ezagutu, eta bide batez lan hori gipuzkoarrei ezagutaraztea izan zen bisita horren helburu nagusia. Horretarako, Baketik eta Arantzazu Gaur fundazioko ordezkariekin elkartu ziren batzar orokorretako kideak.

Rafaela Romerok nabarmendu zuen Gipuzkoak aurrera egin ahal izateko, lehendabizi ezagutu egin behar dela, bereziki etorkizuneko guneak. Arantzazu gune horietako bat dela gaineratu zuen. Horren harira, aipatu zuen Arantzazun kultura, espiritua, erlijioa, ingurugiroa eta historia nahasten direla. Iñaki Beristain Arantzazu Gaur fundazioko ordezkari eta Jonan Fernandez Baketikeko zuzendariak bisita eskertu zuten.

auzorik auzo

**OLETA** > Aramaioko auzoa da Oleta. Beste auzoek ez bezala, kontzeju izaera du Oletak. Anboto eta Orixol mendien artean kokatuta dagoen bailara da eta Aramaio, Otxandio eta Abadiñorekin egiten du muga auzoak.



Agurtzane Ortiz de Landaluze auzoan oinez; atzean, Anboto mendia. A.E.

**Agurtzane Ortiz de Landaluze** > Oletako auzo-alkatea

# "Herria berpiztea eta kalean ume-giroa sortzea izango litzateke gure nahia"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARAMAIO

**Ingurune paregabean dago Oleta, Urkiola parke naturalaren atean. Auzo lasaia da; 109 biztanle daude eta 60 baserri inguru. Aramaiotik urrun geratzen da; horregatik, hainbat zerbitzuren falta sumatzen dute auzotarrek.**

**Garai baten biztanle kopurua jaitsi egin zen arren, orain indarberritu egin da auzoa.**

Bai, orain ez gaude hain txarto. Hainbat bikote etorri gara azkenaldian auzora, eta, ondorioz, umeak daude orain. Garai baten ez zegoen umerik auzoan; hala, ia belaunaldien arteko etena gertatu zen.

**Zein da Oletak duen arazo nagusia?**

Hain zuzen, hori da arazo nagusietako bat. Gazteak lanera edo ikastera joan ginen kanpora eta hainbat urtean ez da mugimendu askorik egon herrian. Herria berpiztea eta umeen giroa sortzea izango litzateke gure nahia. Lokal bat atontzen gabiltza, erabilera askotariko lokala izango dena. Diputazioari eskatu diogu dirulaguntza lokala atondu eta plaza oinezkoendako eraberritzeko.

**Batez ere, umeendako lokala izatea gura duzue.**

Bai; nagusiendako badaude elkartea eta taberna. Gura duguna da umeendako leku bat egokitzea, eta plaza izatea herritarrak biltzeko lekua. Garai baten izaten zen moduan.

**Aramaiokoak izanda, administrazio kontuak Aramaioko Udalean egiten dituzue. Nola moldatzen zarete?**

Zerbitzuei dagokienez arazo gogorra daukagu. Aramaioko Udalak hainbat zerbitzu eskaintzen ditu; baina guretako, hara joatea mendate bat pasatzea da. Hortaz, oso nekeza da. Umeen kasuan, udalekuetara edo ludotekara Otxandiora joaten gara. Baina han erroldatuta ez gaudenez, bikoitza ordaindu behar dugu. Hortaz, zerbitzu aldetik salduta gaudela esan daiteke.

**Ofizialki izena aldatzen zabiltzate: Olaeta izatetik Oleta izatera.**

Bai, orain gabiltza horretan. Guk beti esan izan dugu *Oleta*, eta horregatik aldatu gura dugu. Euskaltzaindiaren euskal izen arautua Oleta izango litzateke.

**Izenak berak dioen moduan, ola asko egon ziren garai baten auzoan.**

Auzoa hiru gunetan banatuta dago: Aurtola, plaza ingurua eta Goikola. Olen inguruan sortutako auzoa da, eta garai batean jendeak oletan egiten zuen lan.

XIX. mendeko gurutzea, abade etxea... katalogatuta dauden eraikinak dira. Sortzez Garbiaren elizara bisitak antolatzen ditutze. Jaiak, ostera, abuztuaren 15ean ospatzen ditugu.

**Hainbat pertsonaia famatu bizi dira auzoan. Ez da hala?**

Maider Unda borrokalaria oletarra da eta auzoan baserria dauka Marino Lejarreta txirrindulari ohiak. Durangon bizi da Lejarreta, baina neurri batan oletarra ere bada.

INGURUNEA

## "Ibiltzea gustuko duenarentzat leku paregabea da"

Oleta da Urkiola parke naturalaren sarreretako bat. Inguru paregabean kokatuta, hainbat aukera eskaintzen ditu auzoak. "Mendi ibilaldiak, perretxikoak... jende asko ibiltzen da inguru honetan", dio Ortiz de Landaluze auzo-alkateak. "Urkiolara oinez joan daiteke; baita Orixolera ere... baso izugarri politak daude. Ibiltzea gustuko duenarentzat leku paregabea da inguru hau", gaineratu du Ortiz de Landaluzek.

Gainera, auzoan bertan monumentu izendapena duten hainbat ola eta etxebizitza daude. Natura ibilaldiak eta turismoa eskaintzen ditu, hortaz, Oletak.

Abantailaz betetako kluba!
Goiena kluba
APIRILEKO ZOZKETA
Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: *kluba@goiena.com*
Kuota: 45 euro

SASKIBALOIRAKO SARRERAK
Bidali KLUBA SARRERAK [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.

LAGUN ARO SAN SEBASTIAN GIPUZKOA BASKET

ESAIT-EKO TERMIKO BERDEA ETA BISERA
Bidali KLUBA ESAIT [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.

esait

UMEENTZAKO PUZZLEAK
Bidali KLUBA PUZZLEA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.

Ikastolen Elkartea

EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA
Bidali KLUBA ZIRA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.

EKFB Euskal Selekzioa

SARI NAGUSIA
APIRILA-EKAINA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
GAU BAT TXOPEBENTA LANDETXEAN

• Tel. 94 625 49 23 / 629 45 50 79
• Basetxeta Auzoa. Gautegiz-Arteaga (Bizkaia)
• *www.nekatur.net/txopebenta*
• *www.toprural.com*
Maiatzean 20 urte beteko ditugu; Estatuko lehenengoak izan ginen.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *kluba@goiena.com*

Eusko Jaurlaritza, Osalan, Adegi, CCOO eta UGTk *Lotu* plana jarri dute martxan, eraikuntza lanetan prebentzioa sustatzeko helburuarekin. Teknikariak eskualdez eskualde dabiltza bisitak egiten, tokian tokiko egoera ikusi eta ebaluazioa egiteko. Lan horretan dabil, esaterako, David Beliz arkitektoa. Debagoieneko egoeraren berri eman digu Belizek.

**David Beliz** > Arkitektoa

# "Langileek kontzientzia falta izugarria dute lanean hartzen dituzten arriskuez"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

**Debagoieneko ospitaleko obrak ikuskatzen egon zen David Beliz joan den astean; horrez gain, beste hainbat obra txiki ere bisitatu zituen. Belez arkitektoa da eta gaur egun CCOO sindikatuan dihardu lanean, lan osasun sailean.**



David Beliz arkitektoa, Arrasateko ospitaleko obrak ikuskatzen. JULEN IRIONDO

**Urtarrilean jarri zenuten abian proiektua; zehazki, eraikuntzan dago zentratuta. Zergatik?**

Eraikuntzan istripu asko gertatzen dira; batez ere, erorketa asko izaten dira. Horregatik jarri dugu kanpaina martxan, goitik beherako erorketen prebentzioa bultzatu gura dugu.

**Eraikuntza sektorean erorketak dira istripu larrienak. Baduzue daturik?**

Bai, istripuen %30 baino gehiago erorketak izaten dira; oso larriak, gainera. Horregatik, uste dugu posible dela neurriak hartu eta datu horiek txikitzea. Hori da kanpaina honen helburua.

**Eskualdez eskualde egiten dituzue azterketak. Ze ingurutan ibili zara eta ze lan bisitatu dituzu?**

Arrasate aldean ibili naiz, ospitalean, baina batez ere obra txikiak ikusten ibili naiz. Gaur egun obra txiki asko egiten dira: birgaitzeak, fatxadak, igogailuak, teilatuak... Bestalde, Bergaran IAT (ITV) ondoan egiten dabiltzan etxeetan ere egon naiz.

**Zer aztertu duzu?**

Lehendabizi, programa zer den informatu dut; izan ere, sentsibilizazio programa bat da, jendeak jakin dezan segurtasun neurriak hartu behar dituela lan egiterakoan. Gero, obraren bisita egin dugu, ea segurtasun neurriak dauden ikusi eta betetzen dituzten ikusi... gaizki egiten dutena esaten diegu, eta irtenbideak eman.

**Obra txikien eta handien artean ezberdintasunak daude?**

Ezberdindu egin beharko genituzke obra nagusiak eta obra txikiak. Obra handietan, baliabideak dituzten enpresak ibiltzen dira; hala ere, haiek beharko lukete segurtasun mundu honetan gehiago jartzea. Bestalde, enpresa txikietan ikusten dira gabezia handienak.

**Obra txikietan egin beharko litzateke lan handiagoa?**

Ez, arlo guztietan. Enpresa txikietan gabezia handiagoa dago, baina handiek ere asko dute egiteko oraindik.

**Debagoienak badu berezitasunik beste eskualdeekin alderatuta?**

Bereizgarririk ez. Azkenean, Gipuzkoa mailan berdintsua izaten da segurtasuna. Obra txikiak dira nagusiak. Esan behar da birgaitze obrak izaten direnean promotore sartzen direla bizilagun elkarteak, normalean eraikuntza arloan promotoreak izaten ez direnak. Haiek ez dute jakiten ze arrisku, ze erantzukizun duten segurtasunaren aldetik.

**Zeintzuk izaten dira obra arriskutsuenak?**

Esan bezala, promotoreak txikiak diren obrak izaten dira arriskutsuenak; bizilagun elkartea, edo partikularrak etxea berritzen hasten direnean, adibidez. Askotan enpresa merkeenari ematen zaio lana, beste faktore batzuk, tartean segurtasuna, kontuan hartu barik.

**Aipatu dugu azterketak egiteaz gain informazioa ematea izan dela zure lana. Nola erantzun dute langileek?**

Noski; azken finean, sentsibilizazio kanpaina bat da. Jendeari erakutsi behar diogu segurtasunarekin lan egin behar duela. Egiten dugun lehenengo gauza informazioa ematea da. Gero hasten gara bisitarekin.

**Hartzen dituzten arriskuez kontziente dira?**

Ez, oraindik kontzientzia falta izugarria ikusten da langileen inguruan eta baita enpresetan ere. Esan behar dut nire arloan, arkitektoengan ere kontzientzia falta dagoela. Segurtasun neurriak hasiera batetik zehaztu behar dira; eta, normalean, proiektu baten segurtasun neurriak azkenekoak izaten dira. Aurrekontua egiterakoan ere, azkeneko zatia izaten da segurtasuna. Hortaz, hortik hasita kontzientzia falta dagoela esango nuke.

**Hortaz, lan egiteko kultura aldatu beharko litzateke?**

Bai, hori da, kultura da aldatu behar dena.

**Programa honek arlo ezberdinak izango ditu. Eskailerekin hasi zarete eta gero zuloetara pasako zarete.**

Programa hau urtebetekoa da. Hiru arlotan bereiztuta dago: eskailerak, zuloak eta aldamioak. Hasierako hilabete hauetan eskaileren arloa bultzatzen ibili gara; maiatzean hasiko gara zuloekin. Hala ere, esan behar da bisita bat egiten dugunean orokorrean dena begiratzen dugula.

**Bisitetan nolako erantzuna jaso duzue langileen eta enpresen aldetik?**

Harrera ona egin digute bisitetan, jendearekin harreman ona izan dugu, arazo barik.

ERORKETAK

**"Lanean gertatzen diren istripuen %30 erorketak izaten dira; oso larriak, gainera"**

OBRA TXIKIAK

**"Obra txikietan promotoreak bizilagunak izaten dira askotan"**

SENTSIBILIZAZIOA

**"Jendeari erakutsi behar diogu segurtasunarekin lan egiteak duen garrantzia"**



**Oihane Isasi,** Goiena Telebistako errealizatzailea, Azkaraten zubisaltoa egin ondoren.

# Egin dugu salto

**Orain digitalera salto egin dugu:**

**> BERGARAN ETA OÑATIN**

Goiena Telebista dagoeneko digitalean:
BERGARAN, OÑATIN, ARETXABALETAN, ESKORIATZAN, ARRASATEN ETA LEINTZ GATZAGAN.

Laster digitalean:
ANTZUOLAN, ARAMAION ETA ELGETAN.

Goitb
Goiena Telebista
*Ikustekoa!*

## kale inkesta

# Debagoieneko ospitaleak umeei zuzendutako Obesitatearen klinika sortu du. Nola ikusten duzu?



**Iñaki Azkarate**
Langilea
Bergara

Oso ondo. Esaten dutenez oraingo umeak lodi samar daude eta horri aurre egin behar diogu, osasunarendako derrigorrezkoa da hori zaintzea. Txikitatik potoloa egotea, normalean okerrerako izatean da.



**Monika Gonzalez**
Langilea
Bergara

Ondo. Gurasoen parte hartzea ezinbestekoa iruditzen zait; nire umea nola doan baldin badakit, zelan jokatu behar dudan hobeto jakingo dut. Mota horretako zerbitzu gehiago jartzearen aldekoa naiz ni.



**Mikel Aristegi**
Langabetua
Bergara

Egungo umeak lodiagoak daude elikaduragatik. Pediatrak berak horren kontrola eraman beharko luke. Baina, era berean, gurasoak ere kontzientziatuta egon behar dira, hainbat aholku jarraituz.



**Beatriz Davila**
Langilea
Bergara

Oso ondo. Ume lodi asko dago egun; gero eta okerrago jaten dute. Gurasoak eredu izan behar dira umeendako, aholku osasungarriak eskainiz, hala nola, ondo jan eta litxarreri gutxi hartu behar dituztela esanez.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

DEBAGOIENA
**> Sahararren alde egindako asteagatik zorionak!**

Arrasatear batek deitu digu Nubi eta Iesbaa taldeek Sahararen alde gertatutako astea txalotzeko: "Bailaran lan handia ari dira egiten talde horiek, Bergarako Bubisher taldearekin batera. Lehenengo aldia da horrelako aste bat antolatu dutela eta oso interesgarria izan dela iruditu zait. Asteari amaiera borobila eman diote, gainera, Imanol Serranok eskainitako kontzertuarekin".

LEINTZ GATZAGA
**> Gatzagako mendatea gero eta okerrago**

Leintz Gatzagatik Eskoriatzara egunero joaten den debagoiendar batek e-maila idatzi digu Gatzaga mendateko errepideak duen arriskua salatzeko: "Zuloz beteta dago. Lehen, AP-1 autobideko obrengatik eta orain, AHTren lanengatik, errepidea gero eta okerrago dago. Egunen batean, istripu larria egongo da han". Hori dela-eta, Diputazioari ahalik eta azkarren konpon dezala eskatu dio.

DEBAGOIENA
**> Eskaera mendia garbi manten dezagun**

Eguraldi onarekin batera, mendira joateko gogoa pizten zaie debagoiendar askori. Lerro hauen bidez, oñatiar batek han ere garbiak izan behar garela gogorarazi nahi izan du: "Mendia errespetuz tratatu behar dugu, eta topatu dugun moduan utzi. Kokoteraino nago irteten naizen bakoitzean besteek botatzen duten zaborra jasotzeaz".

## usteak uste

**Txomin Madina**

# Ahaztu arren, ez gara ezer

Gizakiok Ilargiraino heldu ahalko gara. Laborategian bizia sortu ahalko dugu, edo klik batekin munduko beste puntan dagoen lagunarekin berba egin. Bai, gizakiok hori guztia eta beste hainbeste egiteko gai gara.

Baina, askotan kontrakoa uste izan arren, ama lurrarentzat ez gara inurriak baino garrantzitsuagoak. Argi geratu da hori Islandiako Eyjafjalla sumendiaren (atzerritarrak berdin sentituko al dira Gaztelugatxe irakurtzean?) erupzioak eragindako kaosarekin. Milaka hegaldi bertan behera; ehunka milaka bidaiari etxera, lanera edo oporretara joan ezinda; denok zur eta lur naturaren indarra eta eraginak ikusita.

Apokalipsia? Ez dut uste; bai ordea ama lurraren abisua. Askotan suntsitzen saiatzen ari garela dirudien arren, bizirik dagoen abisua. Eta hala jarrai dezala.

## zorroztailea



**Markos Balentziaga**

# 'Cachondeo'

"Astelehenean Javier Gomez Bermudez, Manuela Fernandez Prado eta Ramon Saez Varcacel epaileek kaleratutako epaiak *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxiera zein bost auzipetuen aurkako instrukzio osoa oinarririk gabekoa izan dela ondorioztatu zuten".

**'Berria'**
> 2010-04-10


Herri akusazioen indarra mugatu nahi du Espainiako Gobernuak

Manos Limpias

'Egunkaria' eta lehendakaria epaigelara eraman dutenak

Ahaztuta dogu, 1985ian, Pedro Pacheco Xerez de la Fronterako alkate zanak auzi-mauzi inmobiliario batzuk zirala eta, Españako Justiziaz bota zeban harako "La Justicia es un cachondeo" biribil-biribil haura.

*Egunkaria* orain zazpi urte itxi izanaz Entzutegi Nazionalak joan dan astian hartutako erabagixaren harira aittatzen dot Pacheco, ze Españako Justiziaren cachondeorako gogua apenas maskaldu dan 25 urte honetan.

*Egunkaria*-ri egindakuak egin leizke lotsia interes politikuen azpixan koittautu barik? Jakiña danez, *Egunkaria* ixtiari legez kanpoko iritzi dotsa Entzutegi Nazionalak, eta gordin-gordin esan dau orduko tortura-salaketak sinisgarrixak dirala eta periodukua itxi izana konstituziñuaren ertz-ertzian dagoala, nun eta ez kanpuan.

Zenbait periodistak une hartan esandako batzuez akordatzeko grazia izan dabe oraiñ. Hemen hiruzpalau muestra:

> **"*Egunkaria*-ri egindako okerrak ez dauka itzulbiderik"**
>
> **"Egindakuak egin leizke lotsia interes politikuen azpixan koittautu barik?"**

Aznar mutiko espabilau halakuak esandakua, esaterako: "Burruka antiterroristiak ez dau bereizketarik egin bihar ETAk erabilli leizkian komenientziazko banderen artian". M. Oreja danajakin frankistiak: "(*Egunkaria*-ko) Administraziño-kontseilluko batzuk behintzat badauke ETArekin zerikusixa". Iturgaitzek be zabaldu zeban ahua eta, betiko moduan, argi egin zotsan munduari: "*Egunkaria* –bota zeban *urbi et orbi*– periodiku itxurapeko ETAren estalki bat baño ez da". J. M. Michavilla sasoiko Justizia-ministruak: "*Egunkaria* ekintza terroristatarako tresna da". Michavilla Opusekuak egun hartan Espiritu Santua oporretara joanda edo izango zeban. Beste batzuenak be aittatu leizke; zetako, baña?

*Egunkaria*-ri egindako okerrak ez dauka itzulbiderik. Frankismuak gordin samar segitzen dau Españako justizia-sisteman, hortxe irauli ahal dau-eta parlamentuan galdutakua. *Egunkaria*-ri egindakua demokraziaren ekarrixa ez, baizik *cachondeoa*-ren grazia besterik ez da izan.

**ASTELEHENEKO Goienkaria**

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonooa • 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Asteburuko erredakzioaren arduraduna** Xabier Urtzelai **Erredakzioa** Mirian Biteri,Edu Mendibil etaTxomin Madina **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Oxel Arrieta eta Imanol Soriano **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**> ARRASATE**
AEDko antzerki tailerrean oraindik zabalik dituzte ateak **> 15**



**> BERGARA**
Iaz 2.077 isun jarri zituzten Bergaran, gehienak Ibargarai kalean zituzten **> 16**

**> ANGEL ELORTZA**
Leintz Pastoral Barrutia hiru abadek osatzen dute, eta Angel Elortza da horietako bat; gurera etorri da lanera **> 19**





Azken 15 urteotan ez da Larrañako futbol zelaia apenas erabili eta nahiko egoera txarrean dago gaur egun. Bertan herritarrendako kirol-aisialdi gune egin nahi du Udalak. JULIO CALLEJA

**OÑATI** > AZPIEGITURAK

# Larrañako futbol zelaia berritzeko Jaurlaritzaren oniritziaren zain

**ASPALDIKO ASMOA**
Diputazioaren laguntzaz, Udalak duela lau urteko proiektuari heldu nahi dio

**HERRITARRENDAKO**
Jaurlaritzaren baimena jaso ondoren, erabilera publikoa izango du inguruak

**EDU MENDIBIL** > OÑATI

Oñatiko Udalak Larrañako futbol zelaia berritzeko proiektua dauka esku artean eta horri ekiteko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren (instalazioaren jabea) oniritzia jasotzea baino ez da falta.

Dagoeneko Gipuzkoako Diputazioak 50.000 euroko laguntza onartu du aipatutako proiekturako eta, gauzak horrela, Udalak 2006tik landutako proiektuari heldu nahi dio. Hain zuzen ere, duela lau urte egindako proiektua egueratu du Udalak eta Lourdes Idoiaga alkatearen arabera, Jaurlaritzaren baimena jaso bezain pronto hasiko dira berritze lanekin; "Lehen fase batean oinarrizko lanak egingo dira eta hurrengo urteetan ekipamendu osagarriak jartzea da asmoa. Kirol-aisialdi gune publikoa izatea nahi dugu, herritarrei zuzendutako gunea, eta hori zehazteko hitzarmena sinatuko litzateke. Beste zenbait kirol instalazioekin gertatzen den bezala, eremu itxia izango da, ordutegi jakin batekin".

**LEHEN FASEAN, OINARRIZKOA**

Udalaren proiektuaren arabera, lehen fase batean, saskibaloian, eskubaloian edota areto-futbolean aritzeko jolas-espazioak hornitu eta margotuko lirateke Larrañako futbol zelaian eta, horrez gain, besteak beste, bankuak eta zakarrontzia jartzea aurreikusten da. Aurrekontua 108.000 euro ingurukoa da eta, esan bezala, Diputazioak 50.000 euroko laguntza emango du.

Hurrengo fase batean, mahai tenisean jolasteko gunea eta skate-parkea jartzea aurreikusi dute eta argiteriari dagokionez, aurreago, beharrezkoa ikusten denean instalatuko dute.

Larrañako futbol zelaia 1950eko hamarkadaren azkenetan eraiki zuten agustindarrek. Ordutik makina bat kirol ekitaldi jaso ditu, baita San Lorentzoko jaietako berbenak eta bestelakoak. Azken 15 urteotan ez da Larrañako futbol zelaia apenas erabili eta nahiko egoera txarrean dago gaur egun. Larraña institutuak ere begi onez ikusten du berritze proiektua.

Egin nahi duten gune publikoarekin, San Lorentzo, Ugarkalde, Olabarrieta, Larraña eta Olakuako auzotarrek bereziki aisialdi gune berria izango dute.

DATUA

**15**

**URTE ZELAIA ERABILTZEKE**

Agustindarrek egin zuten futbol zelaia, 1958. urtearen inguruan, baina aspaldiko urteotan ez da futbol zelai hori erabili.

ESANAK

**"Herritarrei zuzendutako gunea, kirol-aisialdi gune publikoa egitea da Udalaren asmoa"**

**Lourdes Idoiaga** > Oñatiko alkatea

**ARRASATE** > LIBURU AURKEZPENA

# Ekitaldi umoretsua, 'Todo vale' eleberria aurkezteko

Juan Ignacio Montiano arrasatearrak Kulturaten egindako aurkezpenean jende nahiko izan zen

**M.B.** > ARRASATE
Jose Ignacio Montiano pediatra eta idazle arrasatearrak idatzitako azken eleberria aurkeztu zuen joan den egubakoitzean, Arrasateko Kulturaten: *Todo vale* nobela beltza, hain justu ere. Jende nahiko izan zen umoretsua izan zen aurkezpenean.

Jon Iñaki Lasa poeta eta idazlea mahaikide zuela, Montianok azaldu zuen eleberria komunikabideen arloan dagoela girotuta, horien artean kuotarik handienak lortzearren ematen diren borroketan, jendeak bere momentua izatearren "duintasuna galtzeraino" heltzen dena.

Horren harira, aipatu zuen irratsaio batean dagoela oinarrituta; txantxa bezala hasi eta ondorio larriak dakartzan istorioa azaltzen dela, hildako eta guzti. Dena zelan amaitzen den jakin gura duenak liburua baino ez du irakurri behar.




Juan Antonio Montiano, aurkeztutako liburuarekin. JULIO CALLEJA



Talde polita elkartu zen atzo eguerdian Kanpanzarren, San Jordi eguna ospatzeko. JULIO CALLEJA

**ARRASATE** > SAN JORDI EGUNA

# Aurtengo topaketan 90 urteko gizona izan da

Urtero moduan, Euskal Herri osotik iritsitako lagunak bildu ziren Kanpanzarren; bazkaldu eta jarraian, izardunak zintzilikatu zituzten

**M.B.** > ARRASATE
San Jordi eguna ospatzeko egun paregabea izan zuten atzo Euskal Herrian bizi diren katalanek. Urtero moduan, bazkaltzeko geratu ziren horiek. Horretarako, 12:30ean zuten hitzordua egina Kanpanzarren.

Apurka Euskal Herri osotik iritsitako 38 lagun biltzen joan ziren topaketan; aurten, lehen aldiz, gainera, 90 urte betetzear dituen eta Debagoienean 60 urte inguru bizitzen daramatzan Rafel izan zen. Bergaran bizi da bera.

Bazkaltzeko ordua iristen zen bitartean, eguzkipean, azken urteko gorabeheren berri izan zuten ezagutzen zirenek; topaketan lehen aldiz parte hartu zutenek elkar ezagutzeko aukera ere izan zuten. Jarraian, Sara merenderuen izan zuten bazkaria. Arratsaldean, Kataluniaren independentzia aldarrikatzen duen banderak zintzilikatu zituzten ingurune horretan.

**DATORREN URTEAN ALDAKETAK**
Topaketaren gaineko oso balorazio positiboa egin digu Josu Tornay antolatzaileak. Nabarmendu du sendotzen doan ekimena dela hori, Euskal Herri osotik iritsitako gero eta jende gehiagok parte hartzen duelako. Aipatu du, gainera, dagoeneko hasi direla datorren urteko topaketan pentsatzen, eta, horren harira, aldaketak egongo direla iragarri du.

**ELGETA** > ERRETIRATUAK

# Voces y Cuerdas taldeak atzoko arratsaldea girotu zuen

Boleroak eta rantxerak jo zituen bereziki laukote eibartarrak; kontzertuan 80 bat lagun izan ziren

**M.B.** > ELGETA
Giro ederra izan zen atzo arratsaldean Elgetako Espaloia antzokian. Herriko erretiratuek urteroko dantzaldia egin zuten han, Voces y Cuerdas talde eibartarraren eskutik. Guztira, 80 lagun inguru bildu ziren ekimen horretan, eta guztiek elgetar baten hutsunea sumatu zuten: orain dela egun gutxi batzuk hil den elkarteko presidente Zezilio Totorikaguenarena, hain zuzen.

Musika emanaldia 18:00etan hasi zen. Aurreko urteotako dantzaldietan ez bezala, aurtengoa eserlekutik jarrita jarraitu zuten gehienek. Asun Anguerak, Vicente Ramirezek, Alberto Alberdik eta Aitor Errastik osatzen duten laukoteak bolero ezagunak jo zituzten bereziki, eta baita rantxerak eta abesti herrikoiren bat edo beste ere. Emanaldiak bi ordu inguru iraun bazuen ere, erretiratuak gustura ibili ziren, eta bakar batzuk dantza egitera ere animatu ziren.



Voces y cuerdas taldeko kideak, Espaloiko agertoki gainean. JULIO CALLEJA



Ederto pasa zuten erretiratuek. JULIO CALLEJA

**OTSAILETIK APIRILERA**
Aurten, hirugarren aldiz egin dute ekimen hori. Orain arte, otsaila aldean egin izan da esandako dantzaldia. Aurten, baina, neguko eguraldi gogorra dela-eta, atzeratzea erabaki dutela jakinarazi digu Elgetako Euskara eta Kultura arloetako zinegotzi Ana Gillegik.

**ARRASATE** > AURKEZPENA

# Josu Arteaga: "Droga modukoa da irakurketa niretako"

'Historia universal de los hombres gatos' eleberria aurkeztu zuen Josu Arteagak

Arrasateko Gazte Asanbladak fantzine berria ere aurkeztu zuen: 'Putusein'

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Josu Arteaga arrasatearrak *Historia universal de los hombres gato* eleberria aurkeztu zuen zapatuan Arrasateko gaztetxean. 40 lagun inguru elkartu ziren aurkezpenean, tartean Alberdania argitaletxeko Miriam Miranda eta Patxi Irurzun, hitzaurrearen egilea. Patxi Irurzunek gogoratu zuenez, Charles Bukowski idazlearen omenez deitutako Hijos de Satanás ipuin lehiaketan lehen saria irabazi ondoren, Josu Arteagaren ibilbide literarioa gertutik jarraitu du. Hain zuzen ere, bera izan zen orain argitaratutako eleberria irakurri zuen lehenengoetakoa; eta Irurzunen ustez, berau irakurtzen nabaria da idazleak primeran pasa duela. Hain zuzen ere, horixe aitortu zuen Josu Arteagak berak zapatuko aurkezpenean. Irakurle amorratua dela eta irakurketa berarentzat droga moduko bat dela gehitu zuen Arteagak. Miriam Mirandaren hitzetan, "Jorge Gimenez Alberdaniako editoreak hasieratik azaldu zuen konfiantza Arteagaren eleberriarengan eta benetan liburu gomendagarria da, primeran idatzita dagoelako eta ukitu berezia duelako".

Aurkezpenaren ondoren, hainbat ale sinatu zituen Arteagak zapatuan. Luntxa ere izan zen bertaratuendako.

**FANTZINE BERRIA KALEAN**

Ekitaldi berean, Arteagak Bilboko *Ekintza zuzena* aldizkariaren azken alea aurkeztu zuen eta, era berean, *Putusein* fantzinea aurkeztu zuten gaztetxeko kideek. Gazteen presentzia aldarrikatu nahi du *Putusein*-ek (puskar usaina), tonu zirikatzailean. Doan banatuko dute eta partehartzailea izatea nahi dute. Kolaboratu nahi duten guztiek *putusein@gmail.com* helbidera idatz dezakete.





Goian, Arteaga liburua sinatzen. Behean, gaztetxekoak *Putusein* fantzinearekin. E.M.

**OÑATI**

# Ganbararen txistor janean, jende ugari

**E.M.** > BERGARA

Oñatiko Ganbara Kantu Eskolak txistor eta gazta pintxoak banatu zituen zapatuan, Oñatiko plazan. Txosna 18:30ean zabaldu zuten. Ganbararen ekitaldiendako dirua batzea zen helburua eta antolatzaileek oso pozik azaldu ziren jasotako erantzunarekin. Abeslari gazteek eta haien gurasoek jardun zuten txosnan lanean, 25 bat lagun denera. Ederto egin zuten lan: 500 txistor pintxo eta 100 gaztarenak eta edari piloa saldu zituzten zapatuan.

DATUA

**600**

**PINTXO BANATU ZITUZTEN**

Ganbarakoek 600 pintxo saldu zituzten zapatuan. 500 euro inguru batu zituzten Ganbararen ekitaldietarako. Gaur egun, 120 neska-mutiko inguru ari dira Kantu Eskolan.

**Babes ofizialeko etxeetarako eskaintza bereziak**



IKER

**SUKALDEAK:** ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

**POLITIKA** > ALDARRIKAPENA

## Hiri-gutunaren urteurrena "duin" ospatzeko eskaera

PSE-EEren ustez "erabat urriak" dira 750. urteurrenaren harira antolatutakoak

**U.M.**> ARRASATE
Kexua azaldu du udal talde sozialistak Arrasateren hiri-gutunaren urteurrenerako Udalak iragarritako egitarauarengatik. Orokorrean, erabat motz geratzen dela uste dute, eta ospakizun "duina" egiteko "eskubidea" eskatu dute, "duen garrantzi historikoarekin bat datorrena".

**EDERTASUNA ETA KONTSUMOA**
Aritz Arrieta bozeramaileak salatu du "gutxiegi" iruditzen zaizkiola Udalak antolatutako ekitaldiak, eta aurrenengoa, bereziki, "zentzugabekeria hutsa iruditzen zaiela. Hain zuzen, hitzaldi zikloa antolatu du Udalak, eta urteurrena ospatu edo ez ospatu, gai horren gainekoa izango da lehenengoa, eguaztenean: *Karta Pueblak 750 urte, ospatu edo ez ospatu?*

**EZKUTUAN**
Aritz Arrieta zinegotziak gaineratu du Arrasateko Udala dabilela ospakizun hori "ezkutuan" egin guran, "herriko historiarengatik konplexua izango balute moduan".

"Hiri-gutuna Lezetxikirekin konparatzea" da, Arrietaren ustez, "gauzak nahastea eta garrantzia kendu nahi izatea forua emateak Arrasateren gain izan zuen pisuari"; haren ustez, "penintsularekin zerikusia duten errealitate historikoak tapatu" gura dituztela "argi" dago.

**MERKATARITZA** > IBAI ARTE

## Opari berriak Ibai Arte elkartearen eskutik

Tartean, Arrasateko jatetxeetan bi lagunendako afariak zozkatuko dituzte

**U.M.**> ARRASATE
*Udaberri, sari berri.* Badirudi horixe dela Ibai Arte elkartearen leloa, apiriletik uztailera arteko opari berriak iragarri dituzte-eta elkarteko bazkide direnendako: edertasun tratamenduak, kontsumizio zozketak eta afariak.

**EDERTASUNA ETA KONTSUMOA**
Hala, maiatzaren 22ra arte 84 edertasun tratamendu zozketatuko dituzte: masajeak, manikurak eta antzekoak.

Maiatzean hasi eta ekainean, berriz, ardo eta garagardo azokarako kontsumizioen zozketa egingo dute. Eta abuztuko oporraldia baino lehen, Arrasateko jatetxeetan afariak zozkatuko dituzte.

**ZINEMA SARRERAK DIRELA-ETA**
Bestalde, martxoan zozketatutako zinema sarreren harira, gaizki ulertua gertatu dela eman du aditzera Ibai Artek. Promozio horren data bukatuta sarrera horiek erabiltzeko aukera zegoen arren, joan den asteburuan joan gura izan zutenek ezin izan zuten sartu, "gaizki ulertu baten ondorioz".

Hori horrela, elkarteak jakinarazi gura du halako sarreraren bat dutenek aukera izango dutela Amaia antzokiko zinema emanaldietara joateko harik eta apirila bukatu arte. Bide batez, barkamena eskatu gura die "egunotan sarituak izan arren zinemara sarrera horiekin sartzerik izan ez dutenei".

> IKASTAROA

### Ekialdeko filosofian oinarritutako afari-solasaldirako izenematea zabalik dago

Sukaldaritza ekologikoarekin lotutako ikastaroa iragarri dute datorren egubakoitzerako, apirilaren 23rako, Arrasaten. Baina ikastaro berezia izango da, teoria eta praktika uztartuko dituelako; hau da, hitzaldia izango da lehenengo, Valentin Zurbanorena, ekialdeko filosofiaren gainekoa. Eta hitzaldiaren ostean afaria egingo dute, hori ere ekialdeko jakiekin egin edo inspiratutakoa. Esaterako, menuan sartu dituzte wakame algarekin egindako misozko zopa, berakatz fresko eta ilen kultibatuen lorekin egindako tofu nahaskia, udaberriko tea eta etxean egindako jogurta marrubi eta algarrobarekin. Izena emateko: 943 77 16 70 edo 695 78 00 58.



Hiru gazte, Udal Gazte Bulegoak kalera ateratako eskuorri eta bestelakoei begira. U.M.

**UDALEKUAK** > ARRASATEKO GAZTE BULEGOA ETA TXATXILIPURDI ELKARTEA

# Udalekuetarako izenematea eguaztenean zabalduko dute

Arrasateko Udal Gazte Bulegora gaur iritsiko dira izena emateko inprimakiak; apirilaren 29ra arte eman daiteke izena

**UBANE MADERA** > ARRASATE
Iritsi dira Gipuzkoako Diputazioaren udalekuetan izena emateko inprimakiak Arrasateko Udal Gazte Bulegora. Bihar, martitzena, zabalduko dute inprimakiak hartu, bete eta aurkezteko epea, apirilaren 29ra arte (hurrengo asteko eguena).

Eskariak aurkezten dituztenen artean zozketa egingo dute gero lekuak adjudikatzeko. Diputazioak 460 plaza ditu gazte guztien artean banatzeko; horietatik %5, gainera, premia berezia dutenendako gordetzen dituzte. Izena emateko orduan, bestalde, hiru lagunek elkarrekin izena emateko aukera dute, gero udalekuetara ere elkarrekin joateko.

Dorleta Kortazarren, Arrasateko Udal Gazte Bulegoko arduradunaren esanetan, arrasatear gazte asko egoten da Diputazioak antolatzen dituen udaleku horien zain: "Probatu dutenetako askok errepikatu egiten dute".

**PREZIO ONA**
14-17 urteko gazteendako udalekuak dira Diputazioaren horiek. Euskal Herrian bertan egiten dituzte batzuk; beste batzuk, berriz, Estatuan (Salamanca, Girona, Galizia, Menorca, Tarragona…). 7 edo 10 eguneko txandak dira, eta kostua da 152 euro eta 213 euro, hurrenez hurren.

**LANKIDETZA UDALEKUAK**
Diputazioaren udalekuez gainera, baina, Udal Gazte Bulegoak bestelako eskaintza ere badu, data hauetan ohi den moduan, opor kontuetan buru-belarri murgilduta dabiltza-eta dagoeneko.

Esaterako, garapen bidean dauden herrialdeetan (Kenya, Uganda, India, Bolivia…) lankidetza proiektuetan parte hartzeko programaren gaineko informazioa ere badute Garibai etxeko bulegoan. Eskaintza hori 20-31 urte bitarteko gazteendako da. Izena eman behar da maiatzaren 6a baino lehen. Iraupenari dagokionez, berriz, hilabete batetik hiru hilabetera arteko udalekuak dira.

**ATE IREKIAK**
Bada, oporrekin lotutako halako eta bestelako informazioa eskura daiteke Udal Gazte Bulegoan. Eta horixe egin zuten justu eguen eta egubakoitzean makinatxo bat gaztek eta ez horren gaztek. Zapatuan, apirilaren 17an gazte informazioaren Europako eguna zelaeta, gazte bulegoaren eskaintza kalera atera eta bulegoaren ateak parez pare zabaldu zituzten, bisitariei bidea errazteko; "jendea batez ere etorri da informazio turistikoa hartzera; atzerritar batzuk ere pasa dira", kontatu du Dorleta Kortazarrek, bulegoko arduradunak.

TXATXILIPURDIREN UDALEKUAK

### Orioko udalekuak bete dira dagoeneko

Arrasaten, baina, gazteei zuzendutako udaleku eskaintza gehiago ere bada: Txatxilipurdi elkartearena. Nerabeei zuzendutako udalekuen artean (udaleku itxiak), adibidez, dagoeneko beteta dituzte Orioko udalekuetarako bi txandak. 40 gaztek parte hartuko du txanda bakoitzean. Lekua dago, berriz, Askizu eta Kosta ala Kosta izeneko udalekuetan, abenturan oinarritutako udalekuetan, hain zuzen. 10-12 eta 14-16 urte bitarteko gazteei zuzendutako eskaintza da hori, Bergarako Jardun eta Aretxabaletako Loramendi euskara elkarteekin elkarlanean antolatutakoa. Izan ere, Txatxilipurdi elkartearen helburua da "euskarazko aisialdi eskaintza luzatzea", eta eskarmetu handia dute zeregin horretan, 22 urte daramatzate-eta udalekuak antolatzen. Bestalde, udalekuen harira, gogoan izan datorren maiatzaren 7an bukatzen dela Txatxiliren udalekuetan begirale moduan jarduteko izena emateko epea (Pablo Uranga kalea 6, behea). Baldintzak dira 18 urte edo gehiago izatea, euskara jakitea eta Txatxilipurdik antolatzen dituen begirale formazio saioetara joatea.

**AED** > ANTZERKI TAILERRA

# Taldea ezagutzeko eta lotsak alde batera uzteko balio izan du lehen saioak

Egubakoitzean egin zuten AEDren antzerki tailerreko lehen entsegua; hala ere, antolatzaileek izenematea zabalik dagoela jakinarazi dute



Oraindik bada lekua antzerki tailerrean parte hartzeko; Iurgi Etxebarria irakasleak ateak zabalik ditu. J.B.

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE
Jarri da martxan AEDren antzerki tailerra; joan den egubakoitzean egin zuten lehen entsegua. Iurgi Etxebarria Kukubiltxo antzerki taldeko kidearen gidaritzapean, tailerrerako izena eman duten sei lagunek taldekideak ezagutzeko eta lotsak alde batera uzteko baliatu zuten lehen saioa. Esandako moduan, oraingoz sei dira taldean. Sei kiderekin aurrera egin daiteke, baina antolatzaileendako zein irakaslearendako egokiena litzateke 11 lagun inguruko taldea. Beraz, antolatzaileek nabarmendu dute izenematea oraindik zabalik dagoela. Izena emateko: AEDko Pablo Urangako egoitzara jo edo 943 79 12 28 telefonora deitu.

**TALDEAK NOLA ERANTZUNGO ZAIN**
Zortzi saio egingo dituzte eta taldekideek ez badute ordutegia aldatzen –horretarako aukera izango dute–, egubakoitzero egingo dira entseguak, 17:30etik 19:30era. Hala ere, AEDren asmoa da tailerraren ondoren taldeak jarraikortasun bat izatea. Hori, baina ez dago antolatzaileen eskuetan, eta Maitane Muñoz AEDko teknikariak azaldu duenez, "taldearen erantzunaren araberakoa" izango da taldearen etorkizuna.


J.B.

## Eskalada ikastaroa, arrakastatsua

19. urteurrenaren barruan antolatutako egitarauaren barruan, AGAKOk eskalada ikastaroa antolatu zuen eguenean. Antolatzaileek oinarrizko informazioa azaldu eta unean bertan ikasitakoa praktikan jartzeko aukera eman zieten hurbildu ziren gazteei. Irudian, Mikel Velasco eskalatzailea gaztetxearen atariko rokodromo estreinatu berrian.

> ZINEMA

## Apirileko film emanaldiei amaiera emateko, 'Up in the air' eta 'Arthur y la venganza de Maltazard'

Zapatu honetan botako dituzte Amaia antzokian apirileko azken filmak. Haurrendako zinemari dagokionez, *Arhur y la venganza de Maltazard* pelikula izango da ikusgai 17:00etatik aurrera.

Bestalde, 19:30ean, Jason Reitman zuzendariaren *Up in the Air* komedia gomendagarriaz gozatzeko aukera izango da.

**LANA** > ESKAINTZA PUBLIKOA

# Izenematea zabalik dago Udalak publikoki deitu dituen hamar lanpostuetarako

Modu irekian 16 funtzionario lanpostu eskaintzea onartu zen urtarrilean; izena emateko azken eguna da maiatzaren 16a

**J.B.** > ARRASATE
Egubakoitzean argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean Arrasateko Udalak deitutako funtzionario postuen hautaketa prozesuen iragarkia. Eta lanpostu horien behin betiko oinarriak martxoaren 25ean eman ziren aditzera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Hala, funtzionario finkoen artean 19 lanpostu eskaintzea onartu zuen udal gobernuak urtarrilean; horietatik 16 publikoki deitu dituzte eta beste hiru barne promozioaren bitarteaz –oraingoz bideratu diren hautaketa prozesuak ondoko taulan dituzue ikusgai–. Denetariko lanpostuak eskaini dituzte: irakasle, udaltzain edo peoi, besteak beste.

Deialdi libreen oinarri arauak eta lanpostu en gaineko informazio guztia udal webgunean kontsulta daiteke: *www.arrasate-mondragon.net*. Hala ere, ez da hori lanpostuen gaineko informazioa jasotzeko aukera bakarra: BAZen ere jaso daiteke informazioa.

**INTERNETEZ ERE, LEHENENGOZ**
Interesatuak maiatzaren 16a baino lehen egin beharko du lan eskaera. Eta oraingoan berritasun nagusia da lan eskaera egin gura duenak etxetik mugitu barik egiteko aukera izango duela. Izan ere, Udalak lan eskaera internetez ere egiteko aukera abiarazi du. erosoagoa izan dadin. Beraz, udal webgunean sartu, eskatzaileak interesatzen zaion lanpostuaren gainean klikatu eta bere curriculuma hor bertan bete ostean bidali egin behar du, besterik ez.

### Deialdi berriko lanpostuak

**DEIALDI LIBRE ARRUNTA**
- Administrazio Orokorreko teknikaria (Aukeako gerentea)
- Administraria.
- Ingurumen Eskolako irakaslea.
- Obretako ikuskatzailea.
- Bi udaltzain.
- BAZeko agentea.
- Ehorzlea.
- Peoia.

**DEIALDI LIBREA**
- Administrazio Orokorreko teknikaria (Gizarte zerbitzuetako burua)
- Hiru gizarte langile.

**BARNE PROMOZIOA**
- Kultur programatzailea.
- Obra lantaldeko burua.
- Udaltzain Lehena.

**INTERNET**

# Webgune berria estreinatu du Udalak

Irudi berria eta Herritarrei zerbitzu berriak eskaintzen dizkie atariak

**J.B.** > ARRASATE
Webgune berria estreinatu zuen joan den astean Arrasateko Udalak; hori bai, helbidea berbera da: *www.arrasate-mondragon.net*. Diseinu aldetik zaharkitua geratu delako baina batez ere herritarrengandik gertuago egoteko egin dute aldaketa.

Hala, webgune berriak herritarrek aspalditik eskatu izan dituzten zerbitzu batzuk aseko ditu. Oraingoz bi dira zerbitzu aipagarrienak: lan eskaintza publikoan izena ematea eta errolda agiria edo bizikidetza agiria lortzea –txartel digitalik ez duen jendeak ere eskatu ahalko du–. Hala ere, Iker Agirrezarobe Udaleko informatikariak jakinarazi duenez, beste hainbat zerbitzurekin lanean dabiltza.

**ETORKIZUNERAKO BITARTEKOA**
Agirrezarobek uste du internet bitarteko moduan indartu egin behar dela etorkizunera begira. Bestalde, dagoeneko errolda eskaera batzuk eta kexa batzuk jaso dituztela gaineratu du.



Irudian udaltzain bat isuna Ibargarain autoen zirkulazioa bideratzen. GOIENKARIA

**ZERBITZUAK** > UDALTZAINGOA

# Iaz 2.077 isun jarri zituzten udaltzainek; gehien, Ibargain

2008an baino 620 isun gutxiago jarri zuten iaz; ohi bezala, arau hauste gehienak dira leku debekatuetan aparkatzeagatik

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Udaltzaingoak egiten duen urteko txostenak jasotzen duenez, nabarmen egin zuten behera 2009an zirkulazio arauak hausteagatik jarritako isunek; %22,99, hain justu ere, 2008. urtearekin alderatuz gero. Iaz udaltzainek 2.077 isun jarri zituzten eta 2008an, 2.697.

Isun horietatik %55,37 Bergarako biztanleei jarritakoak dira eta gainerako %44,63ak kanpoko gidariei.

Isun gehien jarri ziren kaleak izan ziren erdialdekoak, ohi bezala: Ibargarai (370), Irizar (172), San Martin plaza (124), Matxiategi (108), Kruz Gallastegi (79), Arruriaga (73), Bideberri (68), Fraiskozuri (55), Arrizuri (47) eta Aranerreka (42).

Hain justu ere, kale horiek dira zirkulazio handien jasotzen dituztenak, eta baita aparkaleku falta handien duen gunea ere. Izan ere, hor batzen dira inguruko auzoetatik eta ondoko herritatik autoz etortzen direnak, zerbitzu gehien dagoen herriko gunea da-eta. Isun guztien %54,79 pilatzen dira kale horietan (1.138 isun).

Arau hausteei dagokienez, hauek izan dira isunduenak, besteak beste: leku debekatuan aparkatzea (329), baimendutako denbora gainditzea (317), espaloian aparkatzea (266), galtzadan aparkatzea (186), oinezkoen pasabidean aparkatzea (142), zirkulazioa oztopatuz aparkatzea (117) eta bigarren ilaran aparkatzea (105).

Garabi zerbitzuari dagokionez, bederatzi ibilgailu erretiratu zituzten iaz eta zegokien tasa ordaindu behar izan zuten. Horiez aparte, ibilgailu gehiago ere erretiratu ziren, baina kasu haietan tasarik kobratzeke. Udaltzaingoak txostenean argitzen duenez, ibilgailuendako biltegia oraindik egokituta ez dagoenez, garabiaren erabilera mugatzen da egoera zehatz batzuetan.

DATUA

**3,14**
**EURO**

Hori izan zen udaltzain baten biztanleko urteko kostua. Udaltzain eta 1.000 biztanleren arteko erlazioa, berriz, 1,36koa izan zen.

**KALEAN UTZITAKO ANIMALIAK**

Kalean utzitako animaliez ere arduratzen dira udaltzainak. Iaz, 24 txakur batu zituzten eta horietatik 21, Elurra txakurtegira eraman; beste hirurak jabeei itzuli zizkieten. Azken hamar urteotan dihardute lanean Elurra txakurtegiarekin hitzarmen baten bitartez, eta jabeek batu ezean hara eroaten dituzte animaliak.

Bestalde, 1997an mikrotxip irakurgailua erosi zuen Udaltzaingoak, eta Internet birtartez Aldundiko erroldan kontsulta zuzenak egiteko aukera dute. Errolda horretan EAEn erroldatuta dauden txakur guztiak azaltzen dira eta horrek anomalion jabea aurkitzeko lana asko errazten dio Udaltzaingoari.

**20 UDALTZAIN**

Gaur egun 20 agentek osatzen dute Udaltzaingoa; hain justu, 2009an iritsi zen Udaltzaingoa kopuru horretara. Horietatik lau emakumezkoak dira eta 16 gizonezkoak. Bestalde, aipatzekoa da udaltzainetako 10 direla 35 urtetik beherakoak.

Aurrekontuari dagokionez, 923.310 eurokoa izan zuten –udal aurrekontuaren %3,46–. Udaltzain baten biztanleko urteko kostua izan zen 3,14 euro –Udaltzaingoarena, 62,78.

JAKINGARRIAK

**> LAGATAKO AUTOAK**
Jabeek bertan behera lagatako 16 auto erretiratu zituzten bide publikotik eta zatitegira eraman iaz. Beste 73 jabeek erretiratu zituzten.

**> GERO ETA AUTO GEHIAGO**
Iaz 9.438 ibilgailu zeuden inskribatuta. 2008an baino %0,01 gehiago. Hain justu, udaltzainek argitzen dute ibilgailu kopuruak etengabeko gorakada mantentzen duela. Gaur egun, 0,54 auto eta 0,64 ibilgailu dagokio herritar bakoitzari.

**> KALEZ KALEKO SALMENTA**
Kalez kaleko salmenta egiteagatik akta bakarra jaso zuen Udaltzaingoak iaz. Hori horrela, saltzeko modu hori Bergaran desagertuz doala azpimarratu dute.

**> GALDUTAKO GAUZAK**
Galdutako balio txikiko objektuez gain –giltzak...–, 79 objektu batu zituzten eta horietatik 29 jabeei bueltatu zizkieten. Erreklamatu gabe geratzen dena aurkitu duenari bueltatzen diote bi urteko epean, eta, bestela, ongintzaerakundeetara bidali.

**> BESTELAKO ZERBITZUAK**
Udaltzainak arduratzen dira baita ere obra baimenez, zaraten neurketaz, lurzoru publikoaren okupazioaren kontrolaz, auzoetako korreoaz eta lokalen ordutegia betearazteaz.

**AISIALDIA**

## Bergarako liburuak eskuragarri hiru eurotan

**M.B.** > BERGARA

Udalak hainbat liburu ditu Irizar jauregian gordeta, eta, jauregi horretan obrak egitekoak direnez, bada, irteera eman nahi die liburu horiei.

Hori horrela, hiru eurotan jarriko dituzte salgai. Liburuok Udalak argitaratu ditu urtetan barrena eta guztietan Bergara da protagonista.

Liburuak salgai daude kultura etxean, gaur hasi eta apirilaren 29ra arte. Besteak beste, hauek salduko dituzte: Xabier Larrañagaren *Deba haraneko historiaurrea*; Juan Madariagaren *Historia social de Bergara en su época preindustrial*; Juan Martin Elexpururen *Bergarako euskara*...

**oharrak**

KINTADA
**> 1963an jaiotakoek kinto afaria egingo dute maiatzaren 8an**
Interesa dutenek Ariznoa eta Dixula tabernetan eman dezakete izena maiatzaren 2a baino lehen.

KINTADA
**> 1970ean jaiotakoen kinto bazkaria maiatzaren 1ean**
Tartufon egingo dute. 12:30ean hasiko dute txikiteoa, Ariznoa tabernan, eta jatetxera autobusa 14:30ean abiatuko da, azokatik. Izenematea da Ariznoan, 20 euro ordainduta, edo kontu honetan sartuta: 3008 0169 53 2059080826.

KINTADA
**> 1927an jaiotakoen urteko bazkaria apirilaren 24an**
Zumelagan egingo dute, 14:00etan. Izena emateko 20 euro sartu apirilaren 21a baino lehen Euskadiko Kutxan: 3035 0009 16 0091135650.

KINTADA
**> 1949an jaiotakoen urteko bazkaria maiatzaren 8an**
Tartufo jatetxean egingo dute eta urbano zerbitzua egongo da. Izena emateko deitu 650 85 38 57 eta 666 49 04 62 zenbakietara.

BATZARRA
**> Erabilera askotariko antzokiaren gaineko 3. bilera**
Bihar, hilak 20, izango da, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan. Prozesuaren azkeneko batzarra izango da eta herritar guztiak daude gonbidatuta.

**MENDEKOSTEAK** > KARTEL LEHIAKETA

# Ruben Montero, jaietako kartel lehiaketako irabazle

## Aratusteetako kartel lehiaketa irabazi ondoren, hamar lanen artean aukeratu dute Monterorena



Ruben Montero, Mendekosteetako kartel irabazlearekin. GOIENKARIA

**NEREA MENOR** > BERGARA
Mendekoste jaietako egitarauaren azala eta kartela egiteko lehiaketa irabazi du Ruben Monterok. Udalak antolaturiko aurtengo bigarren lehiaketa irabazi du, otsaileko Aratusteetako egitarauko kartel lehiaketan ere Monteron lana aukeratu zutelako. Aurretik ere beste hainbat lehiaketatan irabazle suertatu da Montero. Iaz, Aretxabaletako Aratusteen kartela ere harena izan zen eta baita 2006. urtean herriko Aratusteetako kartela ere.

Kartelean jaietako giroa islatzen saiatu dela adierazi digu irabazleak. Irudian, jendez betetako plaza bat ikusten da, eta baita baloiak ere. "Bitorianatxoren jaitsieran, orain, baloiak botatzen dituzte; hortik hartu nuen ideia", dio diseinatzaileak. Herrian ohikoak diren farolen argazkia ere bertan sartu du.

**HAMAR LAN AURKEZTU DIRA**
Aurten hamar lan aurkeztu dira kartel lehiaketara eta Jai batzordeko kidez osatua izan da epaimahaia. Aurkeztutako lanekin pozik agertu dira, eta, erabakia erraza izan ez bada ere, irabazlea Montero izan da. Aurtengo kartel lehiaketaren saria 600 euro izan da.

**JAIETAKO ZAPI LEHIAKETA**
Urtero bezala, Jardun euskara elkarteak Mendekoste jaietako zapia aterako du. Bada, zapirako marrazkia lortzeko lehiaketa antolatu dute dagoeneko, eta horrekin batera euskararen aldeko lelo labur bat jarri beharko da.

Marrazkiaren gaiak jaiekin lotutakoa izan behar du eta Jarduneko bulegoan edota postaz aurkez daiteke *jardun@topagunea.com* helbidean, maiatzaren 5a baino lehen. Marrazkia A-4 formatuan aurkeztu behar da, eta zuri-beltzean. Egilearen datuak kartazal itxi batean sartuko dira (edo fitxategi ezberdin batean, posta elektronikoz bidaliz gero) eta hura beste kartazal handiago baten gorde beharko da lanarekin batera.

**HIRIGINTZA** > AUZOAK

# San Migel 7 eta 9 bota egin dituzte

## Etxebizitzek lagatako orubea txukundu eta aparkalekuak egokitu nahi ditu Udalak

**M.B.** > BERGARA
San Migel kaleko 7 eta 9. zenbakiak botatzen hasi ziren eguenean, San Antonio auzoaren biziberritze planaren barruan.

Udal arduradunek azaldu dutenez, asmoa da lagako duten orubea txukundu eta aparkaleku moduan egokitzea, herrian dagoen aparkaleku arazoa aintzat hartuta. Lan horiek egiteko Eusko Jaurlaritzaren laguntza izango dute, nahiz eta oraindik ez dakiten zenbateko kopurua jasoko duten. Bestalde, San Antonio kaleko 4, 6 eta 8. zenbakiak botatzeko asmoa ere badu Udalak, eta horiek erosten dihardu. Zenbakiok orain botatzen dihardute etxebizitzen parean daude.


Garabi handi batez baliatu dira etxebizitzak botatzeko. MIRIAN BITERI

Horrekin guztiarekin, San Antonio auzoa biziberritzeko beste urrats bat egin du Udalak. Orain arte Martokorako oinezkoendako ibilbidea eta errepidea txukundu dituzte eta baita eserlekuak eta iturria jarri eta parketxoa egokitu ere.


M.L.

## Mariaren Lagundikoak Mutrikun

Mariaren Lagundia ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 4. mailakoak ibilaldi didaktiko bat egitera joan ziren Mutrikura. Argazkian, herriko portuan agertzen dira 22 ikasleak.
Mariaren Lagundiak *Debarroa menditik itsasora* egitarauaren barruan antolatutako irteera izan da. Ikasleek asko ikasi zutela adierazi digute eskolan; izan ere, kontserbaren industria eta arrantzaren mundua ezagutu zuten. Gainera, ikasteaz aparte, ondo baino hobeto ibili ziren herrian zehar.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia




Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53
Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37
Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
2010ko apirilaren 19a

ASIALDIA > DEIALDIA

# Udalekuetako izenematea zabalik hilaren 30era arte

Umeek 65 euro ordaindu beharko dituzte Euskadiko Kutxan

Begirale moduan jardun gura dutenek hilaren 28a baino lehen eman ahalko dute izena


Iazko udalekuetako umeak Santa Lutziara egindako irteeran. TXALOKA

MIREIA BIKUÑA > OÑATI
2010eko udaleku irekiak antolatzeko lehen urratsak egiten hasi dira. Antolatzaileek lehen deialdia egin dute; hain zuzen ere, neska-mutikoendako eta begiraleendako izenemateak zabaldu dituzte. Horren harira, udalekuetan parte hartu gura duten umeek hilaren 30a baino lehen eman beharko dute izena. Horretarako, 65 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxako kontuan umearen izen-abizenekin. Eta antolatzaileek gogorarazten dute ez dela matrikulako dirurik itzuliko.

Bestalde, begirale moduan jardun gura dutenek hilaren 28ra arte eman dezakete izena udal bulegoetan. Euren curriculuma eroan beharko dute, eta lortutako tituluen fotokopiak.

**UZTAILAREN 1ETIK 30ERA**
Udaleku irekiak uztailaren 1etik 30era egingo dituzte, 10:00etatik 13:00etara arte. Neska-mutiko txikienak 2006an jaiotakoak izango dira; hau da, aurten 4 urte betetzen dituztenak. Zaharrenak, aldiz, 10 urtekoak izango dira. Guztiendako egitarau borobila prestatuko dute begiraleek.

Aurreko ekitaldietan egindako moduan, tailerrak, jolasak, jokoak, jaialdiak eta Uraren eta Zikinen egunak ospatuko dituzte, besteak beste.

Gainera, herriko txoko batzuetara irteerak egingo dituzte; hain zuzen ere, Usakora, San Martinera eta Santa Lutziara joango dira.

**IAZ, 298 UME**
Umeak taldetan banatuko dituzte adinaren arabera. 4, 5 eta 6 urteko umeak dira ugarienak. Aldiz, 9 eta 10 urteko askoz ume gutxiagok parte hartzen dute udaleku irekietan.

Iaz, 298 neska-mutiko ibili ziren uztaileko udalekuetan, txanda bakarrean.

MUSIKA > LEHIAKETA

# Ganbara Txikikoak asteburuan Torreviejan

Aitor Biainen taldeak habanera lehiaketan parte hartuko du beste bost abesbatzarekin batera


Ganbara Txiki abesbatzako kideak. AITOR BIAIN

M.B. > OÑATI
Ganbara Txiki abesbatza Torrevieja (Alacant) aldera abiatuko da egubakoitzean, aste bukaeran egingo duten habanera lehiaketan parte hartzeko. Aitor Biainek zuzentzen duen taldea beste bost abesbatzarekin lehiatuko da. Hiru taldek zapatu arratsaldean abestuko dute, tartean Ganbara Txikik; beste hirurek, domekan.

Abesbatza guztiek lau kantu eskainiko dituzte: derrigorrezko habanera bat (Manuel Martinezen *Habanera salada*); norberak aukeratutako bi habanera; eta polifoniako kantu bat. Ganbara Txikik, derrigorrezko kantuarekin batera, *Habaneras del Carnaval* (David Azurtza) eta *Testigo de amor* (Armando Bernabeu) habanerak eta *Angelus* (Josu Elberdin) abestuko ditu. Azken hori, euskaraz.

**GONBIDAPEN BIDEZ**
Azken bi urteotan antolatzaileen gonbidapena baztertu ondoren, parte hartzea erabaki dute. "2008an deitu ziguten lehen aldiz, gure lana gustuko zutela esateko. Iaz ere gonbidatu gintuzten, baina *Oh happy day* egiten genbiltzan eta ezin izan genuen. Baina aurten bai", esan digu Aitor Biain zuzendariak.

Urtarrila ezkero lan handia egin dute lau kantuak prestatzen, eta euren helburua da ahalik eta lan onena egitea: "Guk %100 eman behar dugu. Ondo kantatzen dakigula erakutsi behar dugu. Gure maila ematen badugu, pozik itzuliko gara".

Irabazteko aukeraz galdetuta, hauxe esan digu: "Gure helburu nagusia ez da txapelketa irabaztea. Lan ona egin arren irabazten ez badugu, besteak hobeak izan direlako izango da. Dena den, sariren bat lortzen badugu, askoz hobeto".

**ETORKIZUNERAKO**
Torreviejatik bueltan ez dute atsedenik hartuko. Zumarragako txapelketan parte hartuko dute maiatzean, eta laster hasiko dira Gabonetarako esku artean duten proiektu erraldoia prestatzen. "Andoni Salameroren poesia batzuekin eta egile ezberdinek idatzitako kantuekin emanaldia egin gura dugu. Uda aurretik hasiko gara lanean", dio Biainek.

> KIROLA

## Udaberriko tenis txapelketako izenematea zabalik

Zubikoa kiroldegiak antolatuta, udaberriko tenis txapelketa jokatuko dute maiatzaren 8tik aurrera. Oraingoz, izenemate epea zabaldu dute; 16 urtetik gorako interesatuek kiroldegiko bulegoan eman dezakete izena, 943 71 63 75 telefonora deituta edo *zubikoa@oinati. net* helbidera idatzita. Izenemate epea egubakoitzean itxiko dute. Oñatiko eta Debagoieneko kirol zerbitzuetako bazkideek 12 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, 15 euro.

Udaberriko tenis txapelketako lehen fasea ligaxka modura jokatuko dute; eta final-laurdenak, finalerdiak eta finala, kanporaketa bidez.

## oharrak

DEIALDIA
**> Boniface ipuin kontalari afrikarraren saio bikoitza**
Kamerunen jaiotako ipuin kontalariak bi emanaldi eingo ditu bihar: umeendako saioa 17:30ean eta helduena, 19:30ean.

ZINEMA
**> 'Revolutionary road' zinekluebean**
Sam Mendesek zuzendutako pelikula eskainiko dute eguenean, 20:00etan. Leonardo DiCaprio eta Kate Winslet dira protagonistak.

ANTZERKIA
**> 'Aitarekin bidaian' antzezlanerako sarrerak salgai**
Hamar eurotan eros daitezke kultura etxeko idazkaritzan hilaren 25erako emanaldirako sarrerak.

DEIALDIA
**> 1961ean eta 1962an jaiotakoen afaria**
Bi urteotan jaiotakoak maiatzaren 8an bilduko dira Etxeberria jatetxean. Aurretik meza izango dute Agustindarren elizan, 19:30ean. Interesatuek 943 78 13 93 (Santi) edo 943 78 34 66 (Jesus) telefonoetara dei dezakete.

DEIALDIA
**> Elikaduraren gaineko hitzaldia Txantxiku ikastolan**
*Zure elikadura zure bizitza da* delako hitzaldia egingo du Maitane Arrondo dietistak martitzenean, hilaren 20an, 18:30ean.

DEIALDIA
**> 1969ko kintoendako deialdia**
Maiatzaren 29an bilduko dira Etxeberria jatetxean. Izenemate epea zabalik dute maiatzaren 20ra arte. 25 euro aurreratu beharko dituzte Euskadiko Kutxako 30350005300051040936 kontuan.

**Angel Elortza** > Abadea

# "Erretiroa hartu beharrean lan gehiago hartuta ere pozik nago, jende ona topatu dut eta"

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

**Eskoriatza eta Aretxabaletako parrokiek osatzen duten Leintz Pastoral Barrutiko hirugarren abadea da Angel Elortza oñatiarra. Hezkuntza munduan urte askoan ibili eta gero etorri da gurera, erretiroa hartu barik lanean jarraitzeko.**

**Zenbat urte dituzu?**

Maiatzean beteko ditut 70; horietatik 46 urte abade.

**Ez duzu erretirorik hartu…**

Ez, erretiroa hartu beharrean lan gehiago hartu dut, baina pozik nago.

**Urte asko daramatzazu abade; zertan ibili zara?**

Abade egin ondoren Oñatiko seminarioan egin nituen hiru urte. Valentziara joan nintzen gero eta auzo bateko parroko izan nintzen beste hiru bat urtean. Oñatira itzuli eta Txantxiku ikastolan hasi nintzen lanean, baina lizentziatura behar nuela eta Quitoko (Ekuador) unibertsitatera joan nintzen Filosofia ikasketak egitera. Itzulitakoan ikastolan jarraitu nuen eta 35 bat urte egin ditut erretiroa hartu arte. Oñatiko Agustindarren elizan nengoen, hona etortzeko deitu zidaten arte.

**Eta noiztik zaude gure artean?**

Parroko Jesus Ortiz de Urbina gaixotu egin zen eta urrian etorri nintzen haren hutsunea betetzera. Osatu ondoren bertan jarraitzeko eskatu zidaten eta orain abade laguntzaile izendatu naute.

**Zenbat lagun zaudete Leintz Pastoral Barrutian?**

Hiru: Jesus Ortiz de Urbina parrokoa, Jabier Egaña –beste oñatiar bat– eta ni neu. Laugarrena Paulo Letona da eta Aretxabaletako auzoetako mezen ardura dauka hark.

**Zeintzuk dira zure zereginak?**

Eskoriatza eta Aretxabaletako mezak eta hiletak esaten ditugu hiruron artean, txandaka. Horrez gain, Aretxabaletako zaharren egoitzara joateko ardura hartu dut.

**Harrera ona egin dizute?**

Bai, jende ona topatu dut eta oso pozik nago.




Angel Elorza abadea egubakoitz ilunkaran meza esan aurretik. M.A.

**"Erronka samurrik ez dute parrokiek, gazteak ekartzeko abade gazteak behar direlako"**

**"Juan Kruz Mendizabal bikario izendatuta oso pozik gaude eta esperantza handia dugu"**

**Zein da gure parrokiek duten erronka nagusia?**

Erronka samurrik ez, gazteak aldenduta daude eta haiek ekartzeko abade gazteak behar ditugu. Nik sufrimendua dagoen lekuan lan egitea hautatu dut eta adineko eta gaixoetan dagoela uste dut.

**Gotzainak hasi du ibilbide berria; zelan ikusten duzu?**

Pozik gaude Juan Kruz Mendizabal izendatu duelako bikario, gure kide eta laguna; izendapen horrekin esperantza handia dugu.

> KULTURA

### Liburu truke azoka txikirako materiala jasotzen dabiltza

Egubakoitzean, Liburuaren Nazioarteko Egunean, Liburu eta ipuin truke azoka txikia egingo dute Algara ludotekako kideek aurreko urteetan legez. Eguraldiak lagun eginez gero kanpoan izango da (17:00-19:30) eta ipuinekin zerikusia duen tailer bat ere egongo da ume guztiendako.

Truke azokarako materiala behar dute eta etxeko ipuin eta liburuak jasotzen dabiltza egunotan ludotekan bertan. Liburua dakarrenari txartel bat emango diote antolatzaileek eta egubakoitzean beste liburu bat hartzeko erabili ahal izango dute.

> UDALA

### Adierazpen libreko gunea kirol etxeko zubiaren alboan

Kirol etxera bidean dagoen zubiaren alboan jarri dute adierazpen libreko gune bat. Ez da berria, Araba ibilbidean –Errotabarri baserri parean– zegoena da orain Loramendi kalera ekarri dutena. Aldaketaren arrazoia da jende gehiago pasatzen dela zubi albotik, bertatik joaten direlako futbol zelaira, kirol etxera, KZgunera eta institutura doazen lagun asko.

Herriko hainbat lekutan daude adierazpen libreko guneak eta herritarrendako interesgarriak diren oharrak, deialdiak, hitzorduak eta jakinarazpenak jartzeko dira.

**ESKORIATZA** > UDALEKUAK

# Begirale izateko izenematea zabalik

Gaur hasi eta maiatzaren 7a bitartean dute epea interesatuek curriculumak aurkezteko

Euskaraz ondo jakitea eta 18 urtetik gorakoa izatea dira derrigorrez bete beharreko baldintzak

**M.A.** > ESKORIATZA

Uztailean egingo dituzten udaleku irekietan begirale lanak egiteko gazteak behar ditu Udalak. Izenemate epea gaur zabaldu du eta maiatzaren 7a bitartean aurkeztu beharko dituzte curriculumak honako lekuetan: Tortolis ludoteka –astelehenetik egubakoitzera (16:30-19:30)–; Gazteria Zerbitzua –astelehenetik egubakoitzera (15:00ak arte)–; eta kultura etxeko bigarren solairua (943 71 46 88). Posta elektroniko bidez ere bidal daitezke dokumentuak: *gazteria@eskoriatza.net*.

**UZTAILAREN 5ETIK 23RA**

Begirale izan gura dutenek bi baldintza bete beharko dituzte: euskarazko maila ona eta 18 urtetik gorakoa izatea. Gainera, lehentasuna izango dute honako jakintzak dituztenek: EGA titulua; begirale titulua; eta umeen hezkuntzarekin lotutako ikasketaren bat. Horiez gain baloratuko dute esperientzia eta aisialdiarekin zerikusiren bat duten ikastaroak eginda izatea. Hortaz, curriculum osatua bidaltzea komeni zaie gazteei.

Antolatzaileek, gainera, jakinarazi dute begirale lanetan jardungo duten guztiek aurretik formazioa jaso beharko dutela. Saio horiek noiz izango diren aurretik jakinaraziko diete hautatuei.

Udaleku irekiak uztailaren 5etik 23ra bitartean egingo dituzte aurten Eskoriatzan. Hiru aste horietan jolasak, eskulanak, irteerak eta beste hainbat jarduera landuko dituzte.



Umeak jolasean iazko udaleku irekietan. GOIENKARIA

**oharrak**

ESKORIATZA

**> Bakarrik bizi izatearen gaineko berbaldia gaur**

Kutxak babestuta, bizikidetza izango dute berbagai gaur (17:30) kultura etxean: *Bakarrik bizitzea, bizikidetzaren alternatibak*.

HEZKUNTZA

**> Berbaldia gaur Fe y Alegria elkartekoen eskutik**

Hezkuntza ardatz hartuta, berbaldia egingo du gaur (19:00) Ibarraundi museoan Fe y Alegria elkarteko hezkuntza arduradun Victor Murillo kolonbiarrak: *Educación de calidad, una mirada desde América Latina*.

KULTURA

**> Karmele Jaio idazlearekin solasaldia eguenean**

*Musika airean* liburuaren gaineko solasaldia egingo du Karmele Jaiok eguenean kultura etxean (18:30). Lehiaketaren zozketa egingo dute solasaldiaren bukaeran.



Haurrak, krosa amaitutakoan, parte hartzearren jasotako sariak eskutan. LARRAITZ ZEBERIO

**ELGETA** > KROS TXAPELKETA

# Atzoko krosean 31 haur eta gazte elkartu ziren

Udalak eta Egoki taldeak urtero antolatzen duen ekitaldian gero eta parte hartze handiagoa dagoela adierazi du Rebeka Ubera zinegotziak

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Kros handietan bezala, denetarik egon zen atzo Elgetako umeen krosean; beroketa ariketak, urduritasuna, erorketak, zaletuen txaloak eta animuak... goizeko 11:00etan egin zuten hitzordua kiroldegi inguruan eta lehen lasterketa handik gutxira hasi zen.

Guztira, bost lasterketa egin ziren eta adinka banatuta bi eta hamaika urte bitarteko 31 haur eta gaztek parte hartu zuten. Guraso taldea ere batu zen kros txapelketa ikustera, baina ez zen inor lasterka egitera animatu. Aurtengoan ere, beraz, ez da helduen kros txapelketarik egin.

**BALORAZIO POSITIBOA**

Kirol zinegotzi Rebeka Uberak balorazio positiboa egin zuen proba amaitutakoan. "Urtero egiten dugun kirol jarduera da eta urtetik urtera gero eta jende gehiagok hartzen du parte", adierazi zuen. "Aurten ere iaz baino jende gehiagok egin du lasterka". Gurasoen laguntzarekin antolatzaile lanetan aritu zen Ubera Gipuzkoako Foru Aldundiko kirol zuzendari Iñaki Ugarteburureekin batera.

Atzokoan ere parte hartzearen garrantzia erakutsi nahi izan zieten umeei eta amaitutakoan haur guztiek jaso zuten sari bana.

### Irabazleak

**BOST URTE ARTEKOAK**
> Abdurahim Labaien

**1. ETA 2. MAILAKOAK**
> Asier Zeziaga

**3. ETA 4. MAILAKO NESKAK**
> Nikol Baro

**3. ETA 4. MAILAKO MUTILAK**
> Egoitz Mañarikua

**5. ETA 6. MAILAKO NESKAK**
> Jone Elkoro

**5. ETA 6. MAILAKO MUTILAK**
> Mikel Canelo

**LEINTZ GATZAGA** > AUTOBUS ZERBITZUA

# Autobus zerbitzua murriztu egin dute Arlabanen, autobidetik doazelako orain asko

Astegunetan hiru bakarrik pasatzen dira Arlabandik eta zazpi herritik Gasteizera bidean; gainerakoak autobidetik doaz

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Apirilaren 6a ezkero, Aretxabaletatik eta Eskoriatzatik pasatzen diren hainbat autobus –ordu bikoitietakoak– autobidetik joaten dira Gasteizera. Hori horrela, Arlabandik pasatzen den autobus kopurua asko jaitsi da eta orain egunean hiru bakarrik pasatzen dira Gasteiz aldera –09:35; 13:35; eta 17:35– eta beste hiru Gasteiztik Arrasatera –10:25; 14:25; eta 18:25–.

Gatzaga herritik pasatzen direnak, ostera, mantendu egin dituzte eta astegunetan zazpi autobus dira Gasteizera doazenak eta sei bueltan Arrasatera datozenak.

**MURRIZKETAREKIN HASERRE**

Zerbitzuak izan duen murrizketa ez dute ulertu inguruko baserrietako bizilagun batzuek: "Ama Birjinaren irudi alboan eta Gure Ametsa jatetxe parean daude gure geltokiak eta orain oso gutxi pasatzen dira. Irakurri dut aretxabaletarrak pozik daudela autobidetik doazelako autobusak; haiek jakin behar dute herri txiki bati zerbitzua murriztu egin diotela". Udala kezkatuta dago murrizketarekin eta Aldundiko ordezkariekin egoteko asmoa du.

**ARAMAIO** > KULTURA

# Pintura lehiaketako koadroak Sastiñan jarri dituzte salgai

Azken urteotako pintura lehiaketako koadroak eros daitezke; egubakoitzera arte izango da margolanak erosteko aukera

**E.M.** > ARAMAIO

Azken urteotan Aramaion egindako pintura lehiaketetako lanak salgai jarri dituzte. Hain zuzen ere, 60 margolan dira salgai jarri dituztenak; 5 eta 15 eurotan eskuratzeko aukera egon da eta gaurtik egubakoitza bitartean, berriz, 5 eurotan salduko dituzte geratzen diren koadroak. Interesatuek Sastiñara joatea baino ez daukate: egubakoitzera arte, hilaren 23ra arte, arratsaldez izango da zabalik Sastiña, 18:00etatik 19:30era. Pintura lehiaketaren azken ekitaldia urrian egin zuten.

**ITUR-ZURIREN IRTEERA**

Itur-Zuri emakume taldeak apirilaren 24an Aiako lore azoka ikustera joateko irteera antolatu du. Goizean azoka ikusi eta bazkaria Zarautzen egingo dute. Izenematea (40 euro) bihar arte, hilaren 20ra arte dago zabalik 670 43 16 62 (Ana) telefono zenbakian.

**ARAMAIO-AIARALDEA**

Bestalde, Aramaiok eta Aiaraldeak-ek Arabako Kuadrilla Arteko Bertso Txapelketaren azken finalerdia jokatuko dute domekan, Amurrion, 17:30ean.



Sastiñan ikusgai daude salgai jarritako koadroak. ANA MARTIARENA

**ANTZUOLA** > AZPIEGITURAK

# Sagastiko biribilgunearen proiektua ikusgai dago

Hilabetez egongo da jendaurrean ikusgai; aurrekontua 567.000 euro da

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ANTZUOLA

GI-632 errepidearen eta Sagasti kalearen bidegurutzean eraikiko da biribilgunea. Azpiegituraren eraikuntza proiektua idatzita dago, eta hilabetez jendaurrean egongo da erakusgai, 2010eko apirilaren 13an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan ostean. Gipuzkoako Foru Aldundiak 567.000 euro inbertituko ditu lan hori egiteko.

**21 METROKO ERRADIOA**

Biribilgune berriak 21 metroko kanpoko erradioa dauka, marra zuriraino, eta marra zuriaren barruko erradioa 15 metrokoa da. Bi aldeetan bazterbide bat aurreikusi da, gutxienez metro bete zabalerakoa. Hirigunean oinezkoak segurtasunez ibil daitezen espaloi bat eraikiko dute biribilgunean. Abiadura mantsotzen denez eta oinezkoentzako babes deflektoreak daudenez, zebrabide bat jarriko da espaloiak elkarren artean lotzeko.

**BERGARA ALDERA**

Proiektuak aurreikusten du erdiko lerro bat jartzea auzotik Bergara aldera doazen ibilgailuentzat. Lerro hori noranzko batekin bakarrik gurutzatzen da, eta, ondorioz, ez dago ikusmen arazorik Bergara aldera doazen ibilgailuekiko.

Biribilgunea egingo den puntua GI-632 errepidearen 19,250 kilometro-puntua da, Sagastiko auzoaren ondoan. Gainera, Antiguako auzorantz doan bidea berritu egingo da, puntu hura baino 200 metro aurrerago dagoena. Diputazioaren asmoa zirkulazioa arintzea eta bide segurtasuna areagotzea da.

# Kirola



**> FUTBOLA**
Bergarak gehiago ondoratu zuen Beti Gazte, lesakarrei 3-2 irabazita **> 22**




**> ZIKLISMOA**
Mario Gonzalez kantabriarra izan zen Bergaran azkarrena **> 24-25**

**> MANEX AZULA**
Espainiako snow txapelketan bost domina irabazi ditu Bergarakoak; Datorren urtean Europara begiratu nahi du **> 27**





Bukina errusiarrarekin lehian. VANO SHLAMOV / AFP / GETTY IMAGES



Marina Gastl-i irabazi ostean. VANO SHLAMOV / AFP / GETTY IMAGES




Maider Unda, txapelketako gainontzeko irabazleekin batera, podiumean. MAIDERUNDA.COM

**BORROKA** > EUROPAKO TXAPELKETA

# Brontzezko dominarekin itzuli da Maider Unda Azerbaijandik

**POSTU ONENA** Europako txapelketan inoiz lortu duen posturik onena da egubakoitzean lortutakoa

**ERRUSIARRA** Final laurdenetan, Ekaterina Bukina errusiarrak finalerako bidea moztu zion

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Erakustaldi bikaina egin du oletarrak apirilaren 13tik 18ra bitartean, Azerbaijango hiriburu Bakun egiten ari diren 2010 Europako borroka txapelketan; 72 kiloko emakumezkoen mailan, brontzezko domina lortu du-eta. Lehenengo aldia da debagoiendarra txapelketa horretan podiumera igotzen dela.

Eguenean mediku azterketa izan zuen eta jarraian, egubakoitzeko lehiak zehaztuko zituen zozketa egin zuten. Greziako Maria Louiza Vryoniren kontra lehiatu zen lehenik. Egubakoitzeko eguna ondo hasi zuen oletarrak, greziarrari irabaziaz (0-1,1-0,2-0), kanporaketa berdindu batean. Final laurdenetan, baina, Ekaterina Bukina errusiarrak finalerako bidea moztu zion (3-0,4-1). Errusiarraren lan onak, dena dela, bigarren aukerako atea ireki eta hori ondo aprobetxatzen jakin zuen Undak.

**MARINA GASTL, AURKARI**

Lehenik, Dina Ivanova azerbaijandarra kanporatu zuen (0-2,0-4) eta jarraian, pasa den urteko munduko txapelketan gertatu zen bezala, Marina Gastl austriarrarekin borrokatu behar izan zuen domina lortzeko. Oraingoan ere Unda garaile irten zen (0-1,4-0) eta modu horretan, Europako txapelketa batean lortzen duen lehen domina lortu zuen.

Joan den martitzenean abiatu zen borrokalaria Azerbaijanera. Nazioarte mailan, aurreko urteetan baino zerbait gutxiago ibili bada ere, Kabuko hitzordurako ondo prestatu izan da eta hortaz, podiumera heltzea zuen helburu nagusi. Ez du huts egin eta lortu izan du.

**BEIJINGO JOKO OLINPIKOETAN**

Undaren ibilbidea luzea da. 1998. urtetik da Espainiako emakumezkoen borroka taldeko partaidea. Europa eta Mundu mailako askotariko txapelketan parte hartu izan du ordutik hona, 72 kilogramoko emakumezkoen maila olinpikoan. Aipatzekoak dira, esaterako, 2001ean egindako Mediterranear Jokoetan oletarrak irabazitako brontzezko domina, eta 2007an Bakun bertan jokatutako Munduko txapelketan lortutako bosgarren postua. Azken horrek, 2008ko abuztuan, Beijingen (Txinan) izan ziren joko olinpikoetan parte hartzeko balio izan zion. Jokatutako aurreneko joko olinpikoetan ezin izan zuen domina lortu, txapelketa bikaina egin bazuen ere; 5. postuarekin konformatu behar izan zen.

**12 BIDER ESPAINIAKO TXAPELDUN**

Joan den urteko munduko txapelketan, berriz, brontzezko domina lortu zuen. Horrez gain,12 aldiz izan da Espainiako txapeldun. 2000n irabazi zuen lehenengo urrea eta ordutik hona ez du aurkaririk izan horretan.

DATUA

**7**

**EUROPAKO TXAPELKETA**

Europako zazpi txapelketetan parte hartu du: 2001ean, 2002an, 2005ean, 2007an, 2008an, 2009an eta 2010ean. Aurtengoa kontuan hartu barik, 2002an lortu zuen posturik onena: bosgarrena.

AIREPORTUETAKO KAOSA

## Madrildik Euskal Herrira itzultzeko arazoak

Ehunka mila bidaiari bezala, Maider Undak ere arazoak izan ditu etxera bueltatu ahal izateko, Islandiako Eyjafjälla sumendiak eragindako errauts hodeiaren ondorioz. Etxekoek jakinarazi digutenez, Azerbaijan eta Madril arteko bidaia aurreikusi bezala egin zuen, hegazkinez. Domeka goizaldean iritsi zen Espainiako hiriburura, 04:00ak aldera. Arazoak, baina, Euskal Herrira ekarri behar zuen hegaldiarekin hasi ziren. Jakina denez, Aenak Hego Euskal Herriko aireportuak ixteko neurria hartu zuen zapatu arratsaldean. Hori dela-eta, bidaia autobusez egitea erabaki zuen Undak. Atzo, domeka, arratsaldean etxera iristekoa zen oletarra.

**KIROLA** > OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

# Egun beltza izan zuen Aloñak ate a

ALOÑA MENDI
**0-2**
TOLOSA

**Aloña Mendi** > Iñigo Idigoras, Gorka Bernal, Endika Ruiz (Unai Arregi, 75. min.), Jon Igartua, Roberto Idigoras, Aritz Garmendia (Iker Aramendi, 85. min.).), Mikel Palacios (Jon Astigarraga, 75. min.), Xabi Agirre (Iñigo Arregi, 61. min.), Josu Juaristi (Iñigo Zubia, 61. min.), Mikel Ibabe eta Iker Olalde.

**Tolosa** > Serna, Zumeta, Valor (Lanzeta, 46. min.), Ekhi, Telleria, Urtzi, Arkaitz (Colombo, 70. min.), Etxeberria (Mario, 77. min.), Uribe, Balerdi (Antxon, 83. min.) eta Anner.

**Epailea** > Zubiaurre, Martinez eta Lakarra marrazainen laguntzarik. Txarto. Falta ugari ez zituen adierazi eta kontrako erabakiak hartu zituen behin baino gehiagotan. Zaleek protesta egin zioten partidu osoan zehar. Lehen zatian balio gabe utzi zuen ustezko Idigorasen gol bat; etxeko jokalariek ez zuten gehiegi protestatu jokaldia, baloiak marra ez zuela gainditu ematen baitzuen.

**Bestelakoak** > Ohi baino ikusle gutxiago Azkoagainen. Arratsalde eguzkitsua, lehen zatian batez ere. Julio Ibarrondoko Aloñako jokalari ohiaren oroimenez, minutu bateko isilunea gorde zuten bertaratuek partidua hasi aurretik.

**EDU MENDIBIL** > OÑATI

Beste 120 minutu izanda ere, Aloñak ez zuen golik egingo atzo. Arratsalde aldrebes horietako bat izan zuten oñatiarrek domekan eta Tolosak merezimendu osoz eraman zituen hiru puntuak Azkoagainetik. Zelaian ordena eta ate aurrean punteria izatea nahikoa izan zitzaien tolosarrei partidua irabazteko. Sailkapeneko laugarren postuari heltzen dio Tolosak eta, sei partiduren faltan, zortzigarrenak dira oñatiarrak. Amaiera ahalik eta txukunena izatea da Aloñaren asmoa maiatzera bitartean.

**BI GOLAK, LEHEN ZATIAN**

Esan bezala, Pablo Diezen jokalariek ez zuten partidu onik egin atzo, zaleen aurrean. Lehen zatian bigarrenean baino hobeto jokatu zuen Aloñak, baina arrisku gehien Tolosak eragin zuen. Ordu erdira, Balerdik lehenbiziko gola egin zuen eta lehen zatia amaitzear zela, partidua erabakita utzi zuen Balerdik berak, Anner-ek eskuinaldetik barneraldi bikaina egin eta baloia atzetik zetorren Balerdiri eman eta gero.

Aloña ondo ibili zen zelai erdian, baina gaizki azken metroetan. Gorka Bernal eskumako defentsa oñatiarrak lan bikaina egin zuen hasierako 45 minutuetan, erasora joanez behin eta berriz. Baina Tolosaren area ingurua gainditzea zaila gertatzen zitzaien etxekoei. Defentsan sendo agertu zen Tolosa, zenbaitetan gogor ere bai. Epaileak bigarren txartel horia barkatu zion agian Valor tolosarrari, Roberto Idigorasi sarrera itsusi bat egin ostean. Edozelan ere, lan gutxi izan zuen Sernak, tolosarren atezainak, lehen zatian eta bi goleko abantailaz erretiratu ziren bisitariak aldageletara.

**TXARTO ATE AURREAN**

Bigarren zatian, Aloñak gora egin zuen baina zorterik gabe. Mikel Palaciosek buruz errematatu zuen korner bat 50. minutuan, baina Tolosako atzelari baten jo baloiak eta Serna atezainak geratu zuen. Roberto Idigoras behin eta berriz saiatu zen ezkerraldetik; haren bi erdiraketa bikainek ez zuten emaitzarik ekarri: lehenbizikoan kanpora joan zen Palaciosen errematea eta handik gutxira Iñigo Arregi izan zen ate aurrean ez zuena asmatu.



Endika Ruiz Aloñako atzelaria Tolosako jokalari batekin borrokan, atzo Azkoagainen.

Aurretik Tolosak susto ona eman zion Aloñari; Sernaren sake bat geratzeko nahiko larri ibili zen Idigoras Aloñako atezaina; denboraldiko gol onenetako bat lortzeko zorian egon zen atezain tolosarra.

**TOLOSAREN BI AUKERA**

Beste bi aukera garbi ere izan zuen Tolosak, Anner-en bitartez: 80. minutuan Idigoras atezainaren aurrean bakarrik geratu baina Idigorasek ederto kendu zion baloia; eta 83.ean, kanpora bota zuen, porteria hutsik zegoela, eta errazena gola egitea zenean.

Aloñak ez zuen asmatzen. Iñigo Arregik baloia kanpora bidali zuen Idigorasen beste jokaldi baten ostean 77. minutuan, eta



Alzola aurrelari bergararra, zapatuko partiduko irudi baten. JULIO CALLEJA

**FUTBOLA** > OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

## Markagailuan 2-0 aurreratu ondoren, luzapenean lortu zuen garaipena Bergarak

Beñat Catalanek egin zuen mahoneroen hirugarren gola, Beti Gaztek 85. minutuan binakoa egin ostean

BERGARA
**3-2**
BETI GAZTE

**E.M.** > BERGARA

Uste baino gehiago sufritu zuen Bergarak zapatuan, Beti Gazteren aurka hiru puntuak eskuratzeko. 15. minuturako 2-0 aurreratu ziren markagailuan etxekoak, Markel Ilzarpek penaltiz eta Imanol Cabanillasek lortutako golei esker. Cabanillasek gol polita egin zuen Alzolaren barneraldi bikain baten ostean. Partidu erraza zirudien zapatukoak, baina gehiegi fidatu ziren Manu Diazen mutilak eta futbolean garesti ordaintzen dira horrelakoak. Zorionez, zortea alde izan zuten mahoneroek partiduaren azken minutuetan.

**AUKERA GARBIAK HUTS EGIN**

Esan bezala, Bergara jaun eta jabe izan zen lehenbiziko 45 minutuetan. Bi goleko abantailaz joan ziren aldageletara eta bigarren zatian aldea handitzeko gol aukera garbiak huts egin zituzten. Beti Gaztek, ordea, punteria hobea erakutsi zuen atearen aurrean eta partidua berdintzeko gauza izan ziren nafarrak, etxekoen harridurarako.

Bst minuturen faltan egin zuen Beti Gaztek bigarren gola eta partidua berdinketarekin amaituko zela ematen zuenean, Bergararen hirugarren gola iritsi zen. Beñat Catalan argi ibili zen Beti Gazteren atezainarekin baloia buruz borrokatu ostean, eta area marraren ingurutik sarera bidali zuen baloia.

**LEHEN HAMARREN ARTEAN**

Bergara 6. tokian dago orain eta datorren asteburuan Tolosari egingo dio bisita. Sei partidu geratzen dira liga amaitzeko eta lehen hamarren artean sailkatzea da Bergararen helburua orain

# aurrean



JULIO CALLEJA

Unai Arregi ezkertiarrak azken bi aukerak huts egin zituen; ezkerraldetik egindako falta bat kanpora joan zitzaion gutxigatik eta haren beste jaurtiketa bat ondo gelditu zuen Sernak. Ez, atzokoa ez zen Aloñakoen eguna. Hurrengo baten izan beharko.

**Gorka Bernal >**
Aloñako jokalaria

## "Liga amaitu bitartean ea zertxobait gora egiten dugun..."

**E.M.** > OÑATI
**Gorka Bernal, 2 zenbakidun eskuineko defentsa izan zen onenetakoa atzo Aloñakoen aldetik. Emaitza justua izan zela aitortzen zigun partiduaren amaieran.**

**Ez da izan gaurkoa zuen partidu onenetakoa, ala?**
Ez. Aukerak sortu bai, baina ezinezkoa izan zaigu golik egitea. Bigarren zatian izan ditugu aukerarik garbienak baina baloiak ez duenean sartu nahi...

**Lehen zatian gola eskatu duzu Idigorasen erremate baten?**
Baloiak marra gainditu duela, barruan bote egin duela iruditu zait, baina ez dakit...

**Liga amaitu bitartean, zer?**
Sei partidu geratzen zaizkigu eta azkenera arte borrokatu beharra dago. Ea sailkapenean zertxobait gorago egiten dugun.



E.M.




Aretxabaletak sailkapenean hirugarren tokian dagoen Portugalete hartuko du domekan, Ibarran. GOIENKARIA

**FUTBOLA** > HIRUGARREN MAILA

## Aretxabaletak 3-1 galdu zuen zapatuan Mintxetan, Elgoibarren aurkako derbian

UDAk jaitsiera postuetan jarraitzen du; domekan, beste final bat izango dute Ibarran, Portugaleteren aurka

| ELGOIBAR |
|---|
| **3-1** |
| ARETXABALETA |

**E.M.** > BERGARA
Aretxabaletak jaitsierako postuetan jarraitzen du, zapatuan ez baitzuen Elgoibarren aurkako derbian punturik eskuratu. Igor Gordobilen taldeak 3-1 galdu zuen Mintxetan. Elgoibar sailkapeneko goikaldean dago, play-offetarako sailkatzeko borrokan, eta etxekoek ez zuten eragozpenik izan UDA mendean hartzeko. 7. minutuan egin zuen Munitisek etxekoen lehenbiziko gola eta bigarren zatian, 67. minutuan, iritsi zen bigarrena, Guineak sartutakoa. UDAk aldea murriztu zuen 75. minutuan, Guillenen bitartez, baina Elgoibar sendo ibili zen defentsan azken minutuetan, UDAren erasoko jokaldiak geldituz.

Luzapenean, 92. minutuan, Guineak egin zuen hirugarren gola, lasaitasunarena. Domekan, sailkapenean hirugarren tokian dagoen Portugalete izango du UDAk bisitari Ibarran.

**MONDRAK IRABAZI TRINTXERPEN**
Bestalde, ohorezko erregional mailan, Mondrak 0-3 irabazi zuen zapatuan Trintxerpen. Lehen ordu erdian bikain aritu ziren Andoni Azkargortaren jokalariak eta ordurako bi goleko abantaila zeukaten markagailuan, Jon Muruaren (5. min.) eta Ekain Garinen (12. min.) golei esker.

Bigarren zatiaren hasieran zerbait estutu zuen etxekoek, baina Mondrak ez zuen eragozpenik izan hiru puntuak lortzeko. Jokin Pavok egin zuen partiduko hirugarren gola.

Mondra 8. dago sailkapenean. Aloña eta Bergararen aurka jokatu behar du liga amaitu bitartean eta sailkapeneko sei lehenen artean geratzea da Mondraren helburua.



JULIO CALLEJA

## Bergarak Euskal Ligan jarraituko du hurrengo denboraldian

Nahiz eta Baskoniaren aurka 1-4 galdu atzo, Euskal Ligako Bergara futbol taldeak mailari eustea lortu du. Azken jardunaldiko emaitzen ostean, Añorga, San Martin eta Ordizia bergararren atzetik geratu dira eta Antiguoko ere mailaz jaitsi da, Liga Nazionaleko sailkapenaren ondorioz. Beristainen jokalariek Euskal Ligan jarraituko dute beraz. Iñigo Machok egin zuen mahoneroen gol bakarra atzo, Ipintzan.

> ERREGIONALA

### Antzuola eta Amaikak Bat taldeen arteko berdinketa Estalan

Antzuolak bana berdindu zuen zapatuan Estalan, Debako Amaikak Bat taldearen aurka jokatutako partiduan.

Bisitariak aurreratu ziren markagailuan, 5. minutuan, eta gola egin eta atzera egin zuten debarrek. Antzuolak eraman zuen jokoaren iniziatiba, baina kosta egin zitzaien etxekoei gol aukerak egitea. Garbienetako bat Mikel Idiakezek egin zuen; falta jaurtiketa baten ondorioz, baloia langara bidali zuen. Partidua bukatzeko 15 minutu falta zirenean, berdinketaren gola egin zuen Iker Cabrera. Handik aurrera batzuek zein besteek izan zuten aukera bat edo beste garaipena lortzeko baina azkenean puntu bana eskuratu zuten.

Lau partiduren faltan, badirudi Igor Larrea eta Iban Unanueren taldeak mailari eutsiko diola.

> NESKAK, IGOERA FASEA

### Arizmendik 4-3 irabazi eta Mondrak bana berdindu

Emakumezkoen igoera fasean, Mondra liderrak bana berdindu zuen atzo eguerdian Donostian, Intxaurdiren aurka. Hamar jardunaldiren ostean, Mondrak lidergoari eusten dio, zortzi partidu irabazita eta beste bi berdinduta. Hain zuzen, Intxaurdirekin berdinduta daude arrasatearrak, baina gol-averagea hobea daukate.

Arizmendi nesken futbol taldeari dagokionez, 4-3 irabazi zion zapatuan Añorgari, Almenen jokatutako partiduan. Sailkapeneko bosgarren tokian dago Arizmendi.

Zortzi talde dira lehian emakumezkoen igoera fasean. Hurrengo jardunaldian Mondrak Amara Berri hartuko du Mojategin eta Arizmendik, Zumaiakori egin beharko dio bisita. Lau jardunaldi geratzen dira igoera fasea amaitzeko.

**TXIRRINDULARITZA** > GIPUZKOAKO KLASIKOA

# Mario Gonzalez Klasikoan az

## Kantabriako selekzioko ziklistak aurreko taldetxoan igo zuen Asentzio

## Elgetatik jaisten ihes eginda zihoan Carlos Jimenez harrapatu eta erasoa jo zuen



Eneko Lizarralde (Sumofic), lasterketa hasi aurreko unean; giharretako arazoekin iritsi zen helmugara. JULIO CALLEJA

### Sailkapena

| | | |
|---|---|---|
| **1.** | Mario Gonzalez | 2:52:19 |
| **2.** | Carlos Jimenez | 6ra |
| **3.** | Jesus Rubio | 10era |
| **4.** | Carlos Verona | 10era |
| **5.** | Israel Nuño | 10era |
| **6.** | Roberto Mendez | 51ra |
| **7.** | Mikel Iturria | 55era |
| **8.** | Damien Garcia | 55era |
| **9.** | Oscar Gonzalez | 1:03ra |
| **10.** | **Mikel Aristi** | **1.12ra** |
| **11.** | David San Migel | 1.16ra |
| **12.** | Zurita Martinez | 1.25era |
| **13.** | Oier Iraolagoitia | 1.25era |
| **14.** | Hernandez Gutierrez | 1.25era |
| **15.** | Angulo Sampedro | 1.25era |
| **16.** | Pagola Bereziartua | 1.25era |
| **17.** | Ivan Cañas | 1.25era |
| **18.** | Xabier Perez | 1.25era |
| **19.** | Astals Fernandez | 1.25era |
| **20.** | Iban Roade | 1.25era |
| **21.** | Alain Santamaria | 1.25era |
| **22.** | Jorge Arcas | 1.25era |
| **23.** | Diego Tejedor | 1.25era |
| **24.** | Imanol Esteves | 1.25era |
| **25** | Raul Medin | 1.25era |
| **26.** | Jesus Gartzia | 1.25era |
| **67.** | **Alex Altuna** | **4.02ra** |
| **74.** | **Eneko Lizarralde** | **4.15era** |
| **80.** | **Aitor Umerez** | **4:51ra** |
| **86.** | **Hodei Orobengoa** | **5.45era** |
| **90.** | **Unai Retolaza** | **5.46ra** |
| **96.** | **Gorka Gorosarri** | **6.57ra** |
| **123.** | **Markel Juaristi** | **11:27ra** |

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

"Espainiako Itzulian ere ez da horrelako giroa egoten, lasterketa ederra izan da", adierazi zuen Lokatzako ordezkari eta gazte mailako entrenatzailea den Iker Sanchezek proba amaitutakoan.

Eta arrazoi zuen, kirol arlotik emozioz betetako lasterketa izatearekin batera, erlojuak 18:00ak zirela erakusten zuenean Ibargarain, helmugan, giro paregabea zegoelako; jende asko ziklisten zain. Helmugan geundenok Asentzio igotzen azkarrena izan zen Carlos Jimenez (Gaztela Mantxa) espero genuen; gainera iristeko 500 metroren faltan jo zuen erasoa, eta segundo oso baliotsuak eskuratu zituen. Atzetik zetozen Mario Gonzalez (Kantabria), Jesus Rubio (Gaztela Mantxa), Verona Quintanilla (Madril) eta Israel Nuño (Asturias).

Motorren pare jaitsi zuten Elgeta, eta jaitsiera horretan ihes egindakoa abantaila galtzen joan zen, Mario Gonzalezen alde: "Bergarara iristeko kilometro gutxiren faltan harrapatu dut", adierazi zuen lasterketa amaieran Gonzalezek, baina harrapatu bakarrik ez, Gaztela Mantxakoa gurpiletik ateratzeko gauza ere izan zelako helmugarako kilometro baten faltan (2:52:19). Eta amorratuta, 6 segundora iritsi zen Carlos Jimenez (2:52:25); mendiko sariarekin konformatu behar izan zuen.

**ETXEKOEK MAILA POLITA**

Gazte mailako Espainiako ziklista onenekin batera lehiatzeko aukera izan zuten etxeko ziklistek. Dorletako Ama barruan Seinekoak eta Lizarralde kirolakekoak izan ziren –mendiko bizikletan lehiatzen direnak–, eta Lokatza barruan Sumofic eta Ulma moduan lehiatu zirenak. Denek ez zuten proba amaitzerik lortu, horixe adierazi zuen, esaterako Alex Anburuk (Lizarralde): "Pena apur batekin geratu naiz, ezin izan dudalako lasterketa amaitu. Konturatu orduko tropelaren atzealdean geratu naiz, hor erantzun egin behar zaie erritmo aldaketei eta, azkenerako ezin".

Aipatzekoa Mikel Aristik lortutako hamargarren postua, oraindik lehen urtekoa delako: "Denek egin dute oso lan ona, gaur beste erritmo batean lehiatzera ikasi dutelako. Autora zelan jaitsi, berriro ere tropelera itzuli... Asentzio hasi aurretik oso ondo ibili dira, eta mendatean bakoitzak ahal zuena egin du", adierazi zuen Iker Sanchezek.

Taldeka Gaztela Leon izan zen onena eta tarteko helmugetan David San Miguel.

**ARETXABALETA SARIA**

Kategoria txikietan, berriz, zapatu arratsaldean baita ere Aretxabaleta saria egongo zen jokoan. Alebin eta infantil mailan lehiatu ziren ibarreko ziklistak, eta ziklista gazteek izerdi ederrak bota zituzten Basabe poligonoan barrena egindako zirkuituan.

Guztira 80 neska-mutiko inguruk parte hartu zuten Dorletako Ama Txirrindularitza Eskolak antolatutako lasterketetan. Bai alebin mailako lasterketa, eta baita infantiletakoa ere esprintean erabaki zituzten. Alebinetan Aitzol Odriozola izan zen azkarrena, Ekaitz Txintxurreta bigarren eta Kepa Unanue hirugarren. Infantil mailan, berriz, Iker Alberdirendako izan zen garaipena, Jon Izagirre izan zen bigarrena, eta Andoni Gurrutxaga hirugarrena.



**Mario Gonzalez**
Kantabriako selekzioa

### "Denboraldiko lehen garaipena da, oso berezia niretako"

Denboraldi hasieratik ibili naiz garaipen baten bila, eta azkenean Gipuzkoako Klasikoan lortu dut. Ihesaldietako batean David taldekidea sartu dugu tarteko helmugen irabazle izan dena, eta gero atzetik lasai joan gara, Asentziora arte. Aurrean igo dut, eta jaitsieran ihes eginda zihoana harrapatu eta pasatu dut".



**Mikel Aristi**
Lokatza

### "Banekien Asentzion indartsu zeudenek aurrera egingo zutela"

Oso pozik geratu naiz egindako lanarekin. Lasterketan ahalik eta lasaien joaten ahalegindu naiz, Asentziora arte. Hor banekien indartsu zeudenek aurrera egingo zutela eta ahal dudan guztia egin dut. Gazte mailan lehenengo urtekoa naiz ni, eta ez nuen espero horren ondo ibiltzea, sorpresa izan da, egia esateko.



**Iker Eskibel**
Lizarralde Kirolak

### "Autora ura hartzera joan eta indar barik geratu naiz bueltan"

Indarrak neurtzen joan naiz lasterketa osoan, Angiozarrera ondo iritsi ahal izateko. Baina Arrasatetik itzultzen ur gabe geratu naiz. Ur bila autora joan eta berriro ere tropela harrapatzea lortu dut, dena emanda. Indar barik, Osintxutik bueltan atzean geratu naiz, galdu egin dut tropelekoen gurpila.



**Markel Juaristi**
Sein

### "Jende asko zebilen animatzen, herrian eta baita Deskargan"

Oso lasterketa gogorra izan da niretako, ezinean ibili naiz eta bazirudien atzeko gurpilari balaztak ukitu egiten ziola. Mundu guztia ibili da niri bultza egiten, eta leher eginda iritsi naiz. Espainiako onenak zeuden hemen, ziklista askok seriotasun handiz hartzen dute txirrindularitza eta igarri egiten da hori.

# karrena



Klasikoko podiumean, protagonista guztiak batera JULIO CALLEJA


Labegaraieta atzean utzi eta tropela Angiozarrera bidean. XABIER URTZELAI

**ESKUBALOIA**

## Bergarak bigarren garaipena lortu zuen

Taktikoki ondo jokatu zuten; jokaldi on asko egin zituzten bergararrek

**MIRIAN BITERI** > BERGARA
Igoera faseko bigarren garaipena lortu zuten zapatu iluntzean Josetxo Muniategiren mutilek. Bergarak Deustuko Unibertsitateari 35-31 irabazi zion, Labegaraietako kantxan. Taktikoki ondo jokatu zuten eta hori igarri egin zen markagailuan.

Lehenengo zatia 20-15 amaitu zuten. Jokaldi asko egin zituzten bergararrek; horietako askok, gainera, ate barruan bukatu zuten. Bigarren zatia, berriz, nahastu samar hasi zuten eta bizkaitarrak bi puntura jarri ziren. Dena dela, hain ondo jokatu ez bazuten ere, garaipena lortu zuten.

Euskadiko txapelketara igotzeko hurrengo lehia Gasteizen dute asteon, Corazonistas B taldearen kontra.

> SASKIBALOIA

### Aloña Mendik bakarrik irabazi du asteburuko lehia, eta MUk eta Eskoriatzak galdu egin dute

Lehenengo mailan, Mondragon Unibertsitateak ezin izan zuen Baskoniarekin; zapatuan, Javi Zurbanoren mutilek 119-76 galdu zuten. Denboraldia amaitzeko lau partidu falta direnean, guztiak irabaztera derrigortuta daude arrasatearrak; bat galtzeak kategoriari ia agur esatea suposatuko luke. Maila autonomikoan, Aloña Mendik 87-69 Buytragori irabazi zion zapatuan, Zubikoan. Lider jarraitzen dute oñatiarrek. Gipuzkoako senior mailan, Eskoriatzako neskek 50-33 galdu zuten Zurt tabernaren kontra. Bigarren daude sailkapenean.


JULIO CALLEJA

### Eskolarteko txapelketa Labegaraietan

Zapatuan Eskolarteko A mailako bigarren fasea jokatu zen Bergarako Labegaraietako kiroldegian. Gipuzkoa osotik etorritako gimnastak elkartu ziren; tartean, Arrasate Dragoi Gimnasia taldekoak eta Bergarako Ariznoa elkartekoak. Goizean, alebinak, infantilak eta kadeteak lehiatu ziren; eta arratsaldean, kadeteak ostera ere, gazteak eta seniorrak.

**HIRIGINTZA** > ERAIKUNTZA JASANGARRIA

# Mundu hobea eraikitzen

**ISAAK GALARRAGA**
Esperientzia zoragarria izan da, inoiz ez nuen imajinatuko hainbeste ikasiko nuenik han egon nintzen denboran, gure egunerokoan sortzen diren baino egora larriagoak optimismoz gainditzen irakatsi didate". Hitz horiekin hurbildu zitzaidan Enrike Ormazabal boluntarioa Nikaraguatik bueltan Osasun Zentro bat eraikitzen aritu ostean. Eibartar honek Mugarik Gabeko Arkitekto Teknikoen bitartez, Nikaraguako Gobernuz Kanpoko Erakunde batera jo zuen, bertan eraikuntza lanak egiteko asmoarekin.

Boluntario eredugarri horien lana merezi du kontatzea. "Herri askotan biztanleen %50 hemezortzi urtetik beherakoa da, eta txunditu ninduena, bereziki, izan zen ikustea han boluntario gisa aritzen zirela etxeak berregiten, saneamendu instalakuntzak jartzen eta ur horniketak egiten. Harrigarria zen, esaterako, nola hedatzen zuten plazako zola hormigoimakinarik gabe eta nola depuratzen zituzten urak, osasungarritasuna erdietsiz. Bi kooperatiba zituzten martxan herriko emakumeek: ogitegia eta ehundegia. Lorpen izugarria, lo egiteko babes gabe zeuden alboko herri batzuen aldean".

**BERTAKO EGOERARA EGOKITU**
Abentura hark maila pertsonalean espero baino gehiago eman zion Ormazabali, munduaren beste ikuspegi bat, errealitateari egokituagoa. Eraikuntza mundutik baino harago doa horrelakoetan egiten dena gizarte arloari begira. Ez da dirua eman edo eraikin bat eraikitzea; gehiago da. Hasteko, bertako egoerara egokitu beharra dago, han erabiltzen diren material eta prozeduretara moldatu; erakutsi, norberak irakasten duen bitartean, kontuan hartzen gizarteak duen garrantzia eremua birsortzerakoan.

Helburua da gizarte-errealitatean inplikatzea eta beharrak aztertzea irizpide on batekin norberaren ezagutzak aplikatzeko. Ur horniketaren faktura ordaintzerik ez badago, ekiditea berriz ere kutsatutako ur putzura jotzea. Horretarako, aukera ona da eraikuntza jasangarria: orain eguzki plaken bitartez atera daiteke ura putzu batetik eta, aldi berean, araztu. GKE batek patentatu du jada sistema hori eta martxan jartzen ari dira leku askotan.




Herri, hiri, komunitate..., hau da, mundu hbea eraiki daiteke. ARIZMENDI

PRAKTIKAK EGITEKO PROPOSAMEN BAT

Eraikuntzaren mundu honetan, ezinbestekoa da lekuko material eta baliabideetara egokitzea. Esaterako, leku batzuetan indartutako adobe sismo-iraunkorra erabili beharko da eta beste batzuetan banbuzko zementua. Beste gomendio bat izango da saihestea altzairua estaldurarik gabe uztea. Eta eraikinak tokiko sismologiaren arabera diseinatzea, azkenaldian Haitin, Txilen eta Indian izan diren modukoak gerta ez daitezen.

Lanbide Heziketako Eraikuntzako irakasle garen aldetik, garapen-bidean dauden herrialdeei begira ekarpen bat egin nahi dugu. Eusko Jaurlaritzaren eta Gobernuz Kanpoko Erakundeen laguntzarekin ahalbidetu nahi genuke herrialde horietan praktikak egiteko aukera gure ikasleentzat. Erasmus bekak dauden bezalaxe, beste beka batzuk bultzatuko balituzte, ziur gaude gure ikasleetako batzuek gustura hartuko luketela parte.

**Atal honetan...**
Astero-astero, Arizmendiren eskutik, intereseko gaiei buruzko aholkuak.

Arizmendi ikastola PRO 2.0 PROFESIONALAK
ARIZMENDI IKASTOLAREN LANBIDE HEZIKETA

**BERGARA**

# Lagunekin eta futbolean pozez gainezka zeuden gaztetxoak

**FUTBOLEAN POZIK** Futbola da gaztetxo gehienen kirol gustukoena eta horregatik pozik aritu ziren zapatuan

**LABEGARAIETAN** Gimnastika erritmikoa zela eta, kanpoko eremuan jokatu behar izan zuten geure gaztetxoek

**HIRU TXANDA** Guztira hamar taldek jokatu zuten zapatuko saioan eta hauek hiru txandatan banatu zituzten

NAROA ODRIOZOLA > BERGARA

Futbolarekin gozatu zuten gaztetxoek zapatuko Eskola Kirola saioan eta bertan, eguzkia lagunkide izan zuten; goizean goizetik jo zuten eguzki izpiek Labegaraietako futbol zelaian.

Zapatuko txandan Benjaminak izan ziren protagonistak eta printzipioz, kiroldegian jokatu behar zuten arren, gimnastika erritmikoa zela eta, kanpoko zelaian jokatu behar izan zuten. Baina hori ez zen arazoa izan gaztetxoendako, izan ere gogoz eta ilusioz aritu ziren futbolean. Antzuola B eta San Martin A taldeetako neska-mutilak izan ziren lehenengoak esnatzen, goizeko 09:30ean izan zuten txanda-eta. Hainbat guraso ere Labegaraietara hurbildu ziren geure gaztetxoei animuak emateko. Eta han aritu ziren gogoz umeei animatzen eta giroa alaitzen. Ume asko ez zeudenez, bosteko taldeetan jokatu zuten gaztetxoek.

Ordubete geroago, 10:30ean, San Martin D, Mariaren Lagundia B, Aranzadi 1 eta Aranzadi 2 taldeek jokatu zuten. Goizeko 11:30ean azken lau taldeen txanda iritsi zen; Antzuola C, San Martin B, Mariaren Lagundia A eta Antzuola D.

**IPINTZAN ERE FUTBOLA**

Benjaminek Labegaraietan futbolaz gozatzen zuten bitartean, Ipintzako futbol zelaia ere umez beterik zegoen. Izan ere, alebinek zazpiko futbolean aritu ziren bertan. Hauek, bi txandetan banatu zuten goiza.



N.O

**Antzuola B.** Zutik: Josune, Naiara, June, Euken eta Yerai Makurtuta: Goiuri, Irati, Eneko eta Xakil.




N.O.

**San Martin A.** Bittor, Asier, Yaya, Asad eta Ane.



N.O.

**Mariaren Lagundia B.** Zutik: Gaizka, Paul, Markel, Iulen eta Gonzalo. Makurtuta: Igor, Nora eta Aimar.




N.O.

**San Martin D.** Oier, Buba, Maite, Nerea eta Alazne.

GUSTUKO DUZUE FUTBOLA?



**Gonzalo**
Mariaren Lagundia B

Gonzalo ordubete lehenago iritsi zen Labegaraietara eta jolasteko irrikatzen zegoen. Esan zigunez, futbola oso gustuko du eta Messi da bere jokalaririk gustukoena. Saskibaloia ere gustatzen zaio Mariaren Lagundiako taldekideari.



**Ibon**
Aranzadi 1

Aranzadi 1 taldekoa da Ibon. Bere taldea jokatzen hasi aurretik izan ginen gaztetxoarekin. Adierazi zigunez, asko gustatzen zaio futbola. Gainera, Xabi Prieto Realeko jokalaria, bere jokalari gustukoena dela esan zigun.



**Nora**
Mariaren Lagundia B

Bere taldean asko zeuden eta batzuk jokatzen zuten bitartean besteek atseden hartzen aritu ziren. Orduan izan ginen Norarekin. Esan zigunez, asko gustatzen zaio futbola baina saskibaloia ere gogoko du Norak.




**Unax eta Julen**
Aranzadi 1

Futbolean jokatzen hasi aurretik bildu ginen Unaxekin eta Julenekin. Esan zigutenez, Unaxi futbola da gehien gustatzen zaion kirola. Hala ere, Julenek "futbola gustatzen zait baina nahiago dut pilotan jokatzea" esan zigun.



**Julen**
Mariaren Lagundia B

Jokatzen hasi baino minutu batzuk lehenago hitz egin genuen Julenekin eta adierazi zigunez, ez zaio futbola gehiegi gustatzen gaztetxoari. "Patinetearekin ibiltzea gustatzen zait" jakinarazi zigun Julenek.

Martxo amaieran eta apirilean jokatutako txapelketetatik –tartean Espainiakoa–, kategoria guztietan podiumera igota itzuli da 15 urteko lasterkaria Bergarara. Snowa egiten du Manex Asulak: freestyle, hain zuzen. Profesionalen maila erakutsita, 9 urterekin hasi zen lehiatzen Asula; eta ordutik hona, onenen mailan dabil. Datorren astean Madrilen lehiatuko da.

**Manex Asula** > Snow txapelduna

# "Olinpiar Jokoetara heldu edo Munduko Kopako zirkuituan sartu gurako nuke"



Manex Asula snow taularekin. A.E.

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

**La Molinan jokatutako Espainiako txapelketan bost domina eskuratu zituen Asulak, eta Kantabriako txapelketan urrezko domina. Datorren urtean, Europari begira jarriko da Asula; haren ametsa "profesional izatea" dela esan digu.**

**Lehenengo eta behin, zorionak, lortutako dominengatik!**
Eskerrik asko.

**Espero zenuen horrelako maila ematea Espainiako txapelketan?**
Aurrez jokatu izan dut Espainiako txapelketa, aurtengoa hirugarren urtea izan da. Banekien ze konpetentzia neukan, aurkariak ezagutzen nituen-eta. Ondo prestatuta joan nintzen, eta uste bezala egin nituen gauzak.

**Azal egiguzu zer den snow barruan egiten duzuna.**
Snowboard barruan freestyle egiten dut; hau da, jauziak eta barandak. Espainiako txapelketan, baina, bordercross ere egin nuen; hau da, freestyle eta eslaloma nahastuta. Zirkuitu baten saltoak egoten dira eta, gainera, eslaloma egin behar izaten da. Gainera, eslalom erraldoia ere egin nuen.

**Esan daiteke amaitu duzula denboraldia?**
Denboraldia ez da bukatzen. Orain pistetan amaitu dut, baina gero hasiko dut Madrilen pista estaliko denboraldia; eta udan Alpeetara joan naiz. Negu partean, berriz, hemengo mendietan ibiltzen gara.

**Hemen pistarik ez dagoenez, non entrenatzen zara?**
Aste bukaera guztietan joaten naiz mendira entrenatzera; neguan Andorrara eta udan Alpeetara.

**Nola hasi zinen snowa moduko kirol bat egiten?**
Hasiera baten, eskiatzen hasi nintzen; baina gero, anaia snowa egiten hasi zen eta nik ere probatzea erabaki nuen. Gustatu egin zitzaidan eta hemen jarraitzen dut.
Ez dakit zer gustatu zitzaidan… egia esan, mendia eta elurra asko gustatzen zaizkit.

**Etorkizun handia duzula esaten dute. Aurrera begira zer espero duzu?**
Honetaz bizi izan gurako nuke, baina zaila da. Ahal da, baina asko entrenatu behar da. Txapelketetan parte hartu eta irabazten denarekin bizi behar izaten da.
Olinpiar Jokoetara heldu edo Munduko Kopako zirkuituan sartu gurako nuke. Olinpiadetara federazioarekin joan behar da.

ESPAINIAKO TXAPELKETA

**"Hirugarren urtea zenez, ondo prestatuta joan nintzen eta uste bezala egin nituen gauzak"**

EUROPA

**"Datorren urteari begira babesleek gura dute Europara joatea hango maila ezagutzeko"**

**Snowa ezberdina da: federazioak beharrean markek eramaten dituzte txapelketak.**
Eskiarekin alderatuta ezberdina da snowa. Eskian federazioak eramaten du dena, baina snowean marka komertzialak dira dena mugitzen dutenak. Dirua jartzen dute, gazteak kanpora eraman, entrenatzailea jarri…

**Datorren urteari begira babesleek Europara eraman gura zaituzte.**
Aurten denboraldi guztia Vallnorden (Andorra) egin dut, babesleek ordainduta. Orain gura dutena da, ahal bada, Europara jauzia egitea.
Espainiako onenekin ibili naiz lehian, 18 edo 20 urtetik gorakoekin. Babesleek gura dute Europan hastea, zirkuitua ezagutzeko. Aurten bi proba egin ditut eta biak irabazi ditut. Baina ikusi gura dute Europako maila ez dela hemengoaren modukoa. Hemen ondo ibili arren, Europara joan eta han gaizki ibil naiteke.

**Zer aldatuko litzateke Europara joanez gero?**
Lehiatzera kanpora joan beharko nuke, baina astean zehar Bergaran, eskolan egongo nintzateke.

**Nola definituko zenuke zure burua snow-rider moduan?**
Ez dakit… oraindik gaztea naiz eta ikasteko asko daukat. Kirol honetan oso garrantzitsua da beldurrik ez izatea.
Baditut gustuko lasterkariak; horietako bat da, adibidez, Shaun White amerikarra. Asko gustatzen zait.


Manex Asula jauzi bat egiten. GOIENKARIA


Bergararrak izugarrizko abilezia du. GOIENKARIA

ESKIA

## Linazisoro, munduko onenen artean

Alex Asulaz gain, bada elurretako kirolean punta-puntan dabilen beste bergarar bat. Ibai Linazisoro gazteak –13 urte– eskia egiten du, eta, Asularen moduan, izugarrizko maila duela erakusten dabil behin eta berriro.

Horren adibide da joan den aste bukaeran Vancouverren jokatutako Whistler Cup txapelketa. Combirice modalitatean laugarren geratu zen; eta eslalom erraldoian 10. postuan. Hala, bi podiumetara igo zen; izan ere, lehenengo hamarrek jaso zituzten dominak.

Linazisorok Espainiako txapelketan lortu zuen Vancouverrera joateko txartela; La Molinatik hiru dominarekin itzuli zen Linazisoro: eslalom berezian eta superkonbinatuan lehenengo eta hirugarren egin zuen eslalom erraldoian. Hala, munduko onenekin izan da bergararra.

**PEDIATRIA** > ENURESIA

# Umeak 5 urte egin arte normala da gauean txiza egitea ohean

Adin horretan, umeak kontrolatu egin beharko lituzke esfinterrak

Egun, bi tratamendu daude: enuresiaren aurkako alarmak eta botikak



Egongelan, pixohial eta guzti. BOCANGEL

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE

Guraso askoren kezka izaten da umeari fardela noiz eta nola kendu. Uda aprobetxatzen dute askok horretarako, negua baino sasoi hobea dela uste dutelako, umeak arropa gutxiago duelako soinean eta, bustiz gero ere, udan ez delako hain arriskutsua bustita egotea.

**5 URTERA ARTE NORMALA**

Jabier Agirre pediatraren iritziz, 5 urte baino gutxiago duten umeetan normaltzat jo daiteke, estatistikoki behintzat, umeak ohean pixa egitea. 5 urteko muga aipatzen du Agirrek, "adin horretan umeak bere esfinterrak kontrolatu egin beharko lituzkeelako".

Esfinterrak kontrolatzeko prozesuan nerbio-sistema zentralaren garapenaz eta haurraren unean uneko heldutasunaz gain, garrantzi handikoak dira umeak biziko dituen sentsazioak, eboluzio-bide luze horretan umea prozesua erabat kontrolatzera iritsi arte: "15-18 hilabeteen inguruan umeak txiza oraindik "ez du kontrolatzen", baina nabaritzen du egin ondorengo sentsazioa; 18 hilabetetik aurrera, umea txiza egiteko sentsazioa nolabait aldez aurretik sentitzen hasiko da; 2 edo 2,5 urterekin, umea zertxobait kontrolatzen hasten da eta 3-4 urteren inguruan lortzen da esfinterren erabateko kontrola. Adin horretan, umeak txiza egiteko prozesua ez badu bere borondatez kontrolatzen, enuresia du".

**ENURESIAREN ARRAZOIAK**

Agirre pediatrak argi utzi gura du enuresia ez dela, berez, gaixotasun bat eta normalean ez dela egoten egoera azalduko lukeen aldibereko beste gaitzik ere. Hori gertatzeko arrazoiak izan daitezke: "Maskuri txikia edukitzea, bainugelaren erabileran umeak entrenamendu desegokia edukitzea, loaldi oso sakona izatea, faktore neurologikoak, fisiologikoak edo genetikoak edo umearentzat bereziki kritikoa den gertaeraren bat: anai-arrebaren bat jaiotzea, eskolaz edo bizilekuz aldatzea edo inguruan gertaera lazgarriren bat izatea, adibidez".

**TRATAMENDUA**

Normalean, eta 5-6 urte egin arte, ohea bustitzen duten umeek nahiko erraz jasan eta onartzen dute arazoa, Agirreren ustez. Baina adin horretatik aurrera, gaueko enuresiak irauten duen neurrian, umearen bizi-kalitatean eragin negatiboa duen faktore moduan hartzen da kontua, bai umearen aldetik eta baita gurasoen aldetik ere. Ume batzuek frakaso pertsonal moduan hartzen dute, eta etxetik kanpora lo egiteari uko egingo diote.

Enuresia denbora-epe laburrean konpontzen den arazoa da, tratamendu egokia jarraituz gero. "Gaur egun bi eratako tratamenduak daude aukeran, botikak eta enuresiaren kontrako alarmak", zehaztu du Agirre pediatrak.

**NERABEZAROA** > JARDUNALDIAK ARRASATEN

## Nerabeen inguruko hausnarketak

Lau saio antolatu dituzte maiatzerako eta izena emateko epea apirilaren 27ra arte dago zabalik

**UBANE MADERA** > ARRASATE

*Gure nerabeen inguruan hausnartzen* izeneko jardunaldiak antolatu ditu Arrasateko Udaleko Prebentzio Sailak laugarren aldiz. "Urtero sortu dira taldeak, batzuetan bat baino gehiago, gainera, eta beharra dagoela ikusi dugulako antolatu ditugu aurten ere", dio Maite Aizpirik, Arrasateko Udaleko Prebentzio teknikariak.

**LAU SAIO**

Jardunaldiak nerabezaroko adineko seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduta daude eta lau saio izango dira. "Lehenengoa orokorra izango da, nerabezaroaren ezaugarriak eta gaztetxoengan eta familia osoarengan ze aldaketa sortzen dituen landuko dugu; bigarrenean, seme-alabekin hobetu nola komunikatu ikusiko dugu; hirugarrenean, arauak eta mugak ezarri behar diren edo ez, noiz, nola eta ze ondoriorekin eztabaidatuko dugu; laugarrenean, drogei buruz hitz egingo dugu", azaldu du Aizpirik.

Maiatzean egingo dituzte jardunaldi horiek eta izena Gizarte Zerbitzuetako bulegoetan edo BAZen eman behar da, doan.



Gazte bat, Europako Parlamentuan. EUROPEAN PARLIAMENT

> OSASUNA

### Obesitatearen Klinika zabaldu dute Arrasaten

Eskualdeko ume lodi guztien kontrola eramaten dute Debagoieneko ospitaleko Obesitatearen Klinikan. Gurasoekin batera jaterakoan ohitura osasungarriak izan dezatela lortu nahi dute proiektu horrekin, baita ariketa fisikoa egin dezatela ere.

Gurasoekin biltzen hasi dira dagoeneko. Umeek egingo dute gurasoek esaten dietena. Batzar horietan ohitura osasungarrien inguruko aholkuak ematen dizkiete osasunaren profesionalek gurasoei, "kolesterola, diabetesa edo bestelako gaixotasunak ekidin daitezke-eta horrela", dio Jose Luis Angulok, Debagoieneko ospitaleko gerenteak.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**
guraso.com



**> KONTZERTUA**
Ismael Serrano etxean moduan egon zen Amaia Antzokian **> 30**



**> AURKEZPENA**
Show Business taldeak disko berria aurkeztu zuen zapatuan **> 30**



**> ANTZERKIA**
Elgetarrak barrez oheratu ziren egubakoitzean, *¡A gusssto!* antzezlanaz **> 31**



Lagunen gomendioak, hedabideetako aipamenak eta liburutegietago gidek laguntzen dute liburu aukeratzen.

TXOMIN MADINA

**IRAKURZALETASUNA** > LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA

# Urteotan, erabiltzaile gehiago liburutegietan

**UDAL LIBURUTEGIEN SAREA** Egun, sareko edozein liburutegiko liburuak har daitezke

**INFORMAZIO ZENTROAK** Liburuez gain, beste hainbat euskarri ere biltzen dira liburutegietan

**TXOMIN MADINA** > OÑATI

UNESCOk hala izendatuta, 1995az geroztik apirilaren 23a Liburuaren Nazioarteko Eguna da eta irakurzaletasuna sustatzea da egun honen helburu garrantzitsuenetakoa. Baina gaur egun, irakurtzen al dugu? Irakurtzekotan zer? Euskaraz ala erdaraz? Galdera horien guztien erantzunak, gure herrietako udal liburutegietan ezagutzen dituzte inon baino hobeto.

Antzuolako liburutegiko Lierni Legorbururen esanetan, irakurzaletasunak ez omen du aldaketa nabarmenik izan. "Ez da masiboa, ez lehen ezta orain ere, baina irakurri, irakurtzen da".

Adinak baina, badu zeresanik. Bergarako udal liburutegiko Mila Agirrezabalen ustez, gaztetxoen artean askok alde batera uzten dituzte liburuak; baina bada urte batzuk pasata,berriz ere zaletasunari ekiten dionik.

**ERABILTZAILE GEHIAGO**

Agirrezabalak kontatutakoren arabera, azken urteotan igo egin dena liburutegietako erabiltzaileen kopurua izan da. 'Euskadi osoko udal liburutegien sarea sortu zenetik, edozein liburutegitako aleak eskuratu daitezke, eta horren ondorioz jende gehiago animatzen da liburuak etxera eramatera". Bere esanetan teknologia berriek eta *Absysnet* izeneko programak gainera, liburuen katalogazioa aldatu du lana erraztuz. Gaur egun, ia 5.000 bazkide ditu Bergarako liburutegiak.

Antzuolan 800 dira bazkideak, eta bertan ere nabaritu dute jende gehiago joaten dela liburutegira. Horretan, zeresan handia izan omen du udal liburutegia Torresoroara eraman izanak, erdigunetik gertuago dago-eta.

Gehien irakurtzen diren liburuak *best-seller*-ak dira bi liburutegietako arduradunek esandakoaren arabera eta maileguak igo egiten dira eguraldi txarra egiten duenean edo opor garaietan.

Antzuolan, helduek gaztelaniazko liburuak euskarazkoak baino askoz gehiago hartzen dituzte gainera. Zerk bultzatuta aukeratzen ditu irakurleak liburuak? Mila Agirrezabalen ustez, argi dago: lagunen gomendioek, liburutegiek ateratzen dituzten gidek eta baita egunkari eta aldizkarietako aipamenek ere.

**TEKNOLOGIA BERRIAK**

Urteekin liburutegiak informazio zentro bihurtu dira Bergarako liburuzainaren iritziz: "Liburuez gain, Interneta, DVDak eta egunkariak ere baditugu, esaterako".

Teknologia berriek baina, badute beste eraginik. Antzuolako liburutegian esaterako, entziklopediak oso gutxi erabiltzen dira. "Jendeak Interneten bilatzen du informazioa, *wikipedian* eta halakoetan" azaldu digu Lierni Legorburuk.

Etorkizunean, zenbaiten iritziz liburu elektronikoek lekua kenduko diote paperari. Mila Agirrezabalek baina, ez ditu gauzak hain argi ikusten. "Liburu elektronikoek, beldurra baino, ezjakintasuna eragiten didate... Pantailara begira egotea baino, nahiago dut parkean egotea, liburua eskuartean dudala!".

## Debagoieneko egitaraua

**20, MARTITZENA**

**OÑATI**
**17:30 eta 19:30** Boniface ipuin kontalari afrikarra liburutegian.

**22, EGUENA**

**ARRASATE**
**19:00etan** Liburu elektronikoari buruzko mahai ingurua Kulturaten.

**ESKORIATZA**
**19:00** Karmele Jaio idazlearekin liburu solasaldia kultura etxean.

**OÑATI**
**20:00** Izen bereko liburuan oinarritutako *Revolutionary Road* pelikula, kultura etxean.

**23, EGUBAKOITZA**

**ESKORIATZA**
**18:00** Liburu azoka herriko plazan.

**ELGETA**
Arratsalde osoan zehar, kalera aterako dituzte liburutegiko liburu berriak.

**ARAMAIO**
Txirritolak antolatutako ipuin lehiaketaren sari banaketa egingo dute kultura etxean. ordua, zehazteke .

**24, ZAPATUA**

**ANTZUOLA**
**19:00** Patxiku Txerren ipuin sortaren ale berria aurkeztuko dute, Torresoroan.

**NON:** Arrasateko Amaia antzokian.
**EGUNA:** Egubakoitza, apirilak 16.
**ZENBAT JENDE:** 550 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Bi ordu eta erdi.



Ismael Serrano etxeko eserlekuan bezala, Fredi Marugan gitarra jotzaileak lagunduta. JULIO CALLEJA

**KONTZERTUA** > ISMAEL SERRANO

# Serrano, etxeko egongelan moduan

**TXOMIN MADINA** > ARRASATE

Duela hamahiru urte argitaratu zuen bere lehenengo diskoa Ismael Serranok eta hamahiru urtetan zehar belaunaldi oso bat markatu dute bere doinu tarteka triste, tarteka ironiko, tarteka aldarrikatzaileek.

Horiek guztiak eta gehiago entzun ahal izan ziren Sahararen alde Madrileko bakarlariak Arrasaten emandako kontzertuan; ametsen munduan murgiltzeko gonbitea egin zigun kontzertu hasieran, eta halaxe, bi ordu eta erdi pasatxoan zehar, bidelagun izan zuen betetzeko gutxi falta izan zitzaion Amaia Antzokia.

**LEHENGOAK ETA ORAINGOAK**

Agertokia ez zen agertoki izan, Serranoren etxeko egongela baizik eta bere etxebizitza-bloke irudikariko istorio surrealista eta hunkigarriak kontatzen zituen heinean, hasierako eta oraingo abestiak tartekatu zituen.

Argitaratu berri duen *Acuérdate de vivir* diskoko *Vuelvo* izan zen kontzertua ireki zuen kanta; ixtea berriz, *Papá cuéntame otra vez* doinu aski ezagunari egokitu zitzaion. Bien artean, hogei abesti baino gehiago; amodioaz eta munduari buruzko gogoeta pertsonalez; baita gaurkotasunari lotutakoak ere, sahararren eskubideen aldeko *Un hombre espera en el desierto* edo langabeei buruzko *Podría ser* esaterako.

**MALENKONIA UMORETSUA**

Nabaria zen Amaia antzokian bildutako jendea Serrano gosez zegoela: etengabeak izan ziren ikusleek eserlekuetatik madrildarrari egindako eskari eta komentarioak eta Serranok umorez erantzuten zien, umore onez eta ironiaz.

Bakarlaria baina, hankamotz egongo zen bere banda gabe; denen artean sortutako kimikak egin zuen berezia kontzertua. Agur esan aurretik eta jendeak hala eskatuta, bi aldiz itzuli behar izan ziren agertokira; kontzertu hasieran proposatutako bidaia motzegia izan zenaren seinale.

**IKUSLEEN IRITZIA**



**Ruben Larrañaga**
Zestoa

"Bere jarraitzaile sutsua ez naizen arren asko gustatzen zait Ismael Serrano. Gaurkoa nere lehenengo kontzertua izan da eta egia esan, portatu da Madrilekoa: kantu piloa jo ditu".



**Maria Jose Martinez**
Bergara

"Berehala pasa zait, bukaeran ze ordu zen esan didatenean ezin nuen sinetsi! Bere lehenengo diskoak gehiago entzuten nituen, baina Sahararen alde zela jakinda etortzera animatu gara".



**Maider Uribe**
Durango

"Asko gustatzen zait Serrano eta kontzertua primeran egon da. Bukaerako *Km 0* da gehien gustatu zaidan kantua, Bere abestiak apur bat motelak izan daitezke, baina letra itzela dute".



**Sergio Moreno**
Antzuola

"Eszenaratzea oso orijinala iruditu zait, eta gustatu zait abesti berriak zaharragoekin nahastu izana. Gainera, zuzeneko emanaldietan erakusten duen umore ona ere ekarri du Arrasatera".



**Esther Piñeiro**
Beasain

"Astebeteren buruan bere hiru kontzertutara joango naiz, baina gaurkoa sahararen alde zela ikusita, ezin hutsik egin! *No estarás sola* jo duen unea gustatu zait gehien ".

**MUSIKA** > DISKOA BERRIAREN AURKEZPENA

# Show Businessekin, rock gogorra nagusi gaztelekuan

## Talde oñatiarrak bere bigarren lana aurkeztu zuen, *Pozoindutako hitzak* izenekoa

**T. M.** > OÑATI

*Eter del demonio* izan zen lehen abisua, *Pozoindutako hitzak* aldiz, abisuaren konfirmazioa: rock gogorra, zaratatsua da Show Business talde oñatiarraren espezialitatea, eta argi geratu zen hori egubakoitzean herritarren artean egindako aurkezpenean.

Arratsaldean Ona tabernan han bildutako lagun eta zaleei aurkeztu ostean, azken hilabeteotako lanaren fruitua erakutsi zuten gauean gaztelekuan bildutako 150 ikusleren aurrean eskainitako kontzertuan.

**GONBIDATUAK ETA SUA**

Sharon Stoner talde gonbidatuak hasi zuen gaua Queens of the Stone Age boskotearen bertsioak joaz eta ondoren, gaueko protagonistak irten ziren, Show Business. Disko berriko abestiak jo zituzten gehienbat, baita aurreko laneko batzuk ere. Gluecifer talde norvegiarraren doinu baten bertsioa ere eskaini zuten.

Sorpresak iragarri zituzten egubakoitzerako kontzerturako, eta hitza bete zuten; une batez bi sugarrek gazteleku iluna argitu zuten-eta.




Boskote oñatiarra azken lana esku artean dutela. JULIO CALLEJA

**ANTZERKIA** > ¡A GUSSSSSTO!

# 'Eljeta' barrez oheratu zen egubakoitzean

**NON:** Elgetako Espaloia antzokian.
**EGUNA:** Egubakoitza, apirilak 16.
**ZENBAT JENDE:** 130 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ordu eta erdi.

**XABIER URTZELAI** > ELGETA

Egubakoitzean, *Goienkaria*-k aurreratu zigun Gorka Aginagaldek eta Gurutze Beitiak Elgetan egin beharreko antzezlanak ordubete iraungo zuela. Bada, ordu eta erdi egon ziren, entseatutakoa antzezten edo inprobisatzen, Aginagalderekin sekula ez dagoelako asmatzerik.

Eta saioak amaiera bat behar zuelako, Aginagalde beste ordubetez egongo litzatekeelako lasai, Patxi Arrigagorritxerriberrigoitiabeitaren paperean, barra ondoan zegoen Josuk beste kaña bat atera izan balio taula gainera. Eta ikusleek ere han jarraituko luketе, beste ordubetez.



Patxi eta Estela Maria Lourdes senar-emaztea, kuban zelan ezagutu ziren azaltzen. JULIO CALLEJA

**UMORE INTELIGENTEA...**

*¡A gussssto!* antzezlana Bergaran egingo dute hilaren 23an, eta bertara joan nahi duzuenok jakin, antzezlanean ez duzuela umore *inteligenterik* aurkituko, baldin eta inork halakorik nahi badu. Pertsonaiak –Patxi bilbotarra eta haren emazte Estela kubatarra– ez dira aparteko orijinalak –pertsonaia nagusiaren izenetik hasita–, eta bien arteko elkarrizketak ere ez dira landuenak –bikote ezkonduberri baten gorabeherak–, baina ez dute gehiago behar.

Izan ere, Aginagalde taula gainera igo orduko elgetar asko *entregatuta* zeuden, eta eskuartean zuen garagardoari lehenengo tragoa ematearekin batera hasi zen *txorradak* jarraian botatzen –baina onak–, dirua soberan duen Patxiren ahotan, eta lehenengo segundotik Espaloian zeuden guztiak, edo gehienak, barrez. Lerrook idazten dabilenaren ondoan zeuden biek nahikoa lan izan zuten 90 minutuz malkoak lehortzen. Bai, Aginagalde eta bere pertsonaia dira *izarra*, baina Gurutze Beitiak ondo jarraitzen dio, kubatar emakumearen papera oso ondo beteta. Nahikoa meritu du Beitiak, Aginagalderen txisteen, inprobisazioen eta bestelakoen aurrean eusten –beti ez zuen lortu, hura ere barrez lehertzen ibili zen-eta antzezlanean–. Hasieran bazirudien kubatarraren barreak antzeztutakoak zirela, baina ez, behin baino gehiagotan barreari ezin eutsi ibili zen Beitia, eta *rollo on* hori publikora ere iritsi egiten da.

**KUBARA JOAN, ETA...**

Istorioa aparteko orijinala ez dela diogu gurean asko direlako Kubara oporretan *soltero* joan eta handik bikotearekin itzuli direnak. Topiko asko batu ditzake Bilbo inguruko baserritar euskaldun aberatsak, eta denak batu, ehungatik biderkatu eta Arrigagorritxerriberrigoitiabeita da emaitza: Kuban zelan ezagutu ziren, Bilboko *Txapaetxen* (Guggenheim) egin zuten ezkontza... Euskal Herriko hiriburuetako jaietan bizi izandakoak edota aspaldiko lagunekin elkartu eta kirol arriskutsuak egitera joan zenekoa. Esandakoa, *gussssstora* ikusteko moduko lana.

**PINTURA** > ERAKUSKETA

# Askotariko estiloko lan ederrak zeuden atzo, Bergarako plazan

Beart elkarteko 30 kideen margolanak ikusteko aukera egon zen eguerdi partean; jende asko izan zen han 100 pintura inguru ikusten



San Martin plazara atera zituzten lanak Beartekoek. JULIO CALLEJA

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Atzo eguerdian Bergarako San Martin plazan bildutakoek gustura ikusi zituzten Bergarako Arte Elkarteko (Beart) kideek ikusgai jarri zituzten lanak. 30 lagunen margolanak zeuden han; tartean, Nekane Eskibelen paisaiak eta animaliak, Mari Karmen Laskurainen *Bodegoia* eta Juanjo Altunaren *Espazioaren eraikuntza* izeneko pintura. Horrez gain, Jon Balentziagaren *Bost anai ijito ikastolarako bidean* eskultura multzoa ere ikusgai zegoen seminarioko arkupetan.

Beart elkarteko presidente Bingen de Pedrok gogorarazi zuen hiru urte daramatzatela elkartearen eguna egiten, eta horren asmoa dela bergararrei ezagutaraztea bazkideen lana.

**ESKOLETAN MARGOTUTAKOA**

Horren esanetan, "ikasturtean, Rikardo Azkargortak ematen dituen eskoletan ikasleek egiten dituzten lanak ikus daitezke; baita elkartean bertan margotzen ez dutenen baina bazkide direnen beste artistenak ere". Gehienak bergararrak badira ere, eskualdeko beste hainbat herrietako kideak ere baditu elkarteak.

De Pedrok esan zuen elkartearen eguna indartu gura dutela eta hori dela-eta, bestelako ekimenak antolatzea pentsatuko dutela etorkizunean. Bitartean, atzoko erakusketa amaitu zenean, bazkideak Agorrosinera joan ziren bazkaltzera.

**MUSIKA** > KONTZERTUA BERGARAN

# Entzuleak gustura organo ikasleen emanaldiarekin

Santa Marinako sakristau etxea bete egin zen Azpeitiko eta Bergarako 14 bat ikasle entzuteko

**M.B.** > BERGARA

Emanaldi polita eskaini zuten zapatu eguerdian Bergarako eta Azpeitiko organo ikasleek, Bergarako Santa Marinako sakristau etxean. Azpeititik bospaseik eta Bergaratik zortzi lagunek eskainitako ordu eta erdiko kontzertuak oso harrera ona izan zuen. Bakoitzak musikari ezagunen pieza bana jo zuen; esaterako, Bach, Pursell, Couperin eta Messiaen konpositoreena. Amaitu aurretik, Arrasateko Anton Herrartek organorako konposatutako pieza jo zuen Aitor Oleak.

Aurtengo ikasturtean, Oleak gidatzen duen organo eskola jarri dute martxan. Gabonetan eskainitako emanaldiaren ostean, zapatukoa bigarrena zen. Hiruhilabete osoa eman dute horretarako entseatzen.



Santa Marinako sakristau etxean egin zuten kontzertua. JULIO CALLEJA

GURE TALDEAK...

## Governors

# "Taldearen heldutasun puntua nabaria da bigarren diskoan"

Governors arrasatearrek 'Frenetikodrome' izeneko bigarren diskoa kaleratu dute; lehenaren ñabardurekin eta ukitu berriekin

Haritz Harreguyrekin grabatu zuten, Usurbilen, eta maiatzaren 14an Arrasaten izango dira: zuzenekoa egingo dute 3 aretoan



Ezkerretik eskuinera, Pako, Jorge, Juan, Aitor eta *Heloy*. GORKA LASA OLIDEN

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

**Juan, Aitor, *Heloy*, Jorge eta Pako dira Governors taldeko kideak. *Frenetikodrome* izeneko diskoa kaleratu, eta bira egiten dihardute. Maiatzaren 14an helduko dira Arrasatera. Diskoaren eta biraren gainean egin dugu berba Juan Sangrerekin.**

**Gustura zaude diskoarekin?**

Bai. Kritika onak jaso ditugu, eta orain disfrutatzeko unea da.

**Lortu duzue dagoeneko lekua Euskal Herriko panoraman?**

Nik esango nuke baietz. Baina lekutxo hori topatzeko gakoa lan egitea da, eta, horren ondorioz, disko onak egitea. Gu, zorionez, hasi gara emaitzak jasotzen.

**Zer topatuko dute diskoa erosten dutenek?**

Aurreko diskoa ezagutzen dutenek hango ñabardurak antzemango dituzte; baina ukitu berriak sartu ditugu. Hiru urte daramatzagu elkarrekin, eta dagoeneko heldutasun puntu bat lortu dugula uste dugu. Diskoan igartzen da. Gitarra indartsuak, erritmo biziak eta ahots boteretsuak dira diskoaren muina.

Lehen diskoa atsegin dutenek bigarrena gusturago entzungo dute.

**Zeri buruz abesten duzue?**

Askotariko gaiak erabiltzen ditugu. Gai zehatz batzuen gainean gure ikuspuntua ematen dugu. Egunerokotasunean gertatzen direnak kontatzen ditugu.

**Grabazioa Haritz Harreguyrekin egin zenuten. Zer moduz?**

Oso ondo. Erraza da Haritzekin lan egitea. Gustatzen ez zaizkion gauzak esateko kontu handia izaten du.

Aspaldititik ezagutzen dut; hain zuzen ere, Ekonekin grabatu genuen lehen diskotik.

**Nolakoa da Governors doinua?**

Uf... lan hori kritikariei uzten diet. Musikari batendako oso zaila da etiketak ipintzea. Guk diogu melodia onekin rock indartsua egiten dugula, baina gero ikuspuntu ezberdinak daude. Rocka osotasunean hartzen dugu kantuak egiteko orduan.

**Nolakoak dira zuzenekoak?**

Maiatzaren 14an Arrasateko 3 aretoan egingo dugun zuzenekoan erakutsiko dugu oso indartsuak garela. Guk izerditan bukatzen dugu. Bestalde, esku artean dugun biran eszenografia askoz gehiago zainduko dugu.

**Zer sentsaziorekin gelditu zineten Hatortxu Rock-eko kantua egin ostean?**

Oso pozik gaude. Guretzat aukera paregabea izan zen jaialdiko hamargarren urteurreneko kantua eta bideoa egitea. Musikan aditu diren lagun askorekin egon ginen, eta bideo horrek aukera eman zigun gure musika ezagutarazteko. Esperientzia ona izan zen.

**Nola partekatu duzue diskoaren grabazioa Ekonen birarekin?**

Hasieran, estresatuta ibili nintzen. Ekonen birako azken hiru hilabeteetan hasi nintzen Governorsen diskorako kantuak egiten. Gainera, Ekonen agurreko kontzertua berezia izatea gura genuen, eta lan handia eman zigun. Baina gustura nago bi taldeek egindako bideekin.

**Izen konplikatua jarri diozue diskoari. Zergatik *Frenetikodrome*?**

Ekon eta Governors taldeen lana partekatu ditugun lau hilabeteak oso frenetikoak izan dira. *Frenetiko* hitzari pare bat buelta emanez izenburua aukeratu genuen diskoarendako. Izenburu konplikatua da, baina grabazioan eta biran bizi izandakoak islatzen ditu.




### Potentziaren eta melodiaren arteko lerroan

Arrasateko Juan Sangre abeslariak lortu du oraingoan Oihuka diskoetxeak gaur egun kaleratzen duen rock talde bakarrenetarikoa izatea. Diskoetxeko arduradunek ikusiko zuten Governors musika taldeak indarra eta melodia, alegia, biak, barra-barra dituela modu oso naturalean batuta.

Juan Sangrek geroago eta hobeto abesten du, eta gainera mikroaren aurrean erregistro gehiago hartzen ditu; gainera, musikari finez inguratu da. Are gehiago, estilo gehiago sartu dituzte Governorsen marka duten kantuetan: hard-rocka, stonerra, pop-a, high-energya, elektronika, funkya eta metal zipriztinak. Benetan ere oso dotorea geratu zaie lana!

**Iker Barandiaran.**


Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida
hemen bada
giro!
Arlutz taberna
TABERNA
ARLUTZ
Gustuko musika
Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34
Anduaga Jatetxea
Eguneko menua | Bokatak
Plater konbinatuak | Errazioak
Araba Ibilbidea 31, behea | Aretxabaleta | 943 79 96 54
Dorleta
BAR DORLETA
Loteria eta kinielak
DORLETA TABERNA
Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA
OTZETA JATETXEA
Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67
BASABE
Menuak eta afariak
Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 31 19
HIRUSTA JATETXEA
Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57
Matikua jatetxea
Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68
Gurea
TABERNA
Lotoak eta kinielak
Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64
IOSU
taberna
harategia
Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak
Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Ajo (Kantabria).** Bi solairuko etxea, altzariz honitua, salgai Ajon (Kantabria). 3 logela, 2 bainugela, jangela egongela, sukaldea eta komuna. Berogailua. Garajea. Lorategia. 222.000 euro. Harremanetan jartzeko: *m3rtx3@gmail.com* edo 629 41 23 19

**Aretxabaleta.** Etxebizitza salgai erdialdean. 72 metro koadro eraikigarri. Hiru logela, sukaldea, egongela, komun bat eta trastelekua. Prezio interesgarria. 659 64 67 38

**Arrasate.** San Andresen, Arrasate dorrean, 93 metro koadroko etxebizitza salgai. Dena kanpoaldera begira eta ondo kokatua. Lau logela, bi komun, sukaldea, egongela eta bakoitza 32 metro koadroko bi terraza. Eguzkitsua. 297.500 euro. Isabel. 690 07 85 83

**Atxondo.** Etxe ia berria salgai: sukaldea, 3 logela, egongela handia, komun bat eta balkoi handi bat. Oso eguzkitsua. Prezioa: 225.000 euro. Negoziagarria. Itxaso (648 28 53 59).

**Bergara.** Bidekurutzeta kalean etxebizitza salgai. Sukaldea, egongela, bi logela, bainugela eta trastelekua. Guztiz berritua. Aukera ona. 171.000 euro. Deitu 618 44 38 44 telefono zenbakira.

**Bermeo.** Barrua eraberritua, sartzeko moduan. Teilatua egiteko. Eusko Jaurlaritzak laguntzak ematen ditu berrikuntzak egiteko alde zaharrean dagoelako. Kontaktua Ainhoa. *ainhoafa@hispavista.com*

**Donostia.** Pisua salgai Antiguon. Eraberritua dago eta bere altzariekin saltzen da. 60m2 eta 2 logela. 608 01 96 93

**Durango.** Atiko bat salgai Durangoko alde zaharrean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Oso argitsua. Duela urtebete erabat berriztatua. Guztiz jantzia. Bizitzen jartzeko moduan. Etorri ikustera Ainara: 659 42 58 90.

**Durango.** Pisua salgai San Inazion. Sukaldea, 3 logela, 2 komun eta saloia. 70 m2-ko terraza indibiduala. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-hegoalde). Ikuspegi zoragarria (8.solairua). Garaje bikoitza (2 auto edo furgoneta). Trasteroarekin. Telefonoa: 657 70 57 62

**Etxarri-Aranatz.** Familiabakarra salgai Etxarri Aranazko Kalamurtxei kaleko 20. zenbakian. Praktikan berria eta jantzitakoa. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Bi balkoietatik mendia ikusten da. Autoa sartzeko bajera eta lorategia. Prezioa adosteko. Deitu 645 73 50 59 telefonora (Maite).

**Irurtzun.** Irurtzunen pisua salgai. 90 m2. Bajera, trastelekua, bi logela, sukaldea jantzita, egongela oso handia eta komuna. Deitu 608 87 20 79ra.

**Luz Saint Sauveur.** Luz-etik 500 metrora, 58 metro koadroko duplexa salgai. 2 logela, komuna, sukaldea, antena parabolikoa. Dena oso egoera onean eta jantzita. 635 74 62 26

**Oñati.** 67 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Bi logela, komuna, jangela-egongela, eta suklade guztiz hornitua. 264.000 euro. 35 metro koadroko garaje eta trastelekua, aukerakoak. 66.000 euro. 659 72 06 64

**Oñati.** 70 metro koadroko etxebizitza salgai Kale Zaharrean. Bi logela, sukaldea, komuna, egongela eta trastelekua argi patioan. Igogailuarekin. Jantzia. 240.000 euro. 652 70 12 49

**Oñati.** Lope Agirre kalean 110 metro koadroko duplexa salgai. Lau logela, egongela, sukaldea eta bi komun. 659 53 87 62

**Ordizia.** Kanpoaldera ematen duen 80m2ko etxebizitza. 3 gela, egongela, sukalde handia, bainugela, balkoia eta berogailua ditu, garaje itxia aukeran. 186.313 euro. Bizitzen jartzeko moduan. Deitu:676 03 06 13

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

*sailkatuak@goiena.com*
*www.goiena.net-en*

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.**
**- LOKALA SALDU/ALOKATU.**
**- GARAJEA SALDU/ALOKATU.**
**- MOTORRA SALDU/ALOKATU.**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 20 € (BEZ BARNE).**

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**
**MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 21 € (+BEZ).**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 28 € (+BEZ).**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Tolosa.** (Voith-Gorostidi)Eraikuntza berriko etxebizitza salgai (75m2). Promotorearen bidez zuzeneko salmenta. Sukalde eta 2 komun ekipatuak, egongela handia eta 2 logela. Argitsua. Komuna izan ezik, beste guztia kanpora begira. 2 terraza eder eta baita trasteroa ere. Premiazko salmenta. 658 72 92 88

**Zumarraga.** 60 m$^2$ko etxebizitza salgai. Bi logela, egongela handia, sukaldea eta komuna. Oso eguzkitsua. 162.300 euro. 638 33 03 01

### 102. EROSI

**Arrasate.** Egurrezko egitura eta gutxienez 3 logela dituen etxea erosi nahi dugu. 610 67 12 22.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Peñiscola (Valentzia).** Pisuak alokatzen dira Peñiscolan. Interesatuak deitu telefono honetara: 686 56 20 18

**Aretxabaleta.** Etxebizitza ematen da errentan. 3 logela, sukaldea, komuna eta egongela. Interesatua egonez gero deitu zenbaki honetara: 652 76 79 57

**Atxondo.** Hiru logelatako pisu berria alokagai. 680 42 77 02 edo 94 622 50 78.

**Bergara.** Erdialdean etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela. Deitu 664 73 49 60 telefono zenbakira.

**Lapuebla de Labarca.** Etxebizitza ematen da errentan uztailerako. Sukaldea, egongela zabala, bi logela, bi komun eta 11,5 metro koadroko terraza. Komunitateko igerilekua eta berdegunea. 653 71 89 11

**Oropesa (Castellon).** Apartamendua alokatzen da Oropesan kokaleku aparta: hondartzatik eta Balneariotik gertu. Bi logela, bi bainugela, sukaldea, balkoia, eta egongela. Garaje eta igerilekuarekin. 619 18 77 99

**Conil (Cadiz).** Conilen apartamentua alokatzen da garajea eta igerilekua dauka. 653 73 34 57

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Txikia eta erdigunean. 943 79 60 89

**Bergara.** Bi logelako etxebizitza behar du errentan familia batek. 650 62 12 94

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Deitu 609 38 86 47 telefono zenbakira.

**Eskoriatza.** HUHEZIko hiru neska datorren ikasturterako etxebizitza bila ari gara. Deitu 635 20 25 76 telefonora

**Oiartzun.** Alokatzeko baserri baten bila gabiltza Oarsoaldean. Baratza lantzeko asmoz eta aukeran, oilotegi bat antolatzeko asmoarekin. Harremanetarako: *irekiateak@hotmail.com*

**Zarautz.** Pertsona garbia eta arduratsua, 34 urte, zarauztarra, errentan etxebizitza bat hartuko nuke Zarautzen. Udan etxea uzteko arazorik ez dut. Hileko 500 euro ordaintzeko prest nago (kopuruaz eta baldintzez hitz egin genezake). Ez dut erretzen. Ez dut animaliarik. Apartamentua txikia izatea ez zait axola. Berria bada hobe. Internet badu hobe. Deitu 688 69 63 79 telefono zenbakira.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela bat ematen da errentan unibertsitatetik gertu. Deitu 655 71 77 85 edo 943 79 56 64 telefono zenbakietara.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Deitu 619 78 63 41 zenbakira.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Deitu 619 78 63 41 telefonora.

**Arrasate.** Logela bat ematen da errentan unibertsitatetik gertu. 655 71 77 85 edo 943 79 56 64.

**Debagoiena.** Laguna behar dut etxea osatzeko. 639 94 48 65

**Donostia.** Donostian Amara auzoan gela bat alokatzen da neska batentzat pisu konpartitu batean. Berdin ikasle edo langile. Telefonoa: 943 65 16 92, hartu ezean mezua utzi

**Durango.** Gela bat alokagai Durangon. 630 76 18 28.

**Elorrio.** Pisua osatzeko laguna behar da. Lagun bat behar da pisua osatzeko. 686 99 16 31

**Oñati.** Logela ematen da errentan. Harremanetan jartzeko, deitu telefonora: 688 61 57 79

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bermeo.** Garajea salgai Kafe Antzokipean. Oinezkoen sarreratik oso gertu eta maniobra egiteko ezinobea. Prezio paregabean.

**Donostia.** Antiguon, Errotaburu. Garaje itxia salgai. Kotxea sartzeko eta trastero moduan erabil daiteke. Prezioa: 24.000 Telefonoa: 608 01 96 93

### 203. ERRENTAN EMAN

**Durango.** Garajea alokagai lehen solairuan. Sarbide egokia. Harremanetan jartzeko, deitu telefono zenbakietara: 94 681 77 15 edo 94 620 24 43

### 204. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Bidebarrieta kalean garaje bat hartuko nuke errentan. Harremanetan jartzeko, deitu telefono zenbakietara: 600 02 32 19 edo 646 69 77 77.

**Oñati.** Garaje itxia behar dut Kale Zaharrean edo aldameneko kaleren batean. Deitu 647 24 40 54 zenbakira.

**Oñati.** Garajea hartuko nuke errentan San Lorentzon. Deitu 665 73 51 59 telefonora.

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Durango.** 72 metro karratu. Lanean hasteko prest. Ekipamendu guztiekin. Egoera onean. Harremanetan jartzeko, deitu telefonora: 659 97 25 01

**Urretxu.** Pabilioi industriala alokatu edo saltzen da. Urretxuko Mugitegi industrialdean. 200 metro karratuko azalera eta 8 metroko altuera. Prezio onean. Harremanetan jartzeko, deitu telefonora: 657 77 97 52

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**ARETXABALETA**

**Ile-apaintzaile laguntzailea behar da.**

**943 79 83 64**

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakumea gertu sukaldean lagundu, plantxa edo garbiketak egiteko,orduka. Harremanetan jartzeko, deitu telefonora: 647 16 40 49

**Arrasate.** Zerbitzari edo garbiketa lanak egingo nituzke. Harremanetan jartzeko, deitu telefonora: 619 78 63 41

**Arrasate.** Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat. Harremanetan jartzeko, deitu telefonora: 618 00 08 28

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu orduka lan egiteko: nagusi edo umeak zaindu, plantxa eta abar. Harremanetan jartzeko, deitu telefonora: 699 54 17 27

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientziaduena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... rratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 606 42 64 14

**Azpeitia.** Azpeitian edo inguruan, denda, kafetegia... edo beste lanen baterako eskaintzen naiz. Harremanetan jartzeko, deitu 647 08 10 15 telefono zenbakira eta Ainhoarengatik galdetu.

**Azpeitia.** Esperientziadun neska eskaintzen da herrietako festetan lan egiteko uda osoan zehar. Interesatuak deitu 647 82 58 52 telefonora konpromisorik gabe. Eskerrik asko.

**Bergara.** Neska bergararra etxeko lanak egiteko gertu. Harremanetan jartzeko, deitu telefono zenbakietara 943 76 28 12 edo 943 76 29 52

**Bergara.** Garbiketarako eta pertsona edadetuen zaintza lanetarako gertu egongo nintzateke. Orduka egingo nuke, eta etxe barruan lan egiteko ez dut arazorik. 686 76 22 96

**Bergara.** Neska gaztea umeak zaintzeko edo tabernan lan egiteko gertu. Harremanetan jartzeko, deitu telefonora: 600 24 58 27

**Bergara.** Emakumea pertsonak zaindu edo garbitasun lanak egiteko gertu. Geriatria eta elikagaien manipulazioan titulduna. Harremanetan jartzeko, deitu telefonora: 650 62 12 94

**Bergara.** Nagusiak zaindu edo garbitasun lanak egiteko gertu goizez eta gauez. Harremanetan jartzeko, deitu telefonora: 609 23 39 52

**Bergara.** Emakumea eskaintzen da zaintza lanetarako, orduka lan egiteko. Esperientziaduna. Rakel. Harremanetan jartzeko, deitu telefonora: 663 65 76 85

**Bergara.** Neska eskaintzen da zaintza lanetarako, orduka lan egiteko. Esperientziaduna. Iris. Harremanetan jartzeko, deitu telefonora: 677 73 79 59

**Bermeo.** Bermeo inguruan, lan bila nabil, umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Deitu telefono honetara 655 62 00 87 edo 655 62 00 88 edo idatzi posta elektroniko honetara: *joseaitor@kzgunea.net*

**Berriz.** Berrizen pertsona bat behar da goizetan umeak eskolara eraman eta etxeko lanak egiteko. Harremanetan jartzeko deitu: 615 74 40 67.

**Debagoiena.** Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. Harremanetan jartzeko, deitu telefonora: 637 18 07 23

**Debagoiena.** Emakumea gertu ospitalean dauden gaixo zein nagusi edo umeak zaintzeko. Deitu gauetan, mesedez. Harremanetan jartzeko, deitu telefonora: 943 71 46 24

**Debagoiena.** 50 urteko neska eskoriatzarra, euskalduna, gertu nagusi zein umeak zaintzeko edo elkarte eta abarrak garbitzeko. Egun guztian zehar prest. Harremanetan jartzeko, deitu: 607 68 58 76

**Debagoiena.** Gaztea gertu eraikuntzan edo bestelako arlo batean lan egiteko. Harremanetan jartzeko, deitu: 696 48 42 50

**Debagoiena.** Mutil gaztea harategian lan egiteko gertu. Zatikatze lanetan trebea. Gerardo. Harremanetan jartzeko, deitu: 610 91 33 40 edo 943 53 36 72

**Debagoiena.** Emakume euskalduna prest edozein lanetarako. Edozein ordutegi. Harremanetan jartzeko: 646 87 36 57

**Debagoiena.** Emakumea gertu lan egiteko. Harremanetan jartzeko, deitu: 606 64 16 09

**Debagoiena.** Tabernari, zerbitzari edo argiketari lan egiteko gertu nago. Wilton.Harremanetan jartzeko: 638 54 96 72

**Debagoiena.** Autocad programarekin marrazkiak eta diseinu mekaniko zein arkitektonikoak egiten ditut. Harremanetan jartzeko, deitu telefonora: 696 38 10 07

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. 689 93 58 41


KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Ozaeta 105 m$^2$. Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Artekale 60 m$^2$. Berritua. 153.258 €.
- Zubiaurre 67 m$^2$. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m$^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 m$^2$. Berritua.
- Osintxu. 70 m$^2$. Igogailuarekin.
- Bidekurutzeta 103 m$^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m$^2$. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m$^2$. Prezio ona.
- San Pedro 65 m$^2$. Ganbararekin.
- Osintxu 64 m$^2$. Berritua. 114.192 €.
- Bidekurutzeta 65 m$^2$. Berritua. Igogailuarekin.
- Zubiaurre 58 m$^2$. Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m$^2$. Oso ondo.
- Osintxu 62 m$^2$. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m$^2$. Berritua.
- Zubiaurre 52 m$^2$. Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, 196.200€.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua.
  **PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m$^2$. Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 m$^2$. Berritua.
- San Roke 80 m$^2$. 80 m$^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m$^2$. Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.



DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 m$^2$, garajearekin.
- Aranerreka, 80 m$^2$, oso ondo.
- Matxiategi, 88 m$^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m$^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m$^2$, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m$^2$, ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m$^2$, berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m$^2$, berria, garajea eta trastelekua.
- Martoko, 87 m$^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m$^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 m$^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m$^2$ oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,99 m$^2$ + ganbara, berritzeko.
- Zabalotegi 80 m$^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m$^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artekale, 81 m$^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m$^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 m$^2$, oso ondo.
- Zubieta, 125 m$^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m$^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m$^2$.
- San Antonio, 65 m$^2$, eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m$^2$, eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.
- Basarte. 69 m$^2$. Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m$^2$. Apartamentua. Oso ondo.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m$^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 m$^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m$^2$, ia berria.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea gertu sukaldari laguntzaile lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko. 697 93 73 32

**Debagoiena.** Lan bila nabil, pertsona edadetuen zainketarako edo atarien garbiketa lanak egiteko.Gainera, peoi lanposturako ere gertu nago. Enpresen segurtasun zerbitzuetan lan egiteko gertu. 666 08 58 49

**Debagoiena.** Mutil gaztea mendian lan egin edo banatzaile lanak egiteko gertu. Harremanetan jartzeko, deitu telefonora: 606 78 35 94

**Debagoiena.** Arrasate edo Bergara. Bertako emakume arduratsua gertu sukaldari laguntzaile lan egiteko. Esperientziarekin. Menuetan, plater konbinatuetan eta pintxoetan. 637 18 07 23

**Debagoiena.** Mutil gaztea tabernan lan egiteko gertu. 689 93 58 41

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edota zerbitzari lanak egiteko. Zerbitzari titulazioa daukat. Esperientziarekin eta informe onekin. Harremanetan jartzeko, deitu telefonora: 671 35 22 60

**Debagoiena.** Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Esperientziaduna. 689 88 97 66

**Debagoiena.** Sei urteko esperientzia dut nagusiak zaintzen eta etxean lo egiten edo egunean zehar lan egingo nuke. Bestelako lanetarako ere gertu nengoke. 638 89 98 60

**Debagoiena.** Debagoieneko esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko. Harremanetan jartzeko, deitu telefonora: 637 18 07 23

**Debagoiena.** Umeak arratsaldez zaintzeko prest nago. Esperientzia handiko neska. Bergara edo Arrasaten. Harremanetan jartzeko: 650 23 34 98

**Debagoiena.** Debagoieneko esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko eta ospitalean gauak egiteko. Harremanetan jartzeko, deitu telefonora: 637 18 07 23

**Debagoiena.** Debagoieneko esperientziadun neska nagusiak zaintzeko gertu. 637 18 07 23

**Durangaldea.** Neska gaztea haurrak zaintzeko edota pisu edo ofizinak garbitzeko eskaintzen da arratsaldetan, ekainetik aurrera goizez ere bai. Interesatuak deitu: 615 71 62 32

**Durango.** Emakume arduratsua umeak eta edadetuak zaintzeko prest. Harremanetan jartzeko, deitu: 688 67 65 88

**Goierri.** Etxeko lanak egitea gustukoa duen eta esperientzia duen Goierriko neska bat naiz. Harremanetan jartzeko deitu telefonora: 660 02 85 52

**Hernani.** Haur Hezkuntzan diplomatua naiz. 3 urte eta erdi eman ditut haurreskoletan lanean eta EGA titulua ere badaukat. Haurrak zaintzeko prest nago, Hernanin edo inguruko herrietan. Haurrak asko gustatzen zaizkit eta erreferentzia onak dauzkat. Harremanetan jartzeko, deitu telefonora: 628 33 31 56

**Lizartza.** Adinekopertsonak zaintzeko emakume euskalduna eskaintzen da, gidatzeko baimena duena. Harremanetarako deitu sakeleko telefono zenbaki honetara: 699 97 26 99

**Oñati.** Neska euskalduna etxebizitzak eta atarteak garbitzeko gertu. Harremanetan jartzeko, deitu: 635 70 07 92

**Ondarroa.** Neska gaztea haurrak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko eskaintzen da arratsaldetan. Harremanetan jartzeko, deitu telefonora: 615 71 62 32

**Ordizia.** Neska behar da Ordiziko kafetegi batean lan egiteko, udako hilabeteetan eta urte guztiko larunbat arratsaldeetan. Deitu 630 4 09 60 edo 679 35 57 91 telefonoetara.

**Sakana.** Emakume bat Sakanan lan egiteko prest. Autoa dut. Deitu 660 01 44 83 telefonora.

**Sakana.** Plantxa, mekanografiako lanak, garbiketa eta helduen zainketa. Harremanetan jartzeko, deitu telefonora: 628 27 11 85 Maribel.

**Sakana.** Astean zehar eta larunbatetan haurrak zainduko nituzke, arratsaldez. Deitu 679 07 36 55 telefonora.

**Sakana.** Haurrak eta edadetuak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest nagoen emakumea naiz. Deitu 651 47 27 21 telefono zenbakira.

**Urretxu.** Asteburuetan etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia handia eta erreferentzia onak ditut. Harremanetan jartzeko, deitu telefonora: 638 75 51 29 (Celina).

**Zarautz.** Gizon euskalduna gertu lanerako, asteburuetan ere lan egiteko prest edozein lan: jardinero, mahastietan eta abar. Harremanetan jartzeko, deitu telefonora: 658 73 08 08

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Kimikako eskolak emango dizkidan norbait behar dut. Batxilergoko azken ikasturtea. Harremanetan jartzeko, deitu telefonora: 649 07 97 90.

**Euskara eskolak Bergaran.** Neska euskalduna behar da 5 urteko umeari euskara eskolak emateko Bergaran. Harremanetan jartzeko, deitu telefonora: 606 46 71 41.

### 502. EMAN

**Arabierako** eskolak ematen ditut. Deitu 654 98 69 14 telefono zenbakira.

**Azpeitia.** Euskarako klase partikularrak ematen ditut, besteak beste, behar hauek dituztenentzat: EGA edo hizkuntza-eskakizun bat atera nahi duenari, bere euskara maila idatzia edo ahozkoa hobetu nahi duenari, eskolan euskara ikasgaia gainditzeko arazoak dituenari, eta abar. Magisteritza daukat eta euskaltegiko irakaslea naiz. Gipuzkoa osoan emateko prest. Kontaktua, Mikel. Harremanetan jartzeko, deitu telefonora: 645 71 85 78

**Bergara.** Kimikan lizentziatu batek matematika, fisika eta kimika eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Irakaskuntzan esperientzia daukat. Deitu 648 06 79 85 telefono zenbakira.

**Ingelesa Debagoienean.** Ingeleseko elkarrizketa lantzeko eskola partikularrak ematen ditut Debagoienean. Harremanetan jartzeko, deitu telefono zenbakietara: 654 94 87 26 edo654 94 87 26.

**Durango.** 4. mailako Telekomunikazio Ingeniaritzako ikasle euskalduna Batxilergoko eta DBHko klaseak Durangon emateko prest. Espezialitatea matematika klaseetan.

**Lasarte-Oria.** Klase partikularrak ematen ditut goizetan Lasarte inguruan. Euskal Filologianlizentziatua naiz eta esperientzia daukat. Maila guztiak. Harremanetan jartzeko, deitu telefonora: 635 75 25 67

**Sakana.** LH magisteritza irakaslea, astez haurrak zaintzeko edota eskola partikularrak emateko prest. Harremanetan jartzeko, deitu telefonora: 676 22 20 52.

**Ingeleseko klaseak.** Ingeleseko klaseak ematen dira Gipuzkoa mailan. Taldeka edo bakarka. Maila ezberdinak. Irakasle tituluduna. Telefonoa:664 16 02 68 eta posta elektronikoa *continental56@hotmail.com*

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Audia3 2.0 TDI 140 zaldikoa.** Audi A3 2.0 TDI 140 zaldikoa. 5 urte eta 88.000km dauzka. Gris ilun kolorekoa. 5 ate eta serieko ekipamendua dauka. 15.000 euro. Telefonoak: 646 30 52 55 edo 943 76 52 63

**Expert furgoneta salgai.** Expert furgoneta salgai, 3 urte, Bluetooth, airbag bikoitza,gris metaliko, 110 zaldi potentzia.Harremanetarako telefono zenbakia: 688 68 97 82

**Opel zafira 1.9 cdti salgai.** Opel zafira 1.9 cdti salgai. Interesatuak deitu telefono honetara: 615 00 97 23

**Kawasaki Z750 salgai.** Kawasaki Z750 salgai 2007koa. Kolore beltza. Oso egoera onean. 12.000 kilometro. Azterketadenak etxe ofizialean eginak. 5.500 euro. Harremanetan jartzeko deitu 660 33 77 16.

**Renault Megane autoa salgai.** 1.900 Turbo Diesela. 100ZP. 2000koa. Aire girotua, beira-igogailu elektrikoak, ixte-sistema zentralizatua, direkzio lagundua, ispilu automatikoak eta ABSa. 2.200 euro. 635 74 27 43

**Seat Leon salgai.** Seat Leon FR salgai.2005eko ekainekoa. 57.000 kilometro. Eguzki-sabai elektrikoa. Serieko aurrealdeko 2 fokoak eta 4 llantak opari. Beti garajean eta oso ondo zaindua. Extra ugarirekin. 11.200 euro.Interesatuek ondo telefonora deitu: 657 73 37 20 edo 646 32 36 83.

**Suzuki Samurai 1.3 autoa salgai.** Beste gurpil joko bat opari. Egoera onean. Deitu telefono zenbakira honetara: 615 72 72 41

**Volkswagen multivan confortlive 2,5 tdi.** Volkswagen multivan confortlive 2,5 TDI 130 zaldi potentzia. 3 urte eta 60.000 kilometro, guztiz prestatua eta berria bezala dago.Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 620 58 86 33

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Indioilar beltzak.** 8 hilabeteko Indioilar beltzak saltzen dira, arrautzak jartzeko prest. Bikotea 70 euro. Aretxabaletan. Deitu 690 65 39 37 edo 943 79 96 55 telefono zenbakietara.

**Setter txakurkumeak salgai.** Setter txakurkumeak saltzen ditut. .Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 628 61 02 91

**Txakurra salgai.** Mastin arrazakoa. Gaztea. .Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara:943 79 62 63

**Zaldi hispaniar-arabiarra salgai.** Monturakoa. 7 urte. Zuria. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 616 00 34 29

### 703. EMAN

**Arratoi txakurra oparitzen da.** Hiru hilabete ditu. Arra beltza. Interesa baduzu deitu telefono zenbaki honetara: 686 07 61 60

**Txakurkumea opari.** Bi hilabeteko txakurkume emea oparitzen da. Polit-polita. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 650 81 83 12.

### 704. BESTELAKOAK

**Txakurra aurkitu da Bergaran.** Txakur txikitxoa aurkitu dut Bergarako Bolu kalean. Emea. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara:620 61 91 34

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Akuarioa** salgai. 100 litrokoa. Osagarriekin. 50 euro. Deitu 616 22 49 64 zenbakira.

**Armairua** salgai. 2 metroko zabalera. Ate japoniarrekin. 200 euro. Interesa izanez gero deitu telefono zenbaki honetara:635 74 27 43.

**Bikotearentzako logela salgai.** Bikotearentzat logela saltzen da. Telefonora: 615 71 24 96 (Maite)

**Bizikleta.** Specialized Enduro. 2005ekoa. L neurrikoa. Shimano SLX atzeko kanbioa, berria. Rock Shox Ario, blokeoarekin. Amortiguadore berriak. Egoera onean. 700 euro. Deitu telefono zenbaki honetara: 695 75 54 00.

**Bozgorailuak salgai.** Kenwood markako bozgorailuak saltzen dira, 200 wattiokoak, 50 eurotan. ¡Telefonoa: 690 90 44 74

**Boxeo zakua** salgai. 638 89 78 76

**Ereño.** Lursail eraikigarria salgai Urdaibain Ereño inguruan (3.000 m2 inguru). Telefonoa: 619 02 75 38 (19:00etatik aurrera)

**Gurpilak.** Ksyrium elite gurpilak salgai Shimanorentzako, kamera eta kubiertarekin; 600 km inguru dituzte. 325 euro. Horiekin batera Selle Italia Thoork jarlekua opari. Deitu 626 89 15 94 zenbakira.

**Karro denda.** Inesca Dakota modeloa. 2001ekoa, 5 lagunentzako, bi logela eta erdian pasillo bat dago. Hozkailua karroan eramateko prestaturik dago. Aramaio. Joserra. Deitu 685 72 05 90 edo 655 71 33 76 telefono zenbakietara.

**Karro-denda.** Inesca Dakota modeloa. 2001ekoa, 5 lagunentzako, bi logela eta erdian pasillo bat dago. Hozkailua karroan eramateko prestaturik dago. Nahi izanez gero posta elektronikoz argazkiak bidal daitezke. Aramaio. Deitu 685 72 05 90 edo 655 71 33 76 telefono zenbakietara eta Joserrarengatik galdetu.

**Koltxoia** salgai. 90 cm. Berria. Prezioa adostuko da. Interesatua egonez gero deitu zenbaki honetara: 670 08 12 16.

**Korrika egiteko zinta** elektrikoa salgai. Segurtasun gelditzea dauka. Tolesgarria. Erroberak eta pantailadun konputagailua. 400 euro. Deitu 619 52 98 04 telefono zenbakietara.

**Kotxerako 9-18 kg. bitarteko aulkia.** Kotxerako aulkia 9-18 kg bitarteko aulkia. 40 euro. Lourdes. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 699 45 43 69

**Llantak eta gurpilak.** Elurretarako. 155 zabaleran, 13 erradioko M+S 78Q neurriko bi gurpil eta llantak. 50 euro. Aramaio. Joserra. 685 72 05 90 edo 655 71 33 76.

**Mahai luzagarria** salgai. 2 metrokoa. Egur eta kristalezkoa. 100 euro. Deitu telefono zenbaki honetara: 635 74 27 43.

**Mobil Homea** salgai Auritz Berrin (Burguete). 6 pertsonendako modukoa. Deitu 661 93 29 56 edo 661 93 29 57 telefono zenbakietara.

**Narruzko txupa beltza salgai.** M neurrikoa. Ia berria (bi aldiz jantzia). 35 euro. .Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 626 28 68 13

**Ohea salgai.** XIX. mendeko ohe berritua salgai. Deitu 943 76 49 32 edo 650 01 01 83 telefono zenbakira.

**Ordenagailua.** Windows XP SP3 sistema eragilea. 1GB RAM. Antibirusa jarrita eta Microsoft Office 2003 osorik, legala. Deitu 616 48 98 14 edo 943 79 23 69 telefono zenbakietara.

**SP LTD** gorria salgai. Zorroarekin. Ia berria. 250 euro (negoziagarriak). Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 675 12 80 43.

**Sofa.** Hiru eserlekuko sofa salgai. Chaisselonge-arekin. 272 cm luze. 350 euro. Arrasaten. Deitu telefono zenbaki honetara: 626 71 98 17.

**Paseatzeko aulkia.** Paseatzeko aulkia. Ez dago asko erabilita. 50 euro. Lourdes. Harremanetan jartzeko telefonoa: 699 45 43 69.

**Telebista eta ordenagailu pantaila** salgai. 23 hazbetekoak. Ia berriak. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 79 60 89.

**Telebista.** 28 hazbetekoa. Bi urte dauzka. 150 euro. .Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 616 22 49 64.

**Tronpeta** salgai. .Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara:638 89 78 76

### 802. EROSI

**Hormigoi-makina** erosiko nuke. 628 61 02 91.

**Karabana.** Bigarren eskuko karabana erosiko nuke, 5-6 pertsonarentzakoa. 649 00 53 42.

**Urrezko txanponak** erosiko nituzke. Deitu telefono zenbaki honetara: 656 75 76 98.

**Zilarrezko** mahai-tresnak erosiko nituzke. Deitu telefono zenbaki honetara: 656 75 76 98.

**Pastoralen liburuxkak erosten ditut.** Honako pastoralen liburuxka hauek erosiko ditut: *Atharratze Jauregian* (1997) eta *Santa Kruz* (1992). Prezioa adostuko dugu. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 656 72 68 70

### 804. HARTU

**Koltxoia** hartuko nuke. Neurria: 150. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara:658 18 94 32.

### 806. GALDU

**Bergara.** Umeen bataiorako kapela galdu genuen apirilaren 8an, Barrenkale eta Ortuibar pasealekuaren artean. Norbaitek jaso badu, mesedez deitu dezala. 943 76 53 55.

**Canon argazki kamera** galdu nuen zapatu gauean, martxoaren 20an, Arrasaten. Aitor. Deitu telefono zenbaki honetara: 617 30 02 06.

**Poltsa eta poltsikoko telefonoa** galdu ditut Bergarako Zabalotegi aretoan. 653 73 77 86.

**Txamarra bakeroa.** 3 hilabeteko haurraren txamarra bakeroa galdu nuen Oñatin asteartean, apirilak 6, Errekalde eta San Lorentzo artean. Aurkituz gero, deitu 695 75 93 77 telefono zenbakira.

**Giltza Etxarri Aranatzen.** Koloredun giltza bat opatu da Etxarriko igerilekuetarako bidean. Galdu duena Beleixe irratitik pasa dadila.

### 807. AURKITU

**Bergara.** Pen Drivea aurkitu nuen domekan, martxoaren 28an. Argazkiak eta musika artxiboak dauzka. Galdu baduzu deitu zenbaki honetara: 675 70 10 63.

**Giltza Etxarri Aranazen.** Koloredun giltza bat topatu da Etxarriko igerilekuetarako bidean. Galdu duena Beleixe irratitik pasa dadila.

## 9/ HARREMANAK

### 902. HARREMANAK

**Mutil bila.** 38 urteko mutila, 35-40 urteko mutil (ez gizon) bila. Konplexurik gabea eta mendia, bizikleta zein afariak gustuko dituena aurkitzea gustatuko litzaidake. Bidali SMS bat zenbaki honetara: 699 89 58 38.

**Neska bila.** Kaixo! Donostiako 32 urteko mutil ezkondua naiz eta egoera berdinean dagoen emakume bila nabil konplizitaterako. Interesatuek idatzi *mgpelmaz@gmail.com* helbidera

### 904. BESTELAKOAK

**Donostia Alde Zaharreko Joaldunak.** Zuk ere joaldun izan nahi duzu? Etorri gure entseguetara eta proba egin! Edo zure herriko jai edo ikuskizunetan gu han egotea nahi baduzu ere bai. *aldezaharrekojoaldunak@gmail.com*

**Sasimusika:** Ezohiko musika sorkuntzarako sare ireki bat: Inprobisaketa oinarrizko adierazpide eta sorbide bezala. Teknika maila eskakizunik ez. Adin mugarik ez. Instrumentuak: Ideien eta soinuaren edozein bitarteko. Informazio askoz gehiago: *sasimusika.ning.com*

Ikolan lanaldi
ALDIBATEKO LANA • TRABAJO TEMPORAL
ALDIBATEKO LANA
Senpere,7 (zentru komertziala) • BEASAIN
943-16 20 48
Ikusi lan eskaintzak:
w w w . i k o l a n a l d i . c o m

Etxebila higiezinak
943-44 61 66
ALOKAIRUAN
AMARA 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. 900€
AMARA Morlans. 2 logela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. 850€
GROS Ramon Mª Lili. 2 logela, sukaldea, 2 bainugela. 1.000€
ERRONDO GAINA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Bista ederrak. 850€
GROS Iparragirre. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 750€
SALMENTAN
ALDE ZAHARRA 2Logela, egongela, sukaldea, bainugela. 42.800.000 pta
GROS Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berritua. Kalera begira. 38.500.000 pta
AMARA 2 logela, egongela bikoitza, sukaldea, bainugela. Berritua. 40.400.000 pta
AMARA Atikoa. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 39.950.000 pta
AMARA 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. 48.500.000 pta
AMARA 3 logela, egongela, sukaldea, 2bainugela. Balkoia. Berritua. 54.600.000 pta
ANTIGUO 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. Terraza. 61.800.000 pta
ERDIALDEA 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 20m2 tako terraza. Txokoa. Berritua. 57.800.000 pta
INTXAURRONDO 2 logela, egongela bikoitza, sukaldea, bainugela. 38.900.000 pta
MARTUTENE Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. 22.000.000 pta
BIDEBIETA 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. 29.400.000 pta
BUENABISTA Apartamentu polita. Kanpora begira. Trastelekua. 35.000.000 pta
ALTZA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. Trastelekua. 25.950.000 pta
ALTZA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. Berritua. 29.990.000 pta
TRINTXERPE 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berritua. Igogailua. 34.400.000 pta
ASTIGARRAGA 2 logela, egongela, sukaldea, Bainugela. Kanpora begira. 28.990.000 pta
LEZO 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. 30.990.000 pta
ERRENTERIA Polita. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. 35.900.000 pta
PASAI DONIBANE 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berritua. 25.990.000 pta
IRUN 3 solairutako etxe bifamiliarra. 2 Garaje. Terraza. 65.000.000 pta
www.etxebila.net
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

Salbide
SALBIDE
Higiezinen zerbitzuak
Bizkaia kalea, 6 • 20800 Zarautz
Telef.: 943-01 07 00 • Mug.: 665- 71 85 96
w w w . i n m o s a l b i d e . c o m
Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. 10 metro koadroko trastelekuarekin. Oso prezio onean. 33.000.000 pezeta.
Zarautz. Azken Portu. Logela bateko etxe handia. Altua eta bista ederrak. Trastelekua eta igogailua. 47.500.000 pezeta.
Zarautz. Erdigunean. 3 logelako etxebizitza. Laugarren solairua igogailurik gabe. 10 metro koadroko terraza politarekin. Oso prezio onean. 43.000.000 pezeta.
Zarautz. Vista Alegren. 2 logela ditu. Terraza handia. Eguzkitsua. 49.500.000 pezeta.
Zarautz. Erdigunean. 2 logelako etxebizitza. Igogailua eta trasteleku txiki batekin. Oso egoera onean. 41.000.000 pezeta.
Zestoa. Arroa behea. 2 logelako etxebizitza. 28.000.000 pezeta.
Getaria. Herrerieta kalea. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onean. 44.500.000 pezeta.

ARAMBURU
Etxeen administrazioa
Higiezinen kudeaketa
943-65 17 13 / 677-46 09 16
ALOKATZEKO
• Etxeak Amarotzen, San Frantziskon eta Iurren, Tolosan.
• Garajeak San Frantziskon, Araba etorb, Iurren eta Batxiler Zaldibian, erosteko aukerarekin.
SALGAI
• Etxebizitza. Larramendin, igogailuarekin, eraikuntza berria. San Frantziskon ere aukera onak.
• Etxebizitza. Eraberritzeko Iruran. 20 milioi pta.
• Etxebizitza. Iruran. Sartzeko moduan. Eskaintza ona.
• Garaje itxiak eta irekiak Amarotzen Tolosan, Ibarra eta Iruran.
• Lokala. Gorriti plazan,Tolosan.

AMEZKETA

288.485 €
Eraikuntza berria, bifamiliarra lursail handiarekin
inmoetxesagasti
SALMETAK - EROSKETAK- ALOKAIRUAK- ASEGURUAK
Nagusia, 13 - 20150 Villabona
Tel.:943-69 68 56 / Faxa.:943-69 68 57
etxesagasti@euskalnet.net • www.inmoetxesagasti.com

SEAT Audi VW
autos ARTIBAI s.l.
SEAT - AUDI - VOLKSWAGEN
BMW 328 C.I FULL EQUIPE
11.000 euro
SEAT LEON 2000 TDI 140 zaldi
2007ko modeloa. Grisa / 12.900 euro
SEAT LEON TDI 105 ZALDI BERRIA
16.300 euro / Finantziazioa %0 interesa.
SEAT LEON 2000 TDI 140 zaldi
2007ko modeloa. Zilar kolorekoa / 12.500 euro
MIKROCAR KARNETIK GABEKO AUTOA
1.500 euro
Erdotza auzoa z/g • Markina-Xemein
Telf.: 94-616 77 14 / Faxa.: 94-616 77 69

## gazte zerbitzua

### LANKIDETZA

**> Euskadiko gazteak lankidetzan.** Garapen bidean dauden herrialdeetan udan egonaldiak egiteko programa. 20-31 urte arteko gazteei zuzendutako deialdia. Izena emateko epea apirilaren 7tik maiatzaren 6ra arte *www.gazteaukera.net* webgunean.

### BEKAK

**> Giza Eskubideak.** Nazio Batuetako Giza Eskubideen Goi Komisionatua. Praktikak egiteko deialdia. Epea: apirilaren 30a.

**> Udako Ikastaroak.** UPV/EHU. XXIX. Uda Ikastaroetan parte hartzeko bekak. Epea: apirilaren 23a.

### LANA

**> Begiraleak.** Txatxilipurdi euskara elkartea. Uztailean antolatzen dituen udaleku ireki eta itxietan lan egiteko begiraleak behar dira. Baldintzak: 18 urte edo gehiago izatea eta euskara jakitea. Epea: maiatzaren 7a. *haurrak@txatxilipurdi.com*.

**> Begiraleak.** Aramaioko Udala. Uztailean antolatuko diren udalekuetan lan egiteko. Baldintzak: 17 urte beteta izatea. Baloratuko da: begirale titulua, magisteritza ikasketak, EGA titulua, umeekin esperientzia, Aramaiokoa izatea. Epea: maiatzaren 7a.

**> Sorosleak.** Gurutze Gorria. Zarauzko Gurutze Gorriak hondartzetan eta igerilekuetan lan egiteko lan poltsa ireki du. Epea: maiatzaren 2a.

### LEHIAKETAK

**> Kartela.** Donostia Kultura Festak Donostiako jaien Kartel Lehiaketa antolatu du. Epea: apirilak 31.

### AGENDA

**> Zinema.** Donostiako Udala. Giza Eskubideen VIII. Zinemaldian gazte epaimahaikide izateko aukera. Epea: apirilaren 8a.

gazte informazioa

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 25 20 65.
*gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net*

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Irizar Jauregia • 943 77 91 57
*gzerbitzua@euskalnet.net*

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
*gazteinformazioa@oinati.net*

## astea GOITBn

### Astelehena, 19



**> Gipuzkoako Klasikoa, 'Harmailatik'-en**
**22:15**

Zapatuan jokatu zen Klasikoaz hitz egingo digu Xabier Urtzelaik. Gazte mailako lasterketa garrantzitsuena da txirrindularitzan.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Onein.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Erloklip.
**15:45** Ikusmira.
**16:15** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Kalekantoi.
**18:15** Sakonduz.
**18:45** Ilunpean.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kiroleroak.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Gipuzkoakultura.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Martitzena, 20



**> Ander Artzak aurkezlea, 'Ilunpean' saioan**
**22:15**

Ander Artzak ETB-ko kazetaria eta *Gaur egun*-eko asteburuetako aurkezlea izango du gonbidatu Jon Berezibarrek.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ur eta lur.
**14:15** On Ein.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Ikusten.
**16:20** Itsasoari begira.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Kurtulzulo.
**18:15** Gipuzkoakultura.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Harmailatik.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean.
**23:00** 28 Klip.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 21



**> Oihan Vegak musikalaz berba egingo du**
**19:45, 21:15**

*Olentzero & Co!* musikala prestatu duten Oihan Vega eta Valen Moñux izango dira *Goiena magazinea*-ko platoan.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ikusmira.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Kiroleroak.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:35** Harmailatik.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Ilunpean.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Erreportajea.
**23:00** Kalekantoi
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Eguena, 22



**> Erromatarren aztarnak Oiasso museoan**
**22:15**

Oiasso museoaz (argazkian) jardungo du *Gipuzkoakultura* saioak. Eresbil musika artxiboa ere gerturatuko digu.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ikusten.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Gipuzkoa kultura.
**15:45** Erloklip.
**16:15** Ikusmira.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Kalekantoi.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Euskaldunak hizketan.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Gipuzkoakultura.
**22:45** Kulturzulo.
**23:20** Itsasoari begira
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 23



**> Liburuaren Eguna, 'Goiena magazinea'-n**
**19:45, 21:15**

Liburuaren Nazioarteko Eguna dela aprobetxatuz, irakurzaletasunaren gainean jardungo du *Goiena magazinea*-k.

**13:15** Marrazki bizidunak .
**13:45** Euskaldunak hizketan.
**14:15** On ein.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ur eta Lur.
**15:45** Itsasoari begira.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Gipuzkoa kultura.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Sakonduz.
**22:45** Kiroleroak.
**23:15** Kalekantoi.
23:45 Magazinea
**00:45** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**> Su ta Garren kontzerturako eta Aukeran dantza taldearen saiorako txartelak**

Su ta Gar taldeak 3 aretoan kontzertua egingo du egubakoitzean. Bestalde, Edu Muruamendiaraz bergararrak zuzentzen duen Aukeran dantza taldeak *Gernika* delako emanaldia egingo du domekan. Bada, bi emanaldiotarako sarrerak ere eskuratu ahal izango dituzue: 943 25 05 05 / *irratia@goiena.com.*

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa (GOIENKARIArekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com edo goiena.net* atarian, irratiko bloga)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## telealbisteak

### GOIENA TELEBISTA

# Elgetan, egunotan zabalduko da GOITB

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE

Goiena Telebista eta Itelazpi erakundea Aste Santuan lanean ibili ziren emisioa Bergaratik Elgetara eramateko, eta oraingo astean ipiniko du Goienak Elgetan emisioa hasteko behar den ekipoa. Seinale digitala dagoeneko eramanda dago Elgetara, eta orain, etxeetara hedatzea besterik ez da geratzen. Elgetara zabaltzearekin batera, gainera, ahalbidetu egingo da seinalea Antzuolara eramatea; hori ere laster egingo du Goiena Telebistak. Aramaion ere digitalean emititzen hasiko da. Asmoa da oraingo hilean barrena Debagoien osoan bere seinale digitala helaraztea. 52. kanalean dago GOITB.

### EITB

# Euskara gehiago Iparraldean EITBn

**L.K.** > BERGARA

EITBk informazio zabalagoa emango du Iparraldean aurrerantzean, erakundeak joan den eguaztenean jakinarazi zuenaren arabera. Hain zuzen ere, eguneroko *Iparraldearen Orena* saioaz gainera, zapatuero ordu erdiko saioa eskainiko ETBren 1. katean. Informazio zabalagoa emango du Iparraldean eta euskarazko eduki gehiago eskainiko ditu.

Bestalde, orain arte EITBrako Baionako ordezkaritzan lan egiten zuten bost kazetariek hantxe jarraituko dute.

Bilboko K2000 enpresak kudeatuko du EITBko Iparraldeko ordezkaritza hemendik aurrera.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

**GAU ASTRONOMIKOA APIRILAREN 23AN**
Jarduera hau Donostian ospatuko den Olatu Talka Jaialdiko egitarauaren barne dago



**22:00-23:30** Teleastronomia saioa: Kanariar irletako teleskopioekin konekxioa internet bidez. Jendeak, behatoki batetan nola lan egiten duten ikusi ahal izango du eta baita astrofisikoei zuzenean galderak egin ere.

**23:30-01:00** Behaketa publikoa, museoko kanpoaldean. Aranzadiko kideek ekarritako teleskopioetatik zuzenean behatzeko aukera. Planetariumeko zuzeneko saioa: "Unibertsoko altxorrak" Planisferio baten erabileraren azalpena.

**Sarrera librea.** Programazioa eguraldiaren arabera alda daiteke.
**Garraio publikoa:** Donostiako udalak ohiko zerbitzuez gain, autobus bat jarri du saioa bukatzean hirira jeisteko.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
*www.miramon.org*

**Ordutegia**
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera 10:00-19:00.
Asteburu eta jai-egunetan 11:00-19:00.

kutxa | www.kutxasocial.net

## zorion agurrak



BERGARA
**Ane Garcia Perez**
Apirilaren 11n, 3 urte. Urte askotarako, sorgintxo, aiton-amona, izeba-osaba eta lehengusu Anderren partetik. Patxo potolo bat, prexioxa!



ELGETA
**Alaine G. Arrizabalaga**
Apirilaren 11n, 31 urte. Zorionak! Zure kuadrillakoen partetik, jarrai gogor, pertsona ikusgarria zera-eta. Muxuk.



ARETXABALETA
**Nora Ugalde**
Apirilaren 1ean, 8 urte. Zorionak eta patxo handi bat familiakoen partetik.



ARETXABALETA
**Irati, Paule eta Elene Mendieta**
Iratik apirilaren 7an, 6 urte eta Paule eta Elenek apirilaren 19an, 3 urte. Zorionak, printzesak eta patxo handi-handia!



ARAMAIO
**Nahia eta Erik Garcia**
Apirilaren 12an, Nahiak 3 urte. Zorionak gure etxeko sorgintxoari eta baita tio Eriki, familia guztiaren, eta batez ere, Maddiren partetik. Ondo pasatu zuen eguna.



OÑATI
**Iban Perez**
Apirilaren13an, 24 urte. Zorionak, Piban! Ondo-ondo pasatu eguna , eta urte askotarako. Muxu handi-handi bat etxekoen, eta bereziki, Marioren partetik.



OÑATI
**Edurne Aranburu**
Apirilaren 13an, urtebetetzea. Zorionak, ama! Ondo pasatu eguna. Etxekoen partetik.



ESKORIATZA
**Maider Zabala Candelario**
Apirilaren 13an, 11 urte. Zorionak, Maider, Maite eta Dorletaren partetik. Oso-oso ondo pasatu urtiak, *wapisima*. Muxu bat.



ARRASATE
**Amets Ormaetxea Ezpeleta**
Apirilaren 14an, 13 urte. Zorionak, Amets, etxeko guztien partetik! Bereziki Ibaien partetik.



OÑATI
**Alaitz Lazkanoiturburu Palacios**
Apirilaren 14an, 10 urte. Gure neska maitagarriarentzat zorionak eta bi muxu handi-handiak etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
**Maren Oroiz Antoñana**
Apirilaren 15ean, urtebete. Zorionak, txiki, zure lehenengo urtebetetzean! Muxu handi bat etxekoen partetik!



DEBAGOIENA
**Antonio Aretxaga**
Apirilaren 14an, 80 urte. Familiaren partetik, bihotz-bihotzez, pasauta egon arren, zorionak zure urtebetetzean.



BERGARA
**Jesus Frago**
Apirilaren 15ean, 72 urte. Zorionak, aitita, eta muxu handia etxeko guztien partetik.



ARRASATE
**Aisha Luengo Elkoro**
Apirilaren 15ean, urtebete. Zorionak, sorgintxo! Muxu handi bat etxeko guztien eta, bereziki, Eder eta Lukenen partetik!



BERGARA
**Oihan Leston**
Apirilaren 16an, urtebete. Zorionak etxekoen izenean, bereziki Marenen partetik.



ESKORIATZA
**Galder Isasmendi Martinez**
Apirilaren 16an, 8 urte. Zorionak, potxolo. Txokolatezko patxo handi bat amatxo, aitatxo eta Amaiurren partetik.



ESKORIATZA
**Itziar Bengoa Muxika**
Apirilaren 16an, 3 urte. Zorionak, Itziar! Patxo handi bana etxeko danon partetik. Pa!



ARRASATE
**Ander Etxabe Uribarren**
Apirilaren 17an, 5 urte. Zorionak gure piratari! Bost urte zoragarri gure artean. Muxu handi bat etxekoen partetik, maitia!



BERGARA
**Julen Unamuno Marzan**
Apirilaren 17an, urtebete. Zorionak, Julen, zure lehenengo urtebetetzean aitatxo, amatxo eta aitonamonen partetik. Muxu bat.



ARETXABALETA
**Kaiet Pando Egurza**
Apirilaren 18an, 3 urte. Zorionak, txiki, eta patxo handi bat aita, ama eta Markelen partetik.



OÑATI
**Nahia Guridi Olalde**
Apirilaren 18an, urtebete. Zorionak, sorgintxo! Muxu pila bat aitatxo eta amatxoren partetik.



ARRASATE
**Lide Azkarate Ojanguren**
Apirilaren 18an, 4 urte. Zorionak! Amatxo, aitatxo, Garazi, lehengusu Oihan eta Hegoi, amama eta aitaitak, tia eta tioak.



OÑATI
**Beñat Murguzur Lizarralde**
Apirilaren 19an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta muxu pila bat etxekuen, eta bereziki Aitorren partetik.



ARETXABALETA
**Jon Ugalde**
Apirilaren 19an, 6 urte. Zorionak eta patxo handi bat familiakoen partetik.



OÑATI
**Julen Uriarte Agirre**
Apirilaren 19an, 6 urte. Zorionak, Julen! Oso ondo pasatu zure urtebetetzean. Muxu handi bat amama Tere, amama Arantxa eta Mikelen partetik.



ANTZUOLA
**Unai Eraña Belategi**
Apirilaren 20an, 2 urte. Zorionak, potxolo! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxito potolo bat amatxo eta aitatxoren partetik.



BERGARA
**Alaine Egizabal**
Apirilaren 20an, 6 urte. Zorionak! Musu handi bat!



BERGARA
**Beñat Familiar**
Apirilaren 20an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Patxo potolopotolo bat Asier, Malen, Olaia, aitatxo eta amatxoren partetik.



BERGARA
**Iban Da Silva**
Apirilaren 21ean. Zorionak eta urte askotarako kuñau! Jada zahartzen hasi ga e! Patxo handi bat Shere, Yasmina, Marisa, Paco eta Uxueren partetik!



ESKORIATZA
**Alazne Migelez**
Apirilaren 21ean, 12 urte. Zorionak, Alazne! 12 urte jada! Manoliren etxekoen partetik, besarkada handi bat.



OÑATI
**Ane Isasisasmendi Egaña**
Apirilaren 22an, 3 urte. Zorionak etxeko eta familixako danan partetik. Pa handi bat.



OÑATI
**Ander Murillo Astigarraga, Josu eta Jokin Moreno Astigarraga**
Josu eta Jokinek apirilaren 21ean, 12 urte eta Anderrek apirilaren 22an, 9 urte. Zorionak! Familia guztiaren partetik, Ondo pasatu zuen egunean eta muxu handi bat.



ARRASATE
**Ibai Zulueta**
Apirilaren 22an, 4 urte. Zorionak, artista! Oso-oso ondo pasatu zure egunean. Oihan, Haizea eta amatxo.



BERGARA
**Olaitz Agirrezabal**
Apirilaren22 6 urte. Zorionak, Edurne zuri! Ondo pasau zure eguna. Etxekoen partetik eta bereziki Urkoren partetik.



BERGARA
**Lorea Urzelai Frago**
Apirilaren 23an, 3 urte. Zorionak, Lorea, eta muxu handi bat etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
**Aimar Azpitarte Zubizarreta**
Apirilaren 23an, urtebetetzea. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure bigarren urtebetetzien. Muxu potolo bat etxeko guztion partetik. Mua!



BERGARA
**Ane eta Leire MartÌnez Odriozola**
Apirilaren 23an, 5 urte. Zorionak eta laztan goxo bat etxekoen partetik.

## kuxkuxeroa



Edu Mendibil

# Mailot horia Lokatzakoendako

Txirrindulari belaunaldi ezberdinak igarotzen dira eta haiek errepide bazterrean jarraitzen dute, laguntzen, ziklismoa bultzatzen. ***Kaxeta*, Pello, Jose Mari Gabilondo, Laspiur, Urrupain** edo **Miguel Angeli** buruz nabil. Beteranoenak aipatzearren. Izan ere, askoz gehiago dira **Lokatzaren** inguruan dabiltzanak; lehertuta doan txirrindulariari hauspoa ematen; babesleak topatzen; helmuga behar bezala antolatzen; behar den guztia lotzen. Zapatuan 60 bat lagun ibili ziren Gipuzkoako Klasikoa antolatzen, eta berriro ere dena primeran atera zen. Eguzkiak ere lagundu zuen.

Errepidetik kanpokoak ere garrantzia dauka. **Pertxan** ederto bazkaldu zuten txirrindulari, zuzendari eta laguntzaileek. **Jose Mari Perezek** eta **Elias Letek** txirrindulariendako menua gertatu behar izan zuten 90 lagun ingururendako; espagetiak eta oilaskoa. **Mario Gonzalez** irabazleari on egin zion bazkariak, dudarik ez. **Carlos Jimenezi** azken jaitsiera trabatu zitzaion eta taldekako sailkapenarekin konformatu behar izan zen. **Mikel Roldan** aretxabaletarra (1996ko irabazlea) ere izan zen sari banaketan; bizikleta utzi eta motorrean ibili nahiago du orain... Beste batzuek betiko tokian jarraitzen dute. Zorionak!

> **"Zapatuan 60 bat lagun ibili ziren Gipuzkoako Klasikoa antolatzen; dena primeran atera zen"**

## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
**943 25 05 05**
Edo zatoz ordezkaritza batera.

**Eskelaren prezioa: 120 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **160** euro.



ESKELA

## Ane Telleria Iñurritegi

Oñatin hil zen 2005eko apirilaren 20an, 22 urte zituela.



*Egia da, heriotzaren lumak*
*lurreratzen gaituenean ere,*
*bizitzak berdintsu iraunen duela munduan.*
*Baña zu joanda biharamunean eguzkiak*
*argituko du oraindik?*
*Zenuen bizipoza da orain*
*gure biharamunak argitzen dituena.*

Zure kuadrillia.
Oñatin, 2010eko apirilaren 19an.

## asteburuko albuma



**Goiz dibertigarria** Zapatu goizean nagiak kendu eta Arkupeko liburutegira hurbildu ziren neska-mutikoek ederki asko pasa zuten Parisen jaio baina egun Etxalarren bizi den Ixabel Millet ipuin kontalariak kontatutako istorioekin. *Martin Txiki eta Marizikin* ipuin herrikoiak izan ziren Milletek Aretxabaletara ekarri zituenak. Bertan bildutako haur zein gurasoek adi-adi jarraitu zituzten Milleten hitzak, eta honek, ipuinak kontatu ez ezik, antzeztu ere egin zuen txotxongiloen laguntzarekin.

## jaiotakoak



**June Contreras Arakistain**
Bergara > 3,450 kilo. Martxoaren 30an. Gurasoak: Mireia (Aretxabaleta) eta Fernando (Aramaio). Argazkian, June jaioberria.



**Eva Cabezudo Rios**
Aretxabaleta > 3,650 kilo. Apirilaren 9an. Gurasoak: Ana Belen (Aretxabaleta) eta Fernando (Basauri). Argazkian, Eva jaioberria,



**Maren eta Eider Calzada Guridi**
Oñati > 2,520 kilo eta 2,570. Apirilaren 9an. Gurasoak: Lorea (Oñati) eta Roberto (Oñati). Argazkian, Maren eta Eider jaioberriak.



**June Tena Pedrosa**
Arrasate > 3,040 kilo. Apirilaren 11n. Gurasoak: Sara (Arrasate) eta Antonio (Arrasate). Argazkian, June jaioberria.



**Egoitz Ibabe Santamaria**
Aretxabaleta > 3,480 kilo. Apirilaren 15an. Gurasoak: Aitziber (Aretxabaleta) eta Ander (Aramaio). Argazkian, Egoitz jaioberria.



**Oihan Buquete Maniega**
Oñati > 3,360 kilo. Apirilaren 14an. Gurasoak: Naiara(Arrasate) eta Andoni (Oñati). Argazkian,Oihan jaioberria aitaren besoetan.

BABESLEA



IKUSI MAKUSI
Umeen paradisua
Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

ASTELEHENEKO Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.net
2010-04-19

Ander Artzak > Kazetaria

# "Nire bideoak behin eta berriro ikusten ditut"

JON BEREZIBAR > ARRASATE

**12 urterekin arrebarekin etxean bideo bat grabatu eta bere herriko telebistara bidali zuen. Ordutik hona telebistara egon da lotua Ander Artzaken ibilbidea (Irun, 1982). Parisen 4 urte berriemaile egin eta gero, asteburuetako *Gaur egun* albistegiaren aurpegia dugu.**

**Nola daroazu munduaren erritmoaren aurka bizi izatea?**

Astelehenetik eguenera jai izaten dut. Mauka dela esaten didate. Parisen buru-belarri ibili eta gero, lasaitasun pixka bat behar nuen, baina bi hilabeteren buruan aspertu egin naiz. Gimnasiora joaten hasi naiz eta *mintzalagun* ere egin naiz eta ardo-kata ikastaro baten izena eman... Edozer...

**Haientzat luxuzko mintzalaguna izango zara.**

Lehenengo egunean galdetzen zidaten ea benetan neu nintzen, ze, antza, askotan jartzen dizkiete-eta euskaltegian telebistako albistegia.

**Albistegietako aurpegi aldaketek zeresan asko eragin zuten.**

Niretzat ez zen oso erraza izan, ze kritika asko egon ziren-eta. Hala ere, niri ez zait hainbestekoa iruditzen; azken finean, etxeko jendea da ipini dutena; ez dute Maria Teresa Campos ekarri *Teleberri* aurkeztera.

**Asteburuko *Gaur egun*-ek, baina, eutsi egin dio audientziari.**

ETB1en apaltasunean, nos-ki. Sekretu guztiak ez noa argitara ateratzera, baina Realaren partiduaren ostean egindako albistegia ez da marrazki bizidunen ostean egitea bezala...

**Jarraitzen duzu zure bideoak milaka aldiz ikusten?**

Hasi nintzenean nahiko gaizki pasatu nuen, ze akats pila bat ikusten nituen-eta. Oraindik ere behin eta berriro ikusten ditut nire bideoak. Orain lasaiago nabil, ze jabetu naiz-eta perfektu egitea ia ezinezkoa dela.

**Ze akatsek ematen dizu amorru handien?**

Iruditzen zait sarrera esan eta bideoa sartu arte triste aurpegia ipintzen dudala! [Barre] Gehien gorroto dudan aurpegiera da hori, eta zuzendu egin gura dudana.

**Zer baloratzen duzu aurkezle on batengan?**

Gertutasuna, batez ere, baina *Barrio Sesamo* izan gabe. Esaterako, Cuatroko albistegiko Javier Ruiz aurkezlea asko gustatzen zait.

SOSLAIA

## Paristik datorren...

Erasmus beka bati uko egiteaz garbaitu izanak ekarri zuen, birritan pentsatzeke, Parisen berriemaile izateko lanari baiezkoa ematea. Iritsi eta gazteen erreboltak egokitu zitzaizkion, *Sarko*-ren loraldia eta makina bat atxiloketa. Asko ikasi bai, baina Parisen "poteo girorik" ez zuen aurkitu. Herriminez itzuli eta *Gaur egun* albistegiaren aurpegi gaztea dugu egun. Hori bai, itzuli eta lehenengoko oporretan Parisera itzuli zen, "munduko hirik ederrenera".



Ander Artzak. EITB

### ai, ene!



**Nostalgikoendako...**

Era digitalean murgilduta, disketeen hutsunea igartzen dutenek post-it berezi hauek dituzte, lehengo diskete zaharren itxurarekin. Kontua da post-it normaletan ez dagoela asko idazterik, horrenbestez, hor...

http://www.gizmodiva.com

### biharamuna

Oier Bolibar

## Idaho Statesman

Egunkariaren auziaz nahi nuen idatzi oraingoan. Hala ere, gai horren gainean horrenbeste irakurri dugu astean zehar, ezen gauza beraz beste artikulu bat idaztea gehiegizkoa iruditzen zitzaidan.

Izan ere, dagoeneko ia guztia idatzita zegoela uste baituen. Baina, hara non, Boiseko lagunek bidalitako esteka bati eskerrak, Idahoko idatzizko egunkari nagusian, Idaho Statesman egunkarian, auzi honi buruz idatzitako berria irakurtzeko aukera izan dudan.



Banekien bertako euskal komunitatea gertatutakoaz jakinaren gainean zegoela, gertutik jarraitu baitute prozesu osoa urte hauetan zehar! Egunkaria-ri buruzko berria jarraikiz, irakurleek idatziriko komentario batzuk ere bazuten zeresana. Interesgarriak atlantikoaz bestaldeko gogoetak.

Batek Obamaren gobernuak, gobernu espainiarra aliatu moduan zuela terrorismoaren aurkako borrokan zioen, baina gobernu amerikarrak ez zituela ikusten Espainian sistematikoki ematen diren oinarrizko giza eskubideen etengabeko urraketak.

Oraindik demokraziarako bide luzea duela egiteko espainiar estatuko justiziak eta sistemak "demokratikoak", Frankismo garaiko mamuak alde batera lagata.

### eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +18 | +10 |

Zaparrada batzuekin emango diogu hasiera asteari. Hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira. Tenperatura apur bat jaitsi egingo da.

www.euskalmet.net

